

I. , II. eta III. «ETXEPE SARIA»



ELGOIBARKO UDALA

Elgoibarko Ikastolako nahiz beste Ikastetxeetako ikasle eta ikasle ohien ingurua nolabait girotu nahian eta batez ere, Euskara bera zuzpertz nahirik, Elgoibarko Gazte eta Nagusientzako Euskarazko Idaz Lehiaketa eratzen du ETXEPE-k, Elgoibarko Izarra Kultura Elkarte eta Udalaren dirulaguntzaz.

Hasiera batean, bi urtez behin egitea pentsatu bazen ere, hamendik aurrera urtero antolatuko da lehiaketa hau. Eskertzekoa da ETXEPE-k, literatura mota guztiak eskainiz, idazle berriei ematen dien aukera.

Elgoibarko Udalak, Literatura Lehiaketa honen arrakasta ikusirik, sariturik izandako lanak argitaratzea erabaki du, nolabait, euskaraz irakurri eta idazteko zaletasuna sortzeko asmoz.

Hemen doakizue, bada, azken hiru lehiaketetan sarituak izandako elgoibartarren lanak.

I., II. eta III.
«ETXEPE SARIA»

AURKIBIDEA

LEHEN «ETXEPE SARIA» : 1.982 urtean.

A. MAILA : O H O ko ikastak

— «Euskara, gure euskara». Diana Perez de Albeniz 11

B. MAILA : Gaitortzeak

— «Joni». Hasiar Etxeberria 19

— «Hintzelako-hazelako-izan hadi». Iñaki Odriozola 25

BIGARREN «ETXEPE SARIA» : 1.987 urtean.

A. MAILA : O H O ko ikastak

— «Askatasuna». Igor Odriozola 39

B. MAILA : Gaitortzeak

— «Edozein ostegun». Diana Perez de Albeniz 45

«ETXEPE SARIA» LITERATURA LEHIAKETA

1 Elgoibarko Ikastolako nahiz beste Ikastetxeetako ikasle eta ikasle ohien ingurua nolabait girotu nahian eta batez ere, Euskara bera zuzpertz nahirik, Elgoibarko Gazte eta Nagusientzako Euskarazko Idaz Lehiaketa eratzen du ETXEPE-k, Elgoibarko Izarra Kultura Elkartea eta Udalaren dirulaguntzaz.

2 Hasiera batean, bi urtez behin egitea pentsatu bazen ere, hamendik aurrera urtero antolatuko da lehiaketa hau. Eskertzekoa da ETXEPE-k, literatura mota guztiak eskainiz, idazle berriei ematen die aukera.

3 Elgoibarko Udalak, Literatura Lehiaketa honen arrakasta ikusirik, sarituak izandako lanak argitaratzea erabaki du, nolabait, euskaraz irakurri eta idazteko zaletasuna sortzeko asmoz.

4 Hemen doakizue, bada, azken hiru lehiaketetan sarituak izandako elgoibartarren lanak.

ELGOIBARKO UDAL EUSKARA BATZORDEA

AURKIBIDEA

LEHEN «ETXEPE SARIA»: 1.982 urtean.

A.MAILA : O.H.O. ko ikaslea	
— «Euskara, gure euskara». Diana Pérez de Albeniz	11
B.MAILA : Gaitortzekoak	
— «Jon». Hasiar Etxepena	19
— «Hizte-lako-hizte-lako-izan-hadi». Iñaki Odriozola	20


BIGARREN «ETXEPE SARIA»: 1.987 urtean.

A.MAILA : O.H.O. ko ikaslea	
— «Askatasuna». Igor Odriozola	39
B.MAILA : Gaitortzekoak	
— «Edozein ostegun». Diana Pérez de Albeniz	42

HIRUGARREN «ETXEPE SARIA»: 1.988 urtean.

A.MAILA : O.H.O. ko ikaslea	
1. saria : «Paganen istorioa». Maha Sana	52
2. saria : «Zorizkarako zuhaitza». Iñaki Iñiguez	63
3. saria : «Amatidun chizari bat». Nekane Eizuri	73
B.MAILA : Ertzaintako saila	
1. saria : «Ihes berriz xilegi baltza». Amaia Iñiguez	81
2. saria : «Aingura». Mikel Komejo	92
3. saria : «Ertzu baten itzala». Jasone Osoro	101
3. saria : «Mendapuzia». Guillermo Artola	113
3. saria : «Buna baino lehen». Aitor Rementería	121
C.MAILA : Maha irakur	
1. saria : «Lurralde bategi». Alberto Arsuategi	129
2. saria : «Gauentziko ironea». Agurtxane Garza	139
3. saria : «Nena». Julían Mujika	143

AURREKALDEA : BELLO EKURRA



LEHEN «ETXEPE SARIA»: 1.982 urtean

Diana Pérez de Albeniz
(O.H.O. mailan 1. Saria)

Euskara, gure euskara

LEHEN «ETXERTE SARIA»: 1982 IRITAN



Euskara euskara

Gure arikuntza eta gutxiago hitzegiten da euskaraz.

Hastira batoten, gure arbasoek euskara erabiltzen zuten ahozko komunikabideak euskaraz hitzegiten zen. Inork ez da horren aurkako erantzutza hiru, baina badirudi inbasoreak penintsularen etorri ondoko, hitzegiten zela bertan euskaraz. Aintzina batoten, Euskal Herria, euskararen bizilekua osain denekoa baino handiagoa zen. Euskaldunak Pireneetatik (Gipuzkoak, Bizkaiak, Arabak, Nafarroak, Bena Nafarroak, Lapurdik eta Zuberoak osatzen zuten. (Hau, hala ere, ez zen horrela, ezken hiru haiek, legeen aurtean, Frantziako zati bat bait ziren). Baita ere hitzegiten zen euskaraz Akitsailun. Probintzi hauek ez ziren gizarte eta ekonomia bat bezala bizi, bakoitza bere aldeak bairik. Bakoitzak, besteekin gonbaratur, bizi modu desberdina zuten, ordea, denak euskaraz mintzatzen ziren.

Iparaldekoa, Hegoaldean hitzegiten zena ere desberdina zen, baina, hala ere, euskara. Euskaldunak erago askoren menpe egon izan dira eta denek bere foro eta hizkuntza desegin izan dituzte. XIX. mendean, Frankoren garaian, euskara oso zapu-



Diana Pérez de Albeniz
(O.H.O. mailan I. Zuria)

Euskara, gure euskara

Euskara, gure euskara

Gure hizkuntza, euskara, galtzen ari da; gero eta guttiago hitzegiten da euskaraz.

Hasera batetan, gure arbasoek euskara erabiltzen zuten ahozko komunikabide bezala. Etxean, kalean...euskaraz hitzegiten zen. Inork ez daki zihur nondik datorren hizkuntza hau, baina badirudi inbasoreak penintsulara etorri orduko, hitzegiten zela bertan euskaraz. Aintzina batetan, Euskal Herria, euskararen bizileku, orain denekoa baino handiagoa zen. Euskaldunak Penintsula Iberikaren Iparraldean zeuden zabaldurik (orain ere daude). Gipuzkoak, Bizkaiak, Arabak, nafarroak, Behe Nafarroak, Lapurdik eta Zuberoak osatzen zuten. (Hau, hala ere ez zen horrela, azken hiru hauek, legeen aurrean, Frantziako zati bat bait ziren). Baita ere hitzegiten zen euskaraz Akitanian. Probintzi hauek ez ziren gizarte eta ekonomiz bat bezala bizi, bakoitza bere aldetik baizik. Bakoitzak, besteekin gonbaratuz, bizimodu desberdina zuen, ordea, denak euskaraz mintzatzen ziren.

Iparraldekoa, Hegoaldean hitzegiten zenaren desberdina zen, baina, hala ere, euskara. Euskaldunak errege askoren menpe egon izan dira eta denek bere foru eta hizkuntza desegin nahi izan dituzte. XIX. mendean, Frankoren garaian, euskara oso zapal-

durik egon zen. Franko agintean zegoenean guztiz debekaturik zegoen euskaraz hitzegitea. Eskolatan euskaraz mintzatzen zena zigortua izaten zen, eta noski, ez zen euskarazko ikasketarik ematen. Horregatik, euskaldunek ezkutuan zabaldu behar izan zuten bere hizkuntza. Egon izan dira denborarekin desagertu diren mintzairak, euskara, gure euskara, aldiz, oraindik bizirik dago. Bizirik daramatza urte asko, eta gure izerdiz, orain arteko haina iraun beharko luke. Denboraren denboraz, aldatzen joan da, «hau horrela hobeago dela» edo eta «hori beste modu batetara ipiniz errazago izango litzateke ikasteko» esanez, gizonak berriztatu egin bait du.

Izan dira «euskara beste hizkuntzen hondakinetatik ateratako hizkuntza bat dela, eta ezertarako balio ez duela» esan duten pertsonak, euskaldunek, ostera, odola irakinez, gureganaino ekartzea lortu dute. Ez da izan motza herri ttiki honen hizkuntzaren historio eta sufrimendua.

Geroztik euskara galtzen joan da. Gaur egun hitzegiten dena lehengoaren desberdina da: euskara batua.

Nahiz eta jende askok lan asko egin mintzaira honen zabal-kuntzarako, nahi edo ez nahi, euskararen mintzamena guttitzen ari da. Kalean, etxean, ikastola edo ikastetxeetako ikasleen artean...gero eta gehiago erabiltzen da erdara hitzegiteko. Zergatik?...Galdera ona. Erantzuna hau izango litzateke: Esaten da haurrek nagusiei ikusitakoa ikasi eta egiten dutela. Ez bakarrik haurrek; guk denok ere. Ikusten badugu erdaraz hitzegiten dela, zertarako euskaraz hitze gin?... Hau duk hau. Baina, horrela da; jendeak hori egiten du. Telebista erdaraz, egunkariak erdaraz, liburuak eta zinema erdaraz...Dena erdaraz! Eta gu, horrela gelditu behar gara, mozoloak bezala, besteek zer egiten duten ikusiz?...Ez!! Zerbait egin beharko genuke, ostera...ez dugu egiten. Ba daago euskararen alde jo eta ke lan egiten duen jendea, eta guk zer?...Guk? Ezer ere ez. Ikusi eta ikasi, ikusi eta ikasi. Mozoloak bezala! Mozoloak bezala portatzen ari gara! Mozo-

loak gara!! Ez, ez gara mozoloak. Ez dugu beste irtenbiderik. Edo bai?...Arriskatu al gara ea posibilitaterik egon daitekeen aztertzeraz?...Horrela ez ba da, zela nahi dugu posibilitaterik aurkitzea! Ai ama, haserretzen ari naiz. Trankil, lasaitu zaitez; ez da hainbesterako. Ez dela hainbesterako!! Hori ikusi egin beharko litzateke!! Beno, haserreak beste alde batetara utziz, harira.

Esan dudan bezala, pertsona batzu alperkerian dabilizan birtartean, besteek lana gogor egiten dute. Euskararen galtze horren arrazoiatarako irtenbideak bilatzen aritzen dira, eta gero, irtenbide horiek praktikan jartzen ahalegintzen dira. Kausak, lehen aipaturikoak dira: Erdalduriko mundu batetan bizi gara; gure inguruko erdarak sition egiten gaitu. Horrelako kasuetan gertatzen den bezala, aurkakoaren puntu ahula bilatuz, bertan atakatu behar da. Hori da pertsona horiek egin nahi izan dutena, eta gure ingurua euskalduntzeko, zenbait gauza egin dituzte, orain esplikaturiko ditudanak: Irakaskuntza printzipala da, eta zein hizkuntzatan hartzen dugun ere. Horregatik izan ziren sortuak ikastolak. Bertan ikasketak euskaraz ematen zaizkie ikasleei, eta hauek, denboraz, euskaraz hitzegitera ohitzen joaten dira. Ikastolatan ematen den irakasketaren arauera, hiru talde berezi daitetzeke ikasleen artean: Haurreskola edo eskolaurrea, lehenengo etapa eta bigarren etapa. Eskolaurrean, bizpauru kurtso egiten dira, euskara ikasten joateko eta, beste haurrekin elkarbiziz, geroago etorriko denarentzako prestatzen joateko. Ikasketa hauek hiru urterekin hasten dira. Lehenengo etapa, lehenengo, bigarren etapa, hirugarren eta laugarren mailak osatzen dute; beraz, berderatzi urtetaraino guttigorabehera. Bigarren etapa, hortik gorakoa da. Hau da, bost, sei, zazpi eta zortzigarren mailak osatua. Hemen bukatzen da, beraz, E.G.B. edo O.H.O.-ko irakaskuntza batzuentzat eta ikasketa besteentzat. Normalki hamairu edo hamalau urterekin amaitzen dute ikasleek. Hau ez da horrela gertatzen, pertsonaren batek, ez delako ondo ibili ikasketatan, kur-

tsoren bat berregin egiten ba du. Ikastola gehienetan, bigarren etapako ikasleek, lehenengokoek baino denbora gehiago egiten dute lanean.

Jakitakoa denez, Euskal Herriak bere gobernu autonomoa du, nahiz eta ez izan guztiz independientea. Gobernu honen laguntzaz lortu nahi dena, Euskal Herritik zehar zabaldutako ikastola guztiak publikoak edo nazionalak bihurtzea da. Kasu honetan ez lirateke izango Espainiako gobernuarenak, Euskal Herrikoarenak baizik. Ba dira pertsona batzu hori nahi ez dutenak, edo eta nahiz eta horiek existitu, bere haurrak ordaintzen direnetera eramatea nahiago dutenak. Gaur egungo ikastolak, badira publikoak edo jende guztiaren esku daudenak, baina berri hoiek guztiz publikoak izango lirateke jadanik. Ikasketak hartzen dituztenek, liburuak bakarrik ordaindu beharko lituzkete; gaur egun ordaintzen dutena, aldiz, irakasleentzat ez izan arren, erabilitako materialaren gastuetarako da. Honez gero, Euskal Jaurlaritzak ordainduko lituzke gastu guztiak liburuak ezik (maixuen soldatak, material eta tresnak...)

Baina, logikoa denez, honekin ez da nahikoa; zerbait gehiago egin behar da euskararen alde, euskara salbatzeko. Horregatik izan da sortua euskal telebista. Hau, oraindik, ez da izan jarria praktikan, baina martxan doa. Bilbo inguruan proiektu honen biltokia dago. Bertan pertsona batzuek, atzeritar pelikulak hartu, eta euskarara itzultzen dituzte. Lan hau, dirudiena baino zailagoa da, hitzak aho mugimenduekin batera koordinatu behar bait dira.

Proiektu hau praktikan jartzen denean, ordu gutti(bi uste da) izango ditu jendearen arreta deitzeko, baina espero da, denborekin hau handitzen joatea.

Ez da izan telebista bakarrik prestatu dena. Euskal irratia martxan jarria da.

Jendeak pentsatzen du honek ez duela influentziarik jendearengan: ez da hori egia; hau praktikan jarri denetik, nahiz eta

jendeari tira gehiago egin erdaraz hitzegiteak, pertsonak gero eta gehiago egin dute euskararen alde.

*Gure euskara maitea,
euskaldunen itxaropen.
Ez gaitzazu utzi
bazereturik hemen,
zeren eta zu barik
ez bait dugu ezertarako ahalmen.*

*Entzun gure deia,
lagun gaitzazu gu,
emaiguzu eskua,
mesedez, lagundu.*

*Eskaintzen dizkizut zuri
pare bat bertso maitasunez.
Hitz makal batzu izango dira,
baina eginak bihotz-bihotzez,
gure Euskal Herria salbatu duenarentzat,
itxaropengo hitzak emanaz.*

Bertso hauek ez dute ez doinu eta ez silaba konturik, eta ez daude eginak zortziko edo hamarrekoan, baina sentimendu haundienekin eginak izan dira.

*Maiatz, Angel, Mikel,
Moukari, Xakel, Estar,
Pirak, Irasori, Txanpasi,
Nabiri eta azken bostak,
eguzek egun jasaten saiatu edonori,*



Hasier Etxeberria
I. Soria (belduen mailan)

Jon

Mafai, Angel, Mikel,
Mondakari, Xabier, Biki,
Iñaki, Iratxe, Txabak,
Xabier eta azken linea,
egunex egin jasaten nauden edonori.

Jon

*pinu batzu sartu zituzten haseran,
«pinu askotxo da hemen» esaten zuten beranduago,
hemengo mendietan pinua beti izan dela
iruditzen zaigu oraingooi*

*«galtzen ari da» diogu orain,
«ia galdu da» esanen dute gerokoek,
«siempre ha sido así» («sekula izan al da bada»)
irudituko zaie ehun urte barru*

Munduko beste leku guztiek bezala, gureak ere badu bere historiatxoa, ezaguna izanarren zinez gordina ageri zaigun gertaeraz jositako historia triste baten antzekoa. Olaso-Altzolataren garaitik hona ekaitz zabar batek astindu izan duen gure mendiarteko ibar hertsiaeren historia.

Bere etxez jositako soroetan nabari daitezkeen aldakuntzak baino sakonago antzematen dira, errex, hemengo ohitura eta izakeretan emeki edo bortizki hartu zaizkigun astinaldien ondorioak.

Gehiena bilakatu zaigu zikin eta urrun.
Alferrik aipa genitzake hemen denbora joanetako zorian eta

desioak. Alferrik orduango istorio eta kontuak erakartzea. Alferrik ezer aipatzea.

Baina hiltzear den su batetako txingarra berotzen saiatzen den legez, geroa uste-nahi batek gauzka hiltzoriko dantzan. Pausoak ongi ez markatuarren, dantzan diraugun unea, behintzat.

Eta ausardia barkatzen badidazue (agian zeuok nik baino lasaiago edo ezberdin ikusiko bait duzue), herri honetan bi mila aldiz jazo izan den gertaera baten zertzeladak agertuko dizki-zuet. Inori ezer argitu nahi barik, hitz hauek iradokizun ere gerta ez daitezen esperantzan. Zeuok, ni neu edo beste edonor bezala, hor baitzaudete, ziurraski herriarekiko saminetan murgildurik, dakusagun gero ilun hori nola argitu asma ezinik.

Guk asko badakigu ere (herri honetan denok asko dakigu eta) moldakaitz baitzaigu geroaren antolaketa eta negargarri oraina.

Neuri ere halakoxekoa zaidalako eta oraindik oiloari arraul-tzeak nola jarri esateko mania sartu ez zaidanez, ez dizuet hemen ideia bikainik, hitz sakraturik jaurtiko. Ez zaitut ez bare ez ase-tuko. Eta hitzongatik inoren etsipena edo esperantza handituko balitz, bihotzbehergia dela aitortu beharrean suertatuko litzateke edonoren aurrean eta edonon. Biguina dela, alegia. Bi mila saminek edo mallkok ez bait dute ezer altxatzen, salbatzen. Eta ez nadin orain hitz serioegitan sar, gorringoetaraino bait gaude hitz soil eta negartietaz. Hileta tonoez. Etsituaren negarra mutuaren deiadarra besterik ez da eta.

Hor doakizue bada, Jon-en historia baino gehiago herri osoa-ren egoera adierazi nahi lukeen zera. Alferrik izango ez ote de-naren susmoa sudur puntan izan arren, Jon nor den edo behin zer jazo zitzaion kanporatzea alferrik den bezalaxe.

J.E.

—Akordatzen haiz?

—Bai akordatazen naiz. Nik orduan Eibarko Armerixan

ikasten naban, ondiok Kajaorrosian lanian asi-be nitzan.

Orduan Alkortaneko tabernan kartetan eitzen genduan. Diruz ere, danok gaizki eta badakizu, astia amaitzeko sosa biar.

Baña aspalditzuan ez dot Jon ikusi. Donostian bizi danetik gitxi etortzen da hona. Badakizu, ori beti bere euskeriarekin gora eta bera. Oin pelikulak eitzen edo nik eztakitx zetan dabillen. Zuk galdetu diazunak ere badauka orrekin zerikusixa. Orduan, ondiok Jon etzan ainbeste sartzen olako asuntuetan baiña egun aretan arratzalde txarra pasau zaban.

Torres bizirik zauan ondiok. Gero ill zebeñ baiña ori baiño iru ero lau urte lenao izango zan.

Len esan bezela, gu Alkortanekuan geunden eta Joxe Martin, Izarraitz aldian morroi ibiltzen dan ori, sartu zan. Betiko moduan zixen orduan ere: mozkor-mozkor eginda eta zikiñ. Kantuan ziarduen eta gure atzian zauan beste mai baten jarri jakun. Guk ez gendun kaso aundirik eiñ eta hala ere berak trikitixak kantatzen zitxuan, atenziua deitxu naixan egongo balitz bezela.

Berandutxuao Torres agertu zan an eta euskeraz ez berbaitxeko agindu zion oso modu txarrian Joxe Martiñi. Onek ezer erantzun barik aldeñ zaban.

Nik Torres sartzen ikusi nabanian, pentzau naban olako zeoze pasauko zala. Aura beti zebillen berdin. Ni beintzat ez nitzan batere arritxu baiña Jon bai. Arritxu baiño geixao, gañera, asarratu eiñ zala esango neuke, eta antxintxika erten zaban andik guk kartak eskuan geunkazela lagata. Uste doranez Joxe Martiñekin egoteko intenziuaz juan zan.

Gero, bueltatu zanian, Jonek Torresekin segitxu zaban berbetan denpora askuan baña geixegi berotu bae. Azkenian etxera zixela esan eta aldeñ zaban. Egunduan geixao ez naban ikusi.

Aura asarre jarriko zan seguru! Nik eztakirana Joxe Martiñekin berbain dauka da, baña an tartian izango zaben zeoze.

Zeatik etzara berakin egoten? Interes aundixa badozu emango

dizut Donostiako aren telefonua. Artuizu momentu baten, hor daukazu lapitza: sesentaikuartro, amar, ogetazazpi. Billatzia giltza da baiña arrapaukozu aura datozen bakaziuetan. Etorri orduan naibozu. Bale ba. Ez orreatik. Urrenguan ere, zu etorri.

—¿Te acuerdas?

—Cómo no me voy a acordar. Aquel día me pulieron mucha tela. Era uno de esos julepes que echábamos en el Alcorta cuando hacíamos C.O.U. Pero tú qué quieres saber exactamente, lo que pasó allí o cómo lo tomó Yon? Lo único que puedo hacer es hablarte un poco y a mi manera de lo que me acuerdo. Vale?

Me acuerdo que Yon se fue a toda hostia. Nos extrañó porque iba ganando y por aquel entonces andaba colgao de pelas. Pero no sé porqué se las piró.

Creo que hubo un jaleo con Torres y un casero. Sí, ya recuerdo. No sabes quién es Jose Martin? Sí hombre, ese que anda siempre medio templao y que va por ahí currando por los caseríos.

Yon le conocía de antes, creo que de siempre. Ya sabes, de cuando de chaval iba a la chabola que tenían por Madarixa.

Torres le debió decir algo a Jose Martin porque estaba hablando en vasco. Ese Torres siempre ha sido un cabrón. Te acuerdas de cuando el juicio de Burgos? Y el hijoputa todo el día en la ventana.

Bueno, la verdad, yo no me enteré mucho de la movida pero Yon se debió mosquear la tira porque salió de allí como si se le estuviera quemando la casa.

Luego, según me dijo Xabi, Yon se picó porque el casero no le dijo nada al Torres.

Ya sabes cómo es Yon, de otra cosa no te hablará. Siempre está con su dichoso euskera, que «a ver si aprendes que ya es hora,» venga Atano que no se puede andar siempre igual». Siempre

anda con la misma historia. Ya sé que tiene razón pero es un coñazo oír siempre lo mismo.

Ya sé que tiene razón pero es un coñazo oír siempre lo mismo.

Y a todo esto, porqué me preguntas estas cosas?

—Akordatzen al haiz?

—Akordatuko enok pa? An jauazen Luix, Atano eta Jon ne-rekin batera. Beti esan najiuan nik Joni hori, Torres txaketas ostia ori putakume bat zuala. Nik banekixan aura len guardia zibilla izandakoa zala. Arekin etzala iñun gauza onik. Beti jaukan asarrerako gogua ta nastia. Orduan ere orixe eiñ juan arek. Txarri zikiña!

Joxemartin kantuan jauan, betiko moduan aura ere, muturra ardauez galanki goritxuta. Goizian goizetik ibilliko zuan aura ardaedanian. Len armusau ere ardaue eitzen juan arek. Beti jauan tente egon eziñik. Bai, kantuan ari zuan da Torres alu ori agertu zuan orduantxe. Eta Joxemartiñek, badakik, aura etzuan konturau ere eiñ, han segitxu juan kantuan, altu ari zuan gainera, betiko bertzoren bat edo antzeko zeozer izango zuan orduan ere -orrek etxaukak besterik eta-, ba orduan esan juiuan Torresek euskeraz barbarik ez eitzeko. Insultau ere in juan txarri arek. Len esan dixat arekin etzala onikan. Ori bai egixa!

Baiña ik Jonek zer ein juan jakin nai dok ezta?

Ba asko asko enok akordatzen, baiña asarratu beintzat eiñ zuan. Arek eruan juan saltakia! Joxemartin arrapatzeko ustiaz urten zuan. Gero, or, Mala aldian artu ei juan. Nik etxakixat ze Dios esan juen bixen artian baiña Jonek ekarri juan aserre ero nik etxakixat zelako arpeixa bueltan.

Juan saltakia! Joxemartin arrapaatzeko ustiaz urten zuan. Gero, or, Mala aldian artu ei juan. Nik etxakixat ze Dios esan juen bixen artian baiña Jonek ekarri juan aserre ero nik etxakixat zelako arpeixa bueltan.

Emen egon zuan gero Torresekin berbetan. Arekin egon ondoren etxera zixela ta etzala geixao ertengo bixamonerarte esanaz ezkutau zuan.

Guk kartetan segitxu genduan eta azkenerako Torres ere jun zuan Alkortanekotik. Gero, bakik, garbitxu eñ juen aura ere. Oiñ ze pentzau etxuat jakiten baiña len olakuak akabautakuan poztu eitzen nitzuan. Oiñ diferentia dok baiña...

Hi, baiña ori guztiori, nik baño obeto Luisek esango dik. Bai, ontxe arrapaukok aura Kajaorrosian, beranduarde eitzen jok lan eta.

Len egon aizela berakin? Orduan au dana alperrik kontauko hixan. Urrenguan ere, zeoze biabok i etorri ari lasai billurripe, ni geixenetan etxian aarrapauko nok. Gitxi ertetzen nok aspal-dixan, izan ere, oiñ ze egoten dok pa kalian? Nik behintzat etxuat...bai i, agur bai. Naidokenian etorri berriz ere.

—Oroitzen al haiz?

Alkortaneko tabernan, orain Pelouse deneko hortan, eserita hengoan gaztaroko lehen julepeak jostatzen hasi berria. Hi Xabi eta Luixen artean hintzen, bateko haik dardarapean ezkutatu ezinik. Voy. Zazpirehun eta hogeitazazpi pezeta platerean. Setecientas veintisiete. Atanori julepe eman hioaneko hartaz ari natazaik.

Ipurdia sila gainean ezin kabitturik heunkan dena irabazi huenean. Horrelako dirutza, ia ehun eta berrogeitasei duro, txiki-kegi suertatzen zitzaian panazko fraken faltrika txikian sartu nahian ari nintzenezan ikusi huen arratsalde hartan estraineiko.

Senitartekorik edo inguruan ba ote zen begiztatzeko, hainbesteko dirutzak hunkituko ez bahindu bezala, zeharka begiratzan hasi hintzenezan ikusi huen hik Joxemartin.

Aurrez ezagutzen huen Azkoitiko mutilzahar hura. Ikusia huen Larraskanda aldean batetik bestera morrontzan, garoa zela,

ikatz zela edo beste edozein lan eskax sarritan agertzen bait zitzaion han hemenka.

Betiere mundu aldrebes batetako gizaki baten gisan ikusi izan huen. Mendian sortutakoek duten mundu eskusibo baten emaitza berezia. Inoiz ez huen gai arrotzetaz mintzatzen somatu. Harek beti zian dema, bertsoa, ganajatekoa edo baserriari atxikiro beste edozein gai. Eta ardoa.

Orduangoan ere haitzur bikaina zeraman soinean. Muturra goiz osoz berotzen egondakoaren antza hartzen hioan. Etxetik irtetzean zuria zen beltzutako alkandora gerrian suelto zeukan. Jertsea galtzerpean eta baxoerdia eror zorian eskuan. Tantoak hara eta hona isuriz, alkandora ilundua erabat gautu nahi balu bezala. Kantari ari huen.«urruti eta nere bihotza nahigabez erdibiturik gelditu nintzen tristerik...»

Kasu gehiagorik egin gabe, buruari buelta emanaz, julepeko karta artean bermurgildu hintzen.

Hiru esku ez hituen pasa zaharrak izango, heure atzekaldean bapateko isiltasuna huenean.

Torres Joxemartini gaizki-esaka ari zitzaion: ...jodío borra-cho, ya te he dicho antes que hables en cristiano...»

Joxemartinek, mozkorrondoaren eragin gorria zurbildu zitzaiolarik, tutik esan gabe eta begiak non jarri ez zekiela, baxoerdia marmor gainean utziz, atealderantz jo zuen. Atzerantz begiratu gabe, hoben astun baten jabe balitz bezala, isilpeko ihes batez alde egin zuen Alkortanekotik.

Hik jokoa utzi huen bapatean. Buruan zurrumbilo bat sentitu huen. Torresek esandako hitzak, ozenki jaurtikiak izan hituen, eta garbi aditu ahal izan hituen.

Amorroak odola berotu zian begiak bustiarazterarte. Azala gorri eta eskuetan dardara. Ezin huen kartetan segi.

Aulkia kolpera baztertuz presaka irten hintzen lagun harrituen tartetik. Azkar hindoan San Frantzisko kalean behera Joxemar-

tin harrapatu nahian.

«Torres putakumea, Okerka sortua. Guardiazibil ahalena. Ez haiz gogorrenarekin sartu ez. Idiota. Hijoputa. Urte t'erdiko minak eramango al hau Olasora...»

Potrankaneko atean harrapatu huen Joxemartin, orduantxe Malako iturrian edateko asmoz makurtua huen, eta hik: «Baina Joxemartin, zergatik ez diok ezer erantzun? Zergatik ez diok kontrarik egin?».

Eta Joxemartinek: «Erderaz ezer esateko gai ez nauk mutil, eta gainera zer esan behar zioat nik? Heuk esan iezaioak nahi baduk. Hi gaztea haiz». Zotin batez mukiak goruntz altxa zizkian.


Iriondonean sartu huen berriz ardo eske, berriro ere ihesi eta hi han gelditu hintzen, Malako kruzean zutik, babu baten gisan. Zer egin jakin gabe.

Joxemartinen munduaz egindako gogoetak zetozkian burura. Arrazoi huen. Aparteko mundu batetan bizi huen, bai. Baina heuk ere mundu horretan huen partaidetza ozenki agertu zitzaian begi-bistan. Jakin egin huen.

Borobil handi baaten barnean gero eta txikiago zen borobiltxo batetan partaide ikusi huen heure burua.

Merkurio kiloterdi baatek ttanto bat irensten duen bezala irentsi zorian somatu huen hire borobiltxoa.

Hotzikara eta beldurra nabaritu huen. Negargurea.



Iñaki Odriozola
1. Saria (Lehen maila)

Hintzelako - haizelako - izan hadi

2.- Abeltzaingoaren kanti oihua,
berri-baserrietan arima,
obarkabe manipulatu,
trazietan odolidatuko
tradizioen makila,
mendotako guda (entzarria),
hainbat hilketen hasiera,
gizarte berriaren oinarri,

tin harrapatu nabian.

«Torres patakimes, On... zibil ahazna. Ez
haiz gogorrenard... Ute t'erdiko
minak eramango...

Potrankaneko... orribin, orduantze
Malako iturrian... eta hik: «Baina
Joxemartin, zergatik... zergatik ez ditek
kontrarik egin?»

Eta Joxemartin... ez nauk mutil,
eta gainera zer... an lezaiok unhi
badak. Hii gazte... oruntz altxa ziz-
kian.

Iriondoan... oro ere ihesi eta
hi han gelditu... abu baten gisan.
Zer egin jakin...

Joxemartinen munduaz egindako gogoretak zetoztian burura.
Arrazoi huen. Aparteko mundu batetik bizi huen, bai. Baina
heuk ere mundu horretan bizi izan direla agerian zitzatzen
begi-bistan. Jakin egin...

Boxobil haren baxien baxean gero eta txikiago zen borobiltxo
baxean partide ikusi huen heurtu burua.

Hintzelako - haizelako - izan hadi

Hotzilara eta heldurra nabaritu huen. Negargurea.

Hintzelako - haizelako - izan hadi

1.-Antzerki orokor batetan
parte hartzera behartua izan zen,
eszenarioa markatu zutenean
teloia ahaztu zirelarik.

On eta txarren arteko burrukak,
greziar tragedien pausoak apurtzean
bizitzaren aktoreek,
urteetan zehar, mendeetan zehar,
elkarrizketa berdinean batuaz,
milaka aldiz entsaiatu ondoren,
pentsamolde eta itxura bat,
ez zazpi, lortu zuten.

2.- Abeltzaingoaren kantu oihua,
herri-baserrietan arima,
oharkabe manipulatu,
traizioetan odoldutako
tradizioen makila,
mendeetako guda tentazioa,
hainbat hilketen hasiera,
gizarte berriaren oinarri,

bai iraultza, bai pake egarri,
gizon eta emakumeen hondamen,
askatzaile bakarra.
Agur.

3.-Artzen gizon,mundu txikia,
Cromagnoneko ehiztari indartsua.
Aste bukaeratako ardo balantzetan
kulunkatzen zera,
kontsumoaren erosle bortxatueta
bihurtu zintuzten.

Euskaraz mozkortu ezinaren miña,
hilarterainoko mozkorra.
Euskarardoa edanez,
pake
parre eternoa lortu nahian
galdu nintzen.

4.-Mekanizazioaren haroan, paroan,
interes berbituen arteko jokoetan
herri bihurtu gaituen Euskara
fossilizatu ez dadin,
arnasa galdu,
lehen auxilioetan
bihotzaren erritmoa ezarri beharrea
aurkitzen ba zen ere, ba da ere,
berrogei urtetako gose greba
izan eta gero,
maratoi herrikoietan
korrika galantak izaten ditu,
urtero,
hain erraz ez gaituztela zapalduko adieraziz.

5.-Zementozko jauregieta jentileria,
internazionaltasunaren magia harrigarria,
ekaitz eta hegohaizeen azpitik,
elektrikazko kableen tximistetatik
euskal energia,
arratsalde euritsuetako
ozono usainarekin nahasturik
gorputz gazteetan sartzen da,
ilargi betea den gaueko euforia biluzia.
Alkimilarien pozima izkutueta
droga gogorra,
euskaldun izatea.

6.-Zaldi hegaziaren mitologian
abioi burdintsu,astun batek,
materialismoak ostadar bihurtu zuen
Maryn urre orrazia
zeharkatzean,
hutsunearen sakonera gainditzean,
eza uste zenetik,
zentzugabetasun osoan
indar izkutu
eragile bezala
agertu zen,
euskal hirrika,
herriaren bide.

7.-Ustekabean,
biziaren arnasa hartzean
mugatu gintuzten
gorputz eta denboran.
Ezjakinaren mugak apurtzen
saiatu ginen,

oztopo zirela ikustean.
Filosofia arrunt,
arro,
guztietan
betebeharrak ezagutu eta gero,
askatzaile faltsoetaz
aspertu ginenean,
konturatu,
ahalezinean
ahaleginak jarri genituan,
eta honen fruitu-hazia
lurretik esnatu zen.
Egur-burnitatik gizartea,
kolektibitatetik gizona,
biztanleen ahotatik
Euskara
sortu zen.


8.-Historia sakratuetako jainkoen
laguntzarik gabe,
sionistek
nazio arteko ghettoetan
izan zuten zapalketa izanik,
euskal harria, herria,
ixila,
izate egarria eta makila,
urrezko kaiola industrialaren
barnetik,
askatzaile automatikoen
gainetik
irtetzen ari da.
Gaur.

9.-Altsatu behingoz, goratu
euskal harri dugun hori.
Udaberrien oinarrietatik,
biziaren moldeetatik desertatu ondoren,
bihotz-euskara sortzean,
demografiaren mugak gaindituaz,
buru eta zerebroetatik,
lur eta gorputzetatik,
inkonszientearen oztopoak
askatuaz,
gure pentsakera,
bakarra,
agertuko da
guretan.

10.-Arrantzaleen komunikabide,
itsas gizonen pentsakera,
egungo ontzi-makinetan,
petroleo usai loditan,
arraunlari trebe
bale harrapatzaileen oihua,
gizarte sinple baten
hizkuntza sakona,
bilakaeraren fruitu,
adaptazioaren efektu,
ardatza.
Historia rutinarioetan
monotoniaren arauak apurtuaz,
elkarrizketa,
ezaguketa
iraunkorrek lortu izan ditu
gure artean milaka urteetan.
Jarrai ba!

Bete ezak
hire historiarekiko halabeharra.
Izan hadi,
bedi,
bihar ere
euskara,
bizia,
euskaldunen bizia.


11.-Euskal landare berezia,
langile langabeen arnasa
hazia,
gizartearen oin,
gizartean harri,
historiaren ate izkutuan
orain arte ixila,
ez galdua.
Azal lizundua utzi ondoren,
kafkaren metamorfosia
menperatu,
iraunkortuaz,
larru bizian euskara
hizkuntza,
pentsakera, nazio,
bihotz, buru,
gorputz bat,
lepra, gaixo artifiziala
garbitasunez deuseztean,
gizonaren heldutasuna adierazten
erakusten
zabaldu zen, hedatu
mundura.



BIGARREN «ETXEPE SARIA»: 1.987 urtean

Igor Odriozola
(O.H.O.n I.saria)

Askatasuna



Igor Oñativia
(O.H.O. n. I. a. n. a.)

Askatasuna

Askatasuna

Oi askatasuna!

Egun hau, hirian igaroak diren beste guztiak bezalakoa da bertako biztanleentzat. Niretzat ez, ordea. Baso baten aurki dai-tekeen askatasun ugaria dasta daiteke. nire usaimenak ere, al-daketa handi bat nabari du: dagoeneko, espetxe usaina aldegina bait dut. Ikusten dudan lehen egunsenti hontan, etengabe gogo-raatzen dut askatasuna galdu eta beste batzuren menpe egotea zer den badakidalako.

«Egin nuenaz damu nintzen»

«Nintzen» diot, orain, berriz, egin nuena egiteko gai naize-lako.

«Lehen hiruzpalau asteak nire gelan igaro nituen. Ixil, goserik gabe, huts... Ikusmena puntu baten jarri eta bertan lagata nuen. Ni ere, ertz baten exeria nintzen. Geldi. Lasaitasuna. Nire buruan jira-biraka "askatasun" hitza. Denboraren egoera ahaztua neu-kan, nire gelan eta hotsa hedatu zenean, burua bueltatzera era-man ninduen, segundu batzu geroago haserako tokira itzultze-ko».

Une haiek inoiz ahaztuko ez ditudan horietakoak dira. Ba-kardade hura...

«Ate hotsa berriro ere».

Hau izan zen nire lehen erreazioaren zergatia, nik oihu bat askatzearen arrazoia.

«Ahotsa lantzea ere ahaztua neukan, kasik. Atea bizkorki zabaldu zen, iluntasun ugari hura argitasun bihurtuz, tximista baten tankera. Nire begiek, erdi itsuturik, gizaki baten irudia zekusaten, ezer gehiago. Zerbaiti buruz hitzegiten zidan, baina ez nintzen ezertaz ohartu. Bakardadearen sunsiketa hark izugarritzko poza sortu zidan bihotzean. Itotzeko berotasuna, beldurra...»

Hura izan zen nire lehen adiskidea, nire lehen laguntza.

Askatasunik gabeko gure bizitzako une larrietan ez da itxaropenik galdu behar, ez eta beste adiskideak mespreziatu. Bakoitza bere egoeraz besterik ez da arduratzen, eta gauzak horrela izan behar ez direla denok dakigu. Ondorioz elkar-bazterka sortuko zatekeen.

«Lehen urtea igarotzean, espetxe ilun eta ixil hura, poz eta udaberri giroan bihurtu genuen. Berriei lagundu eta taldeko beste edozeini bezalako harremanak emanez. Denbora asko barru, herrialde desberdin batera eraman ninduten. Han, bakardadea nagusi zela nabari nuen».

Eta naiz eta tamaltasun hura aldegitiko ahaleginak egin, ezin izan nuen ezertxo ere lortu.

«Ixiluneek jarraitzen zuten. Ez nintzen han baino ezerosoago inon aurkitu.

Giro hartatik aldegin beharra nuen, askatasun egarriz. Lehen aukeran, funtzionari bat jo, erropaz aldatu, eta zenbait giltz ohostu nizkion».

Jarraian egingo nuenaz ohartu gabe, izugarritzko okerra egin nuela badakit.

«Dena den, ate nagusira iritsi arte ihesaldi hura oso ongi zihuan. Karneta eskatu zidatenean, oso urduri, korrika alde

egitea besterik ez zitzaidan bururatu, baina berehala azaldu zitzaidan ongi armaturiko bi gizon, beren zakur eta guzti».

Hura izan zen han egin nuen erru nagusia.

«Deskontzientikoki, bi gizonak jotera ausartu nintzen, eta nire oinak ahal nuen indar guziz mugitzera. Euren txakurrek berehala harrapatu ninduten. Ohartu baino lehen, gela txiki baten aurkitu nintzen, argi izpi txikienik gabe».

Galdurik nengoela uste nuen.

«Espetxeratu ninduten lehen eguneko jarrera berdinez, lehen egunak igaro nituen. Baina nire burua pentsatzen hasi zen. Berriz ere, jendearen bihotzetan argitasun izpi hori heltzeko ideia egin zitzaidan, txinparta bihurri hori».

Nire saiakuntzak oso gogorrak izan ziren.

«Lortua nuenean, berriro ere, gartzelaz aldatu ninduten».

Badirudi nahita egiten dutela. Norbait, jendea kontsolatzen eta pozten hasten bada, bidalia izaten da.

Espetxez aldatu baino lehen, zertxobait esan nien nire adiskideei. Bi hitzetan, «Joateko, denen artean, sortua geneukan su ttipi hura elikatzen, handia izan arte; beroa eta argia eman zezan». Beraiek baietz esan zidaten, hitza beteko zutela zin egin.

Horrelako jende motarekin ez da ezer egiteko arazorik izaten. denak horrelakoak balira...!

«Hirugarren espetxe honetan ez nuen inolako oztoporik jasane. Nire istorioak kontatzen nizkien; gure herriak merezi zuela, askatasuna eskuratzearen, guk, geurea galtzea. Bizimodu hartara ohitu nintzen orduko, bost egun barru kaleratuko nindutela aipatu zidaten».

Ez nekien zer egin; farre edo negar, haserretu edo poztu... Baina zera nekien: bizitzak, gartzelan, inon baino zentzu gehiago duela.

«Egun haiek, nire bizitzan igaro nituen luzeenak iruditu zitzaidan. Baina ez nituen bakardadez igaro, ixilik, pentsakor;

ez horixe; Ahal nuen elkartuen egon nintzaien nire lagunei, askatasuna galtzeak ekar ditzakeen ondorioak azalduz».

Beno, gaur, egun zoragarri bat da niretzat, zeren gaurtik aurrera...askatasunaren jabe naiz!



Diana Pérez de Albeniz

«Edozein ostegun»

Dena hankaz gertatu da, edozein modura, aitzakia, gaitzerdiak lurtan. Ometako batak ohe azpitik moturra ateratzen du, ingurune tristen begiratuz. Ordena desordenean. Gelaren entz baiteran mahai borobil bat ohe bat, eta ohe gainean, jantzeraren itxuraz desitxuraturiko gogputz; esku bat hart, bestea hantzen, zangoak bulartzen burusi arxian.

Automatikoki sabairantz zuzentzen dut nire begirada galdua. Zuri horren argitasunak begiak itxi arazten dizkit.

Mugimendu galduta eta leuekin, begiak ireki gabe, komunarentz hidratzen du bere gorputz mehar luzea.

Goizetako ir freskoa da esnatatzen nauena. Arpegian sentitzen dudana olanak burmuineko ideia abstraktuak ixartzen dizkit, nire burua aurrez aurre jartzen zaidan egunak dakartzen zikinkeriak jasotzeko prest utziz.

Bere burua isilduan begiratzen du. Oraindik erdi loturaturik dagoen arpegi larrazala tinko erantzen zala bezurrei, arpegi kerak begiradaren sakotasuna gogortzen dio.

Beste egun bat. Bizitzaren eskaileran maila berri bat. Hala

ez horiaz; Abai nuen elkarrean egon nintzen nire lagunci, az-
kataruna galtzokak ekar dituzkeen ondorioak azpiz.

Bena, gaur, egiari zozkatzen bat da niretzat, zeren gaurik
aurreru... askatasunarekin.



Diana Pérez de Abarca

«Edozein ostegun»

«Edozein ostegun»

Dena hankaz gora. Aulkiaren atzekaldean prakak, edozein modura; alkandora eta jertsea mahai gainean, galtzerdiak lurrean. Oinetako batek ohe azpitik muturra ateratzen du, ingurune tristea begiraturuz. Ordenua desordenean. Gelaren ertz batetan mahai borobil bat liburuz estalia. Beste ertzean ohe bat, eta ohe gainean, jarreraren itxuraz desitxuraturiko gorputza; esku bat han, bestea hemen, zangoak bularrean burusi azpian.

Esnagailua oihuka hasten da, eta maindire artetik ilaia hori bat irristatzen da gorantz. Edozein ostegunetako zazpirak.

Automatikoki sabaiarantz zuzentzen dut nire begirada galdua. Zuri horren argitasunak begiak itxi arazten dizkit.

Mugimendu geldo eta leunekin, begiak ireki gabe, komune-rantz bideratzen du bere gorputz mehar luzea.

Goizetako ur freskoa da esnaratzen nauena. Aurpegian sentitzen dudana olatuak burmuineko ideia abstraktuak uxatzen dizkit, nire burua aurrez aurre jartzen zaidan egunak dakartzan zinkineriak jasotzeko prest utziz.

Bere burua ispiluan begiratzen du. Oraindik erdi lotaturik dagoen aurpegi larruazala tinko eransten zaie hezurrei; arpegi-kerak begiradaren sakontasuna gogortzen dio.

Beste egun bat. Bizitzaren eskaileran maila berri bat. Hain

neketsua egiten zait! Noiz jarri behar digute igogailua aldats aspergarri hau igotzen lagun gaitzan? Egun guztiak dira berdinak. Monotoniaren katea apurtzeko arriskuan ez jausteko, aspergarria egiten zaigun ohiturazko eguneroko zeremonia orain eta berriro, atzo, gaur, bihar eta beti dago ideia horiek leihoratzen uzten ez digun zerbait. Zer ote da? Hasera batetan beste denari leporatzen nion errua, beste denei, baina, konturatzen al zara? Gu geu gara errudun. Ezagutzen ez dugun, edo beharbada eza-gutu nahi ez dugun zerbait daukagu hor barruan, gure izakera, gure egia kanporatzea galerazten diguna.

Eguneroko buruauste nahaspila bera. Buruan kolpetxo bat eta piezak beren tokira bueltatzen dira; bah, akats tekniko bat besterik ez, batzutan pentsatzea bururatzen zait. Orain, eguneroko bide zentzugabeari berriz ekiteko prest.

Antsiak esne katiluan itotzen ditu. Gehiagorik hartu gabe, janztera abiatzen da, ondoren, aurretik zeinek daki nork ezarritako bizitzaren trenera igotzeko. Tren hori hartzen ez baduzu, akabo, zeureak egin du. Zure inguruan daudenen neuronentzat ulertezin denak ez du mundu honetan tokirik. Ahantz itzazu zure atsekabeak, zure zalantzak, zure arazoak; hemen ez dute lekurik. Norbaitek galdetu al dit honekin ados nagoen?

Liburuak besapean hartuta, gaur oraindino irrifarre bat bera ere irudikatu ez duen aurpegia ilaian ezkutaturik, poliki poliki jaisten ditu eskailerak.

Jende ibaiak hara eta hona. Begirada hutsak hutsean finkaturik. Aurretik norbaitek ezarritako helburu bat bide duten errobotak. Beren buruetako piezak automatikoki higitzen dira eten-gabeko mugimendua sortuz, Ez gelditu, segi, ez gelditu, EZ PENTSATU!! Errobot hauek gidatzen dituztenek ere ez dute pentsatzerik; beren agintze, zuzentze lanaren automatikotasunak gidatzen ditu. Etengabeko mugimenduan ari den gurgil batetan ospatzen ari den lasterketako partaideak gara. Nik lehena-go nik azkarrago nik hobeago...Gure antsiak hondo gabeko

amets hutsean itotzen ditugu. Ez dugu nahi geure begiek erreallitatea ikus dezaten, zentzugabekeria aire dentsua usai dezaten, gure abiaduranako menpekotasuna nabari dezaten, eta ezin dugu askatasun maitatuaren utopia horren esentzia, bide luze baten hasiera bultzatuko zukeena, gure barnean dagoela ikusi.

Edozein hiri beldurgarri horietako kale luze, zabal bat barrena doa, espaloian zehar. Begirada lurrean, ileak aurpegian; eskuak poltsikoetan, beroki luzean ezkutaturik. Gorantz begiratzen duen bakoitzean milaka begirada hipokrita sartzen zaizkio begietan enbateko harea legez, eta burua zeharkatzen diote.

Bidean gurutzatzen zaizkion putzuak zapaltzen jostatzen du. Ur beltza oinetakoen zirrikitoetan zehar sartzen zaio. Ez du atsegin handirik sentitzen; ez du on gehiegirik egiten ur erdi izoztuak, zerotik gora ez dagoen tenperaturak eskuak poltsikoetatik ateratzen uzten ez dizunean.

Txikitandik, putzu bat zapaltzen zuen bakoitzean, belarrondoko bat jasotzen nuen ezkerreko masailean. Liluragarria zen ur txipristinak saltoka ikustea txipli-txapla. Ilusioak nire ozeano partikularrean dantzatzen nituen. Baina, ez. Ezin al zara pertsona normalak bezala portatu!! Eh? Inozoa! Daunba! Tori belarrondokoa.

Orain ez dauka galeraziko dion amarik. Laster dira hiru urte bakean utzi zuela, baina oraindik bere kontzientzia martiritzatzen jarraitzen du. Berak irakatsitako, eta maiz ikastera behar-tutako arauak apurtzean min ematen dion kontzientzia, instintu naturalak kanporatzean buruko garunak urratzen dizkion kontzientzia. Orain, kalean gurutzatzen zaizkion begiradek, berezko ideiarik gordetzen ez duten betebeharrak moralez kutsatutako begiradak.

Bere bidearen bukaerara heltzen da. Unibertsitatea, gerorako langabetuen inkubategia.

Korridoreak bete betean. Begirada, pausoak, algarak, oihiak, aurpegiak, liburuak... Epa! Zer moduz? Etzi larunbata, eh? Ba-

daukat gogo, zuk ez? Eta zer daukazute pentsatuta? Bai, guk betikoa.

Hori da, betikoa, betikoa, egunerokoa, ezer ez da aldatzen, markatutako bidea jarraitzen mugatzen dugu geure burua. Zergaitik? Zergatik konformatzen gara eskeintzen diguten gutxia-rekin? Erantzuna uste baino konplexuagoa da.

Nola borrokatu behar dugu kanpoko kateak apurtzeko, barnekoekin jarraitzen badugu? Eta, nola puskatuko ditugu barnekoak, kanpokoak oraindik osorik badaude? Ezin dugu gure ingurua ulertu geure burua ulertzen ez dugulako, eta guztiz zaila da geure burua ulertzea inguratzen gaituena konprenitzen ez badugu.

Eskuz eta buruz beteriko gela itsusia. Hormetako margo hitsa zatika labaintzen da lurreraino. Hatzamar luzeen artean boli-grafoa duela, irakaslearen ahotik ihes egiten duten zenbait hitz idazten ditu, arreta gehiegirik gabe.

Gaitzena, jendea ez dela bere burua ezagutzeaz axolatzen, jendeak ez duela bere izate mugatuaren berririk jakin nahi da. Jendeak nahiago du beste guztiek egiten dutena egin, beste denek pentsatzen dutena pentsatu. Nahikoa dugu eguneroko arazoekin gauzei buruan buelta gehiago emateko! Ez, ez; horrela ez gara inolaz inora helduko.

Bere begi urdinak gelako sabaitik zintzilik daude. Bapatean, aiba! erroilu amaigabe honen haria galdu du! Bere boligrafo simetrikoari begirada motz bat eskeini eta jeupa! berriz lotzen zaio geldo ezinean dabilen bizitzaren gurpilari.

Unibertsitateko jantokia. Janariz zipristindutako hitz itxuragabeak ahoz aho marmarrean. Alboan eseri zaion lodikoteak gai batetik bestera salto egiten du inkoherentzia osoz. Eta, nik esaten dudana, politikak ez duela ezertarako balio, baina, nola konponduko ditugu geure arazoak politikaren bidez ez bada? Nire ondoan jartzen denak dioena, berak ulertzen duela denok berdina garena, amets ederra litzatekeela inolako aurreritziarik ga-

be denok denekin askatasun askean bizi ahal izatea, oso zaila dela berriz, eta bera desberdina sentitzen dela, esaten diona, ez hobe edo txarragoa, bakarrik ezberdina. Eta baita esan zidan, zera, etzi kanpora dihoala, kriston neska ezagutu duela eta...

Arrazoia du; txarrean hori da, arrazoia duela. Nortasunik gabekoak, nortasunik ez dutelako, eta nortasundunek, nortasun horrek gehiegi lotzen dituelako, azken finean, denak berdin jarraitzen du. Denak nork lehen pausoa eman zai.

Bere gorputz luzeak ohearen gainazala estaltzen du, bere goetak gelaren hutsunea betetzen, bere begiek sabaiaren zuria urdintzen. Beste egun bat pasatu da. Zerbait ikasi, ezer ez lortu; esandakoa, beste egun bat, eguneroko eguna.

Beti berdin. Guk martxan jarri dugun gurpilera daukagu burua lotuta kateen bidez. Pentsatzeak ekar ditzakeen arazoei aurre ez egiteagatik, ez dugu pentsatzen. Bihar ere, egunero bezala, eguzkia Ekialdetik gora jalgiko da. Ez al da inoiz eguzkia Mendebaldetik irtengo? Egundina, berdea, gorria izango da, lainoak laztanduko ditugu oinutsik; bide guztiak maldan behera, ortzadarra bira emanda. Orduan dena eta ezer ez ulertuko dut. Behar-bada txarrena gauzen zergatia ulertzea da. Zeru berdean izarrak dir-dir. Zuhaitzen hostro arteko tximista batek gure buru barneko kateak apurtuko ditu. Eta GU izango gara, ASKE izango gara. Eta ate guztiak zabalduko dira guretzat. Infernuko ate gorri kis-kaliak pasioaren berotasunaz. Zeruko ate lainotsuak, pake iheskorra eskeiniz. Eta ate batetatik joango gara besteei uko egin gabe. GUK aukeratutako atea. Eta ate atzeko eta atzeko ateko bide amaigabeen galduko gara askatasunaren abentura dastatuz aluzinagarri hodei kondentsatuan barrena. Eta argi denak piztuko dira eta iluntasunak aginduko du. Eta galdurik egongo gara gure bidea aurkiturik.

Eta zu eta ni INOIZ aurkituko EZ dugun ate horren bila abiatuko gara.

Pentsakizunak burukoan behera irristatzen ditu. Eskuak luzatu eta leporaino igotzen du burusia. Leihoko pertsianaren zirikitoetatik izarrak ikusten dira, jendearen axolagabekeriak, etsipenak, beldurrak, zeri beldurrak? kateaturiko izarrak.

Bihar beste egun bat izango da, beste egun bat, aurrekoen berdina. Etengailuari eman, eta burmuineko ideiak itzaltzen ditu.



HIRUGARREN «ETXEPE SARIA»: 1.988 urtean

Marta Sanz
(A. maila 1. Saria)

Pagoaren istorioa

Pentakizunak burukoan behere iristatzen ditu. Eskuak lurr
zua eta leporaino igotzen du burua. Leihoko persianaren zi-
rrikitoezatik izarrak ikusien dira, jendakaren axolagabekeriak,
etsipenak, beidurrak, zeri beidurrak? kateaturiko izarrak.

Bihar beste egun bat izango da, beste egun bat, aurrekoen
berdina. Etengailuari eman, eta burmuineko ideiak itzaltzen di-
ni.

HIRUGARREN «ETXEPÉ SARIA»: 1.988 urtean



Marta Sanz
(A. maila 1. Saria)

Pagoaren istorioa

Berdin egia zuen egun hartan; basora joan zen eta pagoaren
magalean exeri zen, bere inguruak ikusatzera hasi zen. Joanak
ziren udako beroak, zerua alaiuzen zuten slaiak eta lore guzietan
pausatzen ziren tximeleta koloretuak. Basoa marroikaz jan-
ten hasia zegoen eta hñizeak pixkanaka bilusik uzten zituen
zuhaitzen adarrak. Bapatean, Estitzek zerurantz begiratu zuen
harmurik. Egabera naldie zeri gris eta motela zeharkatzen ari zen
eta pixkanaka urrutian ezkiatzen.



Marta Sainza
(A. Walle I. Sainza)

Pagoaren istorioa

Pagoaren istorioa

Bazen behin Estitxu izeneko neskatila lotsati bat. Bere ilea eta begiak beltz-beltzak ziren eta beraietan begirada bakarti bat ikus zitekeen. Ixila zen oso eta ikastolan ere ia ez zuen beste haurrekin hitzegiten. Baina Estitxuk bazituen lagunak, eta munduan izan daitezkeen lagunik jatorrenak gainera. Bere lagunak handiak eta txikiak ziren, batzu beti geldi zeuden eta beste batzu geldi ezinekoak ziren. Ez, ez ziren haurrak, ez eta gizakiak ere. Bere lagunak txoriak, landareak, zuhaitzak, insektu txiki, ugaztunak eta erreka bat ziren. Bai, bai, menditik igarotzen zen erreka bihurri bat. Egunero, arratsaldeko klasea bukatu ondoren basora joaten zen bere lagunekin egotera. Amak prestaturiko askari goxoa jaten zuen bitartean erreka jaunak istorio liluragarriak kondatzen zizkion.

Berdin egin zuen egun hartan; basora joan zen eta pagoaren magalean exeri zen, bere inguruak ikustatzen hasi zen. Joanak ziren udako beroak, zerua alaitzen zuten alaiak eta lore guztietan pausatzen ziren tximeleta koloretsuak. Basoa marroixkaz janzten hasia zegoen eta haizeak pixkanaka bilusik uzten zituen zuhaitzen adarrak. Bapatean, Estitxuk zerurantz begiratu zuen harriturik. Egabera talde zeru gris eta motela zeharkatzen ari zen eta pixkanaka urrutian ezkututzen.

—Nora doaz?-galdetu zuen Estitxuk zerurantz begiratzeari utzi gabe.

—Hegoaldera,-erantzun zuen errekaetoak- hegoaldera Estitxu.

—Zer da hegoaldea?-galdetu zuen berriro, eta errekaetoarengana zuzendu zuen begirada oraingo honetan.

—Adibidez...Afrika. Afrika hegoaldean dago. Hegazti asko Europan uda igaro ondoren negua Afrika aldean igarotzen dute, Europa guztia zeharkatuz.

—Eta txoriren bat bidean galtzen bada?

—Horrek gauza bat gogorazten dit -esan zuen ordurarte ixilik egon zen pago zabalak.

—Ba, konta konta! ipuinen bat al da?

—Beno, bai!

—Ze ongi! —esan zuen Estitxuk, bi ikatz pusketak ongi irekiz.

—Bazen behin hegoaldera zihoan uso talde bat. Irati basoa zeharkatzen ari zirela uso bat atzean gelditu eta galdu egin zen. Oraindik gaztea zen eta ahuldurik zegoen, ezin zuen aurrera jarraitu. Horrela ba, Irati basoan gelditzea erabaki zuen. Baze-kien oso zaila izango zitzaiola bizirik irautea baina ez zuen atzera egin behar eta negua igarotzeko aterpe eroso baten bila hasi zen. Baso hartan pago ugari zeudela ohartu zen eta pago eder eta zabalenean jarri zuen bere bizilekua. Enborraren erdian, eta oso ondo babesturik, kabi bat egin zuen.

Pagoa eta usoa, Txuri izenekoa hau, oso lagun egin ziren eta pagoak maitasun handiz babesten zuen. Txurik ibilaldi txikiak egiten zituen pagadietan zehar. Egun batez etxe txiki bat ikusi zuen basoan. Tximinitik kea ateratzen zen eta gehiago hurbildu zen hobeto ikusteko. Barruan jendea zegoen, bi haur eta gurasoak. Leihotik adi-adi begiratzen zuen ez bait zituen hango gauza gehienak ezagutzen. Baina, bapatean ate hotsa entzun eta

azkarrasko, izututa, inguruko pago batetara alde egin zuen izkutatzeko asmoz. Haurren aita zen etxetik irten berria. Eskupeta bat zuen bizkarrean eta Txurik ihes egin zuen. Pagoarengana iritsitakoan bildurtuta bere kabian izkutatu zen, gizona bera hiltzera zihoala uste bait zuen.

—Zer duzu mutil!—esan zion pagoak— Zer gertatzen zaizu? Monstruoren bat ikusi al duzu? Ja,ja,ja,...

—Ez egin parre! Ehiztari bat dabil!! —esan zuen oso urduri Txurik.

—Lasai, lasai...eta kontaiezaidazu dena hasieratik.

—Ni pasiatzen nembilen, beti bezala, basoan etxe bat ikusi dudanean arte. Hurbildu egin naiz eta leihotik begiratzen hasi naiz. Etxe barruan neska eta mutil batzu zeuden beren gurasoekin. Dena oso arraroa zen eta ia ezina aita eskupeta batekin atera denean. Korrika atera naiz zihur bait nengoen ni hiltzera zetorrela.-bukatu zuen Txuri gaixoak.

—Uste dut oker zaudela Txuri. Ikusi duzun etxe hori basozainarena zen eta ez da zu akabatzen atera, baizik eta, zu eta gu guztiok babestera. Ulertu al duzu?

—Zihur al zaude? —esan zuen Txurik.-Ez dakit ba...

Gau hartan amets-gaizto ugari eduki zituen Txurik. Oraindik ez baizitzaion ikara guztiz joan. Baina hurrengo goizean kuriositateak eraginda berriz inguratu zen etxe hartara. Neskatxa kanpoan zegoen jolasean. Bederatzi bat urte zituen. Ile horia zuen eta begi berdeak. Aurpegi zuri-zuria zuen eta sudur aldea pekatxo batzuz apaindua. Egia esanda gaixo itxura pixka bat zuen. Neskatxak usoa ikusi zuen eta bere nebari deitu zion.

—Jon!Jon, etorri hona!

—Zer, Miren? —galdetu zuen Jonek etxearen atzekaldetik azalduz.

—Begira hor, pago hortako adarrean. —Esan zuen Mirenek, Txuri zegoen zuhaitza seinalatuz.-Uso bat da.

—Zeinen arraroa. Usoak hegoaldera joanak dira. Hartuko al dugu?

—Janari pixka bat ekarriko dut-esan zuen Mirenek eta etxean sartu zen.

Txurik konfidantza hartu eta hurrek jarritako aziak jaten hasi zen. Umeak oso atseginak ziren eta oso ongi tratatzen zuten. Pagoari dena kondatu zion eta pagoa ere asko poztu zen.

Ia egunero joaten zen hurrekin egotera eta gero eta sarriago. Hotz handiak hasi ziren eta usoa gaixotu egin zen. Ezin zuzen pagoaren enborrean jarraitu hotz handiegia egiten zuen, eta hurrekin gelditu zen. Egurrezko etxetxo bat egin zioten eta sukaldean egiten zuen lo, behesuaren epeltasunean. Oso ondo pasatu zuen negua, hurrek oso ongi zaintzen zuten, baina asko gogoratzen zen pagoaz. Baina pixkanaka udaberria azaldu zen. Hotza gutxitzen zegoen eta mendi gailurretako elurra urtzen. Larre berdeetan lehenengo loreak azaldu ziren. Orduan uso txuria basozainaren etxetik atera eta mendirantz joan zen bere laguna ikusteko asmoz. Han zegoen bere pago zabala, inoiz baino ederrago, kimu gazte eta berde-berdeak bait zituen adarretan. Asko poztu ziren berriro elkar topatzean.

Egun batean, zeruan, hegoaldetik uso talde bat azaldu zen. Txurik ezin zuen ikusten zuena sinetsi.

Bere senideak eta lagunak ziren. Han zeuden bere anai-arrebak eta gurasoak ere. Europara zetozen uda pasatzeko eta beti bezala udazkenean berriro itzultzeko.

Uda hura zorionsua izan zen benetan. Uso txikiak ere eduki zituen. Baina hori ere bukatu egin behar zen eta udazkena iritsi. Asko kostatu zitzaion Miren, Jon eta pagoa agurtzea baina egin behar izan zuen. Hala ere urtero bisitatzen zituen berarekin hain ongi portatu ziren lagunak. Eta urtero Miren eta Jonek hegoaldera zihoazen hegazti taldeak ikusten zituztenean Txuriz gogoratzen ziren. Eta ipuina bukatu da.

—Zer sorte ona izan zuen Txurik hain lagun zoragarriak aurkitzean -esan zuen Estitxuk.

—Atsegin al zaizue ipuina?-galdetu zuen pagoak.

—Bai noski. —Erantzun zion errekaetoak—. Baina nik ere ipuin bat kontatu nahi nuen eta berandutu egin zaigu.

—Egia! —esan zuen Estitxuk ordularia begiratu. —Oso berandu da eta iluntzen hasia du, joan egin behar dut. Agur eta prestatu beste ipuin bat biharko!

—Agur! —esan zuten errekek eta pagoak batera eta arrain batek salto egin zuen erreka barrenetik.

Leire Lejaristi

(A. maila 2. saria)

Zoritxarreko zuhaitza

le txurik...
guduzean...
—

—Bai noski...
—Bain...
—

gogoratu...
Baina pixkanaka...
Horza gutxitzen...
Larre berdeetan...
Bere laguna...
Hala ere urtero...
Ets ipuina...

Egun batean...
Txurik ezin...

Bere senideak...
Europara zetozen...

Uda hura...
Baina hori...
Asko kostatu...
Hala ere urtero...
Ets ipuina...




Zoritxarreko zuhaitza

Gaua eduki...
harratik begiratu...
erazten zirela...
batek, ohe gainean...
aitak eman zuten...

Leire Leiaristi
(A.maila 2. saria)

Zoritxarreko zuhaitza

Nire aitak, orain dela bi urte...
bea areagotzeko...
bert gorputz...
zena. Egun triste...
lizun bezain...
eta bere bizitza...
bota zuen. Haseeran...
berri, beharrez...
ka. Bi urte beltz...



Leire Ibarra
(A. maila 2. saria)

Zoritarreko zuhaitza

Gaua arinki iheska zihoan, begiak ireki eta zirrikitu zabal hartatik begiratuz, argi izpiek, betileak, atsedetik gabe mugitu erazten zizkidatenean. Bapatean, zarata bortitz eta nahigabetu batek, ohe gainean jauzi bat egitera behartu ninduen. Sarrerako atea eman zuen brastatekoaren ondoren, etxeko orma guztiek, kilika astun bat egin zuten; lurrikara zirudien ate-hots hura entzuten nuen bakoitzean, bizkar-hezurrean, zirrara bat sentitzen banuen ere, zarata hura ez zitzaidan ezezaguna egiten, nire aita zetorren seinalea zen. Min ematen badit aitortzeak ere, esan beharra daukat, nire aita askotan horditzen dela eta honelakoetan gaiztakeria eta besteei kalte egin beharra besterik ez zaiola otutzen.

Nire aitak, orain dela bi urte lana galdu zuen eta bere nahigabea areagotzeko, nire amak senda ezinezko gaixotasun bat zuen bere gorputz barnean, egunak pasatzen ziren einean indartzen zena. Egun triste haietan, aitak, bere gorputz eta arima, bizibide lizun bezain negargarri batera jaurti zituen; edanari eman zion eta bere bizitza inoiz irten ezinezko putzu lohitsu zikin batetara bota zuen. Haseeran, nahigabeak uxatzeko edaten zuen, gero berriz, beharraren beharrez, ezin zuen edalontzia eskuetatik aska. Bi urte beltz pasatu direnean, nire ama, hilberria da, gaixoak,

gorputza gutxinaka-gutxinaka zurrupatzen ziolarik eta nire aitak egunean baino egunean, bizibide zikinagoa du, bere gorputza leporaino sartuta dagoeneko lokatz horren erruz.

Iraila, kandela bat bezala itzali da, Urriaren lehen egun honek, ekarri duen iparraize hotz eta zorrotzaren ondorioz. Enara guztiak dagoeneko, aldegin dute, leku bero eta atseginago baten bila, ezbeharren bat datorrenean, jendeak ihes egiten duenean bezala, etengabe hegaka. Enaren tokia betez, kaioak ageri dira, teilatuen gainetan zehar ibiltzera bultzatzen dituelarik haize hotzak; tximinietatik irtetzen den aire beroaren inguruan bueltaka, saminki aiezka.

Dagoeneko, goizeko hamarrak dira. Osaba Pello sartu da etxean. Berak ez du ez emazterik, ez eta seme-alabarik ere, horregaitik, askotan esan ohi digu, guk bi aita eduki ditzakegula.

Aita, gorputzez, mehea, lerdena eta zuzena da. Osaba, alde-rantziz, baxua eta lodikotea. Honetan eta simil erraz bat ipintzeko, Don Kixote eta Santxo Panza ematen dute. Aurpegiari gagozkiolarik, aitak bere begien ahulezia betaurrekoak erabiliz gaintitu behar badu ere, osabaren begi txiki, bizi eta saltariet ez dute inolako kristalen laguntza beharrik. Bestalde, aitaren aurpegiko kolorea, zurbila eta sikua da, Pellorena, gorriska margo eta masail-handikoa den bitartean. Azkenik, aitortu beharra daukat gizon biak, berdin jantzirik aurkeztuko balitzaizkigu ere, erraz igarriko genukeela nor den bere gorputza edanaren zerbitzutan duena eta nor ez. Eta jantzi gabe baleude, hau da larru gorritan, berdin gertatuko litzaigukeela.

Dagoeneko, pasatu da udazkeneko hosto erorkorren garai hits hori. Iritsi dira Gabonak eta osaba Pellok azkenengo aldiz ikusi genuenean agindu zigun bezalaxe, bidai zoragarri bat egitera goaz. Itxura denez, historiaurreko herri bat bilatu dute eta osabak, ikustera joateko bidai bat proposatu digu. Lehenengoz, gaur, Maider eta biok, trenez goaz osabaren etxera eta bihar, hirurok, abiatuko gara oporraldi zoriontsu bat igarotzera.

Bostak dira eta jadanik eserita gaude trenaren eserleku gogor bezain kilikolotsu baten. Nire aurreko bidaiariari begira nago. Neskaxa honek, urre koloreko ile leun eta kizkurra dauka, mol-tsozka batekin kopeta bat egina duelarik. Bere begiak, udan, itsasoak, bare-bare dagoenean duen kolorea ekar erazten dit gogora behin eta berriz. Setter tankerako txakur apain eta harro horietako bat dauka, hori bai, nahiko aspergarria, ez bait da zaunkaka isiltzen. Burua, trenaren leihatilatik ateratzen duen bakoitzean haizeak eraginda, zigarro errautsak sartzen zaizkio begietara, eta zoro baten tankeran hasten da zaunkaka.

Trena iritsi da geltokira. Ilunabarra da.

Euria goian-behean, haizearen txistua...Kale erdian, errenkadan zintzilika dauden argiak berriz, iluntze honetan izarrik ageri ez dela eta, eurak izarrik balira bezala, harro-harro eginda ageri dira.

Dagoeneko ateri dago eta eguzkia mendien atzean ageri da, txoriek beraien kantu finez goiz freskua alaitzen dutelarik. Oraindik ez da eguna guztiz zabaldu, kale bazterreko argitxo presentzia oso nabarmena bait da. Hirurok jauzika eta brinkoka atzera utzi dugu osabaren etxe lerdan bezain zaharra; pizten ari den egunaren argitan mendebaldeko sherifen etxe handi horietako bat dirudielarik, nahiz eta zakurren zaunka hotsak itxura hori hondatu.

Autoa prest dago eta dagoeneko abiatu gara paisaia triste bakarti hauetan barrena. Inguruan, ez da ikusten, ez etxerik, ez zuhaitzik, ez jenderik, ez dago mugimendurik; zerua eta lurra. Jainkoak ahaztuta dituela diruditen lur hauek oso txarrak dira nekazaritzarako osabak dioenez. Odol gabeko pertsona bat bezalakoak dira, fruiturik emateko balio ez dutenak. Bide nagusitik banatu gara bidetxindor batetik gidatuz autoa. Lehen lurra zuriska bazen, orain Errioxako ardoaren kolore gorriska hartu du, autoaren abiadurak, jaso egiten duelarik mamu txoro eta txatxu batzuen gorputzak margotuz airean. Txintik ere esan gabe igaro

ditugu pare bat km., gero, osabak, txori krudel batzuen istorioa kontatu digu. Txori beltz gangar batzuk dira, aurpegian, Fidel Castro berak baino ile gehiago dituztenak. Muturra berriz, Barrionuevok hitzaldi bat egin eta gero, jartzen duena baino itsusiagoa daukate eta gorputzez berriz, Ronald Regan bera bezalako handi eta kankailuak dira. Odol usaina somatzen dutenean, beraien janariaren gainean jartzen dira hatzazal zikin eta zorrotzen laguntzaz mugimendua galerazten dutelarik.

Tamalez, paisaia, aldatu egin da eta zuhaitz ikaragarri batzuk agertu dira; guk beraien jopuak genirudien haizearen ondorioz, beraien mugimendu bortitzak oso haserre zeudela esaten zutelarik, autoaren alde bat eta beste bat gogorki astinduz.

Mamu ikaragarri hauen hosto eta adarrak, gure buruetan katiatuz, alaiki dantzan ari dira xarma berezi bat agertuz. Txori gangar hauek ere utzi digute beraien gorputzak ikusten egun polit bat hondatzen duten aztitxoak diruditelarik. Beldurrez, paisaia ilun eta arraro honetan barrena goazela, ez gara oroitzen autoan goazenik ere, liluratuegi bait gaude gure inguruari begira.

Hogei minutu inguru pasatu ondoren, hiruron burutik ideia bat pasatu da; galdu egin garela alegia. Osaba, beldurtu egin da eta gero eta bizkorrago gidatzen du, zuhaitzei tamalez ihes eginaz; banderatxoak bota gabe ozta-ozta igarotzen den eskialari bat izango balitz bezala. Zuhaitz batzuren ondotik, justuan igaroz, azkenean, bide erdian, taldetik galdutako ume negarti bat bezala, bere hostoak mugituz, zuhaitz handi bat agertu da, zeinaren kontra kolpe handi bat hartu ondoren, hilda bezala geratu garen.

Zorigaiztoko amets honetatik esnatzean, osaba, bolantearen gainean etzanda ikusi dut, buru alde guztia, odolez bustita dutilarik. Maiderrri begiratu diot eta honek ere, musu alde, odolez zikinduta dauka. Berehala zapuztu bat eman diot eta laister esnatu da bere lo astunetik. Osabak berriz, ez du ikararik ere egin, gure deihadarrak, bere amets, ixuraz, zorionsua apurtzeko balio ez balute bezala. Maiderrri eta biok, autotik irten eta osabaren on-

dora inguratu gara. Txorien zarata eta hostoen mugimenduen laguntzaz, beldurrez dardarka, osabari atzera bultzatu diogu; garrasi samin bat irtetzen utziz, bere aurpegiko kolorea, zurbila dela ikustean eta bere begi saltariak beste toki urrunagoko baten pausatuta daudela antzemanaz. Biok, elkarri begiratu diogu, ezezko erantzuna bilatu nahian edo, baina bai, osaba hilda dago; hilda betirako... Lurrean jarri eta negarrez hasi gara gure zorigaitza gogoratuz.

Heriotzaren presentzia hotz eta nahigabetu honi ezetz esaten saiatzen gara Maiderrri eta biok, baina, odol lehor usainak eta txorien abesti maltzur eta beltzak, gure egoera gogora erazten digute behin eta berriz etengabe, oraindik ere, gure egoeraz ondo jabetu gabe gaudelarik. Sineztezina da; amets gaizto honetatik esnatzeko ahaleginak egiten ditugun arren, gaua gure gainean dago eta biok, lur jota gaude, gertatu den gauza inozo baina larri honegatik. Bapatean, gauza txar bat etorri zait burura, txorien istorioa alegia, zer egin? gure osaba arriskutan al dago? Txorien zerbitzutan buka al dezake? ez, ez eta ez, hori baino lehenago bion artean lurperatuko dugu. Baita hala egin ere; lur gorriska, erraz jaso dugu zuk nahiko sakon bat eginaz osaba bertan ehortzeko, eguzkiaren azken izpiek, maleziati, bizkarra berotzen digutelarik.

Iluntze epel bat da eta trumoi lainoak gero eta zabalagoak dira; zeru gehiena besarkatuz. Txoriek ere ez dute bakerik ematen, lainoak ere zorabiatzeko bezalako birak ematen dituztelarik.

Paisaia iheskor eta bizkorra ageri da benetan, gu lur jota gaude eta azkar mugitu eta ileei heldu besterik ez dugu egiten negar malkotan. Zuhaitzek ere, ume txiki bat kulunkatzen egongo balira bezala beraien hosto eta adarrak etengabe mugitzen dituzte. Pentsamendu hauetan gaudela, zarata gogor bat entzun dugu; haseeran, ez diogu kasurik egin, baina gero... bai... egia da... auto bat de honuntza datorrena, tximista batek atzetik hartuta baino bizkorrago.

Gelditzeko seina bizkorrak egin dizkiegu, baina haseeran ez digute kasurik egin, gero berriz, zuhaitz mugikorren artean bira oker batzuk egin ondoren gelditu egin dira. Ezer galdetzeko denborarik eman gabe, atea zabaldu eta bizkor sartzeko esan digute. Arrapataka, barruan eseri eta etorri diren bezala aldegin dugu.

Gidaiaria mutil gazte bat da, alproja eta zikinik badago, alproja eta zikina, antinuklearraren eranskilu bat daramala. Beste tipoa, itxuraz hegoaldekoa da, eguzkiaren eraginez, larrua belzuta duena, ilaia eta bibotea ere beltz-beltzak, begirada gogor eta ausarta eta kapela, Chicago-ko ganster horien antzekoa.

Autora sartu bezain laister, sirena hots bortitz bat entzun dugu eta polizia gure gainean zetorrela konturatu gara. Gure bi lagunegi begiratu diegu; begirada bizkor eta izutu batzuk bota dituzte eta orduan eta bizkorra goaz. Zer gertatzen ote da?

Gu, abiada bizkorrean ibili arren, laister harrapatu gaituzte beraien sirena-hots etengabe eta monotonoak azkenerako min egiten digularik. Gure bi bidai lagunak, lotu egin dituzte eta tiraka eta oihuka, gugandik aldendu dituzte. Erahilketa batetan nahastuta daudela dirudi eta gu jaki bezala hartu gaituzte poliziaren hatzamarretatik ihes egiteko.

Txarretik, txarragora; lehen biok, ahaztuta zegoela zirudien leku baten geunden, orain berriz kale zaharkitu batetako espetxe triste eta negargarri baten gaude.

Toki hau, oso hotza da, telefono txirrina, polizien oihuak, presoek negarrak, kateek elkar jotzean ateratzen duten hotsa... Inoiz ez naiz toki beldurgarriago baten egon.

Nor garen eta gure egoerari buruz, txosten bat egiten duten bitartean, giltzapean sartu gaituzte. Gela zikin eta ilun batera alegia; alde baten, ohe zaharkitu bat, izare zikin batez estalita dagoelarik. Beste aldean, lurretik lau bat metrotara, leiho txiki

bat dago, bertatik, argi izpi maltzur batzuk sartzen direlarik, lotsati egongo balira bezala.

Sapaia oso goian dago eta gela erdi erdian bonbilatxo beldurti bat, zeinaren argitan ezin daitekeen hizki bat ere irakurri. Txoko baten, komun izena ere merezi ez duen tokitxo bat dago, hori bai beste guztiarekin kontrastasan bizi bat eginez; garbia dago. Ohearen ondoan, mahai borobil bat dago, gainean karta batzuk daudelarik; karta hauek duten itxuragaitik, gure amona txikia zenekoak izango dira behintzat, olio beteak eta zeharo ilunduak ibiliaren ibiliz.

Beldurra nazkaren eraginez, handitzen den bezala, atea zabaldu digute eta maitekiro, polizi beltz handi eta sudur zabal batek, norbait gure zain dagoela esan digu.

Ez dakigu nor topatuko dugun, baina dena delakoa ere, ez da izango gela txatxu eta zikin horretan dagoen usaina baino okerragoa. Pasabide honetatik goazela, ikusi ditugu makina bat gauza aldrebes; mutiko beltz txiki bat, bizkar guztia zaurituta zuela, gizon zuri kankailu baten zartailuaren azpian, negarrez ari zen haginak amorrarioz estutuz. Zuriak berriz, zirudienez, gozatu egiten zuen mutikoari atzekaldea markaz betez. Aurreko hau baino erosoagoa ez den beste gela isolatu baten, neskatxa polit bat ageri da, itxurak berak bakarrik ere, zatartzen duelarik. Ijito baten tankeran dago jantzirik eta polizia beltz gangar baten laguntzaz, gela bati, milaka bira ematen ari da, argi disdiratsu batek, begiak mintzen dizkion bitartean. Gela isolatu horretako zulokogune batetik, bi gizon lodikote eta txapar, alde batetik beira eta bestetik ezpilu ematen duten leihatila horietako batetik begira daude, barruan zoragarritzko ikuskizun bat balego bezala; elkarri bultzaka hobeto ikusi ahal izateko.

Pentsamendu hauetan galduta gabiltzala, ez dugu urrutian aita ikusi ere egin. Gurekin ez bada oso maitagarria izan ere, luzaroan egon gara, elkarri begira, azkenean, besarkada estu bat emanaz. Inoiz baino alaiago eta bizi-poz handiagoarekin ikusi dugu, gure

aitaren beste irudi desberdin bat zirudielarik. Hirurok eskutik helduta, etxerantz abiatu gara, aita ondoan edukitzeak ematen digun poza ezkutatu gabe.

Espetxeko gela hotz hartatik atera gintuztenetik, bi egun igaro direnean, osabaren hileta egin dugu, bihotza saminki estututa dugula, bere gorputza, gure herriko hilerrian ehortzi dugu, horrela gertu edukiko dugularik beti. Gure bihotzeko zati bat, bertirako, osabarekin joan da, baina, galduta genuen aitaren maitasuna, berriz irabazi dugu, aitak lana bilatu eta bere bizitza bideratu du gu ardatz bezala hartuaz.




Nekane Errasti
(A maila 3. saria)

Antartidan ehiztari bat

- Egunon!
- Egunon maila!
- Umm...! Zein egun ederra, ez da hala? —esaten du Karutxok.
- Bai, maitea —esaten du Nekane.
- Egunero bezala, zerbait gertatu da baina hala ere hotz handia egiten du. Antartikako alde hontan oso paitai ederra dago, alde batetik dena zurimuta ikusten da, elur eta izotzaren ondorioz, eta bestetik dena zurimuta ikusten da, zela zuri bat izango balitz bezala.
- Oraindik oso goiz da eta ez da itxas-zakurrik ikusten gure itxaso honetan —esaten du Karutxok oso alai.
- Bai, goiz da, baina hala ere laister agertuko dira guztiak —esaten du (Klari) bere emazteak.
- Amal!
- Baina Klari logelatik atzea denez ez du entzuten.
- Amama! Amama! Non zauden?
- Halako batean entzuten da.
- Orainde nos seme. Itxaroen pixka bat.

atzen besio irudi desberdin bat erakusten. Honek esanik
helduta, etxerare abian garatu eta antartidako ematen
digan pona ezkerrean gabe.

Esperatu gela hotz h...
direna. esabaren hila...
dugala, bere gorputza...
tirako, osabaren jor...
tasuna, berriz irabaz...
dematu du gu ardaz...



Nekane Errasti
(A maila 3. sarria)

Antartidan ehiztari bat

Antartidan ehiztari bat

—Egunon!

—Egunon maitea!

—Umm...! Zein egun ederra, ez da hala? —esaten du Karutxok.

—Bai, maitea —esaten du bere emazteak.

Egunero bezala, zerua urdindurik dago baina hala ere hotz handia egiten du. Antartidako alde hontan oso paisai ederra dago, alde batetik dena zuritua ikusten da, elur eta izotzaren ondorioz eta beste aldetik itsasoa ikusten da, honek ere zati zuriak ditu, (izotz zatiak); baina batzuetan, hotz asko egiten duenean, ez da itsasoa ikusten, dena zurituta ikusten da, zelai zuri bat izango balitz bezala.

—Oraindik oso goizo da eta ez da itxas-zakurrik ikusten gure itsaso hontan— esaten du Karutxok oso alai.

—Bai, goizo da, baina hala ere laister agertuko dira guztiak —esaten du (Klari) bere emazteak.

—Ama!

Baina Klari logelatik aterea denez ez du entzuten.

—Amaaa! Amaaa! Non zaude?

Halako batean entzuten da.

—Oraintxe noa seme. Itxaron pixka bat.

Hau Tusuko da, Karutxo eta Klariren semea. Mutiko honek 4 urte ditu. Beltzarana da, oso mutil guapoa da, ile ugari du. (Honek ez dio gaizki egiten, Antartidan hotz handia egiten bait du.)

—Ama! Ama! Etorri azkar.

—Itxaron oraintxe noa. Baina zer duzu!

—Ama! — Tusuko nigar zotinka dago — Ama!

—Banoa, banoa! Baina zer gertatzen zaizu?

Iritsi da azkenik. Bere semea ohe gainean nigarrez ikustean, poliki-poliki makurtu eta esaten dio maitekiro:

—Egunon Tusuko— besarkatu egiten du— Zer duzu? Ez al zaude ondo?

Mutikoak nigarrez jarraitzen du.

—Ama ongi nago...

—Zer duzu orduan?

—Non daude itxas-zakurrak?

—Lasai oraindik goizo da, agertuko dira.

—Ama prestatu al duzu gosaria? Gose naiz.

—Bai, etorri gosaltzera.

Tusuko goibel samar baina joan da gosaltzera. Gosaltzen duen bitartean ez da inolako aldaketarik somatzen kanpoan. Dena lasai dago eta temperatura gradu batzu igotzen doa.

—Aita, non dago ama?

—Zure ohea egiten dago.

—Ama! Kanpora noa, itxas-zakurrak non dauden ikustera.

—Berokia hartu, e!

—Bai ama.

Tusuko makurtu eta kanpora irteten da. Kanpoan iglua begiratzen hasten da. Lehendabizi oso txikia dela iruditzen zaio.

—Oso bajua da, beti makurka gabilta, dauden leihoetatik hotz asko sartzen da, (ez bait du inolako estalirik) atea animalien larru iletsuz estalia dago. Baina ongi begiratu ez da horren txikia, gu hirurontzat nahikoa da. Baina lau izango bagina...

Tusuko anai txiki batengan ari zen pentsatzen.

—Tusuko agertu al dira gure lagun itxas-zakurrak?- bere aitak.

—Ez aita. Non egongo ote dira!

—Ondo begiratu al duzu?

—Bai baina ez dut ezer ikusi...!— Tusuko oso triste dago eta— Aita! Aita! —Tusukok.

—Zer!

—Ez al da hori Kamala gure lagun itxas-zakurra?

—Ez... ala... bai— esaten du hobeto begiratu.

—Bai aita, bera da. Kamala! Non egon zara, oso arduraturik geunden. Eta bestea? — galdetzen du animalia laztanduz.

—Urrr!Urrr! — besterik ez du esaten, tonua besterik ez du aldatzen.—Urrrr! Urr! Urrrrr! Uurr!

—Hum! — Karutxok Tusukori begira— Kamala ez dago baxterre lasai.

—Bai, hau ez da normala. Zer ote du?— laztantzen duen bitartean.— Lasai, lasai...polit hori.

Kamala lasaitzen hasia da baina hala ere...

—Aita! Hau odola al da?- galdetzen du kezkatu.

—Bai seme! Ebakirenbat egin al duzu?

—Ez. Kamala! -Tusukok.

—Zer duzu? -aitak.

—Begira, Kamala odola galtzen ari da.

—Bai egia da, pixka bat mugitu eta bere azpian zegoen odola gorriturik agertu da.

—Kamala gixarajoa— Tusukok— Nor egin dizu hori?

—Urrr! Urrr!— Kamala zauriturik dago.

Karutxo iglu barrura sartu eta bere emazteari gertatutakoa kontatzen dio. Klarik laban bat hartu eta Makalarengana doa.

Klari Kamalarengana iritsi denean, animalia erdi hilik dago. Tusuko oso arduraturik dago. Bitartean amak sabeletik piztoiak ateratzen hasi da. Eta Karutxo...

—Non egongo ote da nire eskopeta?...Ha! Hemen dago. Azkenik aurkitu dut. Beno, orain nire anaiarengana joango naiz.

Kanpora irten eta bere emaztea eta semea agurtu ondoren bideari ekiten dio.

Hala ba, 2 egun luze ibiltzen ihardun ondoren, bere anaiaren etxera iristen da. Oraindik ez da bere anaia iritsi oso goizo bait da.

—Kaixo Sasa!— hau bere koinata da.— Zer moduz?

—Oso ondo — erantzuten dio.— Zer dela eta zu hemendik?

—Ba, begira, arazoa da... (bla, bla, bla, bla,,)

Sasa adi-adi dago eta bitartean Karutxok dena azaltzen dio. Esplikazioaren erdialdean etenaldi bat sortzen da.

—Sasa! Heldu naiz!-esaten du Takaruk (Karutxoren anaiak).

—Kaixo Takaru! Zer, ezer ehiztatu al duzu?

—Ez gauza handirik, baina...zer egiten duzu zuk hemen?

Ba Kamala bere historia bukatu, bere anaiarekin ados jarri eta hurrengo goizean abiatzen dira.

—Zeintzu direla uste duzu? —galdetzen du Takaruk.

—Nire ustez Argentina aldeko ehiztarirenbat izan da.

—Bai, arrazoi duzu, baina orain arte ez da honelako kasurik gertatu gure lurraldean, nik dakidanez behintzat. Beno, orain, nire etxeruntz joan behar dugu, hori da daramagun norabidea, ez da ala?

—Bai bihar goizerako bertan izango gara.

Azkenik iritsi ziren.

—Klari iritsi gara! Non zaude?— Klari Karutxoren besoetara bota zen— Baina zer gertatu da?

—Kanpoan egon zaren 5 egun hauetan itxas-zakur gehiago agertu dira, eta oso arduraturik nago.

—Baina hau ez da posible!— Karutxok— Ez dakit nola egon daitezkeen horren pertsona bihotz-gabeak.

Karutxo eta Takaruk biderako janari ugari hartu eta badihoaz.

6 bat ordu ibili ondoren itxas ertzerantz heldzen dira, bertan

animalia asko daude, gehienei larrua kendu diote eta hilik daude.

—Guk ezin dezakegu ezer egin hildako hauekin, baina haitzulo batetaraa joan gaitezke, bertatik guztia ondo begiztatu ahal izateko.

—Bai ados nago.—Takaruk.

Biak haitzulo baten bila hasten dira. Azkenik, ertz txiki batean aurkitzen dute, eta ehiztariren bat agertzen den zai geratzen dira.

—Zer berri, Takaru!— buruaz ez dagoela berririk esaten dio— Ondo da, segi begiratzen.

Karutxok bitartean afaria prestatzen dihardu eta...

—Karutxo! Karutxo! Etorri azkar!

—Bai banoa.

—Hori izango da ehiztaria. Horko gizon bizardun hori.

—Bai arrazoi duzu eta gainera eskopeta bat du. Takaru zoaz afaltzera.

—Eta zu?

—Nik afaldu dut zu zai zeuden bitartean.

Karutxo bereari ekiten dio. Gizon hau oso arraroa da, serioa.

—«Beno noizbait mugituko da» - pentsatzen du berekiko Karutxok.

—Zer? —galdetzen du Takaruk afaldu ondoren.

—Ezer berri, ez da batere mugitzen, beno orain haitz baten atzera doa.

—Atzetik joango natzaio, zuk gordeko nauzu, ez da?

Takaru haitzen atzetik poliki eta isilka ibiliz ehiztariarengana gerturatuz doa. Bere atzera heldzean eskopeta bizkarrean jarri eta esaten dio:

—Jauna sentitzen dut, baina itxas-zakurrak hiltzeari uzten ez badiozu, zu hil beharko zaitut.

—Ongi da, nahi duzuna egingo dut.- erantzuten dio beldur-turik.

—Lehendabizi emaidazu eskopeta. Orain erantzi itzazu al-kandora eta prakak, eta ondoren zure txalupara joan zaitezke

itxas-zakurren larruaz berotzera. A! Eta ahaztu baino lehen, ez zaitut gehiago hemendik ikusi nahi.

Ehiztaria, hotzez dardarka doa bere txaluparuntz. Bitartean bi anaiak oso pozik daude.

—Zer esan diozu Takaru? —galdetzen dio Karutxok.

—Ba...erropak kentzeko esan diot eta kantzontzilotan joan da. Gehiago ez itzultzeko ere esan diot.

—Beno, goazen gauzak jasotzera, etxeruntz joateko.

Bi anaiak lehen topatutako haitzulora doaz ia dena jasotzen dute baina manta eta beste gauzatxo batzu uzten dituzte. Ondoren lotara doaz goizean goiz jaiki ahal izateko.

Hurrengo goizean jaiki eta etxera iritsi arte ez dira gelditzen.

—Klari iritsi gara! —esaten du Karutxok.

—Kaixo! Zerbait lortu al duzue?— galdetzen du Takaruri begira.

—Bai, kantzontzilotan bidali dugu ehiztaria— erantzuten dio.

—Eta zer moduz daude Kamala eta Tusuko?— galdetzen du Karutxok.

—Kamala asko hobetu da, hortik dabilta biak. Tusukooo!

—Banoa ama! Goazen Kamala!

—Kaixo Tusuko— bere aitak.

—Kaixo aita! Gaur goizean 4 edo 5 itxas-zakur agertu dira, dirudienez normaltasuna itzuli da.

—Bai, seme, bai.

Eta horrela ba, ez da ehiztari gehiago agertu Antartidako alde hartan, gizon hau Argentina aldean kantzontzilotan agertu denetik.



Amaia Leiaristi
(*B maila 1. saria*)

Ihes betea zilegi balitz

Askok eta askok pentsatuko dute, arizai bizitzari oso triste eta nahigabezia dela, baina inoiz ez dago goizean jaiki eta ardiak kantzontzilotan ezinez, paisaia hauek ikustekak ezin balio duen.

Badira dagoeneko bost aste, ardiak laguntzaz egunak igarotzen dituztela eta oraindik inoiz ez dira damutu hartu men erabakiaz. Egun grise asko igaro dituztatez ere neguan, nire txabolaxoan sarturik, ardi gaikoren bat zainduz irratia entzuten dudun bitartean. Momentu horietan nire gertatze bilertuz

ixas-zakurra lantzen berotzera. Al Eia ahaztu baino lehen, ez zaitur gehiago lan eginik ikusi...

Bizitzari, horretarako dardara... bitartean bi anaiak oso pozik daude.

—Zer esan duzu Takaruri?— dio Karotxok.

—Ba... erropak kentzen... kantzontzilatari joan da. Gehiago ez itzultze...

—Beno, goazero gauza... zuzen joateko.

Bi anaiak lehen topa... dena jasotzen dute baina manta eta... dituzte. Ondoren lotura doaz go... dira gelditzen.

—Klaro iritzi ga... du Takaruri begira.

—Kaxo! Zerbu... du Takaruri begira.

—Bai, kantzontzilatari bidai dugu ehizaria— erantzuten du.

Amaris I. ezizena (Amaris I. ezizena)

—Ets zer moduz dago... galdetzen du Karotxok.


—Kamala asko hobetu da, hortik dabilta niak. Tusukonol

—Bancu ama! Goozen Kamalal!

—Kaxo! Gaur goizean 4 edo 5 ixas-zakur agertu dira, dirufienez normaltasuna itzuli da.

—Bai, serne, bai.

Eia horrela ba, ez da ebartzari gehiago agertu Anzinidako alde hartan, gizon hau Argentina aldean kantzontzilatari agertu denetik.



ixas-zakurra lantzen berotzera. Al Eia ahaztu baino lehen, ez zaitur gehiago lan eginik ikusi...

Ihes betea zilegi balitz

«Bai bizileku atsegina, errota zar batian, egunsenti argi batekin aurkitzen geranian bai bizileku atsegina errota zar batian, egunsenti argi batekin aurkitzen geranian... la-ra la-ra la-ra-la...» Egun ederra benetan goizeko eguzki izpi argi eta bizkorrek jaitzeko ordua dela adierazten didatenean. Salto batez, lastozko nire ohe bigunetik jaiki eta kanpoan, ohial orlegi batez estalirik baleude bezala, Euskal Herriko mendi berdeak dakuskit; eguzkiak bere berotasunarekin gure inguru maitatuak besarkatzen dituelarik. Belarra, ihintzez estalia ageri den arren, ardiak, marra-marra dabilta, urrutiko mendietakoek, harkaitz zati minimo eta mugikorrek diruditelarik. Txorien abesti eta haizearen marruma hotsek, bikote polit bat osatzen dute, inguruko zuhaitzek, konpasa eramanaz dantzatzen duten bitartean.

Askok eta askok pentsatuko duzue, artzai bizitza oso triste eta nahigabetua dela, baina inork ez daki goizean jaiki eta ardien kantutxo ozenez, paisaia hauek ikusteak zenbat balio duen.

Badira dagoeneko bost urte, ardien laguntzaz egunak igarotzen ditudala eta oraindik inoiz ez naiz damutu hartu nuen erabakiaz. Egun triste asko igaro ditut; batez ere neguan, nire txabolatxoan sarturik, ardi gaixoren bat zainduz irratia entzuten dudana bitartean. Momentu horietan nire gaztaroko bileretaz

oroitzen naiz; pentsakizun hauetako asko, triste bezain larriak izaten dira, drogaren munduan oina jarriz gero, gozotasun gutxi bilatzen bait da. Nire bizitza, euli gaixo bat armiarma maltzur baten sarean kateatuta geratzen denean bezalakoa zen. Etxean urduritasuna eta nahigabea nahasten ziren, denon bizitzak ar-buiagarriak eginez. Ez zen giro izaten ez, amak ez zidanean etxetik irtetzen uzten eta ni berriz, droga beharrez akabatu behar-reen. Etxekoei min egiteaz damutzen nintzen eta askotan zin egin nion amari bizibide eskas hura utziko nuela, baina lagun-artera itzultzean, damua, droga beharrez nahasten zen eta az-kenak irabazten zuen burruka.

Udaberriko egun alai baten, zorionak, gure etxeko ate negartia jo zuen. Ireki eta nire lagun Patxi zen, berarekin artzai lanetara joatea proposatuz. Patxiri baietz esateaz, ez naiz sekula damutu, bere laguntzaz, eskuetatik joana zitzaidan bizitza, berreskuratu bait dut, minaren minez, ezabatua nuen bizipoz zorionsua buel-tatuz. Patxi, asteen behin etortzen da nigana, gauzak nola doazen ikustera eta hizketaldi luzeak eduki ondoren, hemendik bost bat km.-tara dagoen bere etxolara bueltatzen da.

Lehenagoko arima triste, jelskor eta errukigabe hura, irten da nire gorputz barnetik, benetan naizen pertsona alaia ikusten utziz; laino atzean lotsati agertzen diren eguzki errainu bizien legez. Jende askorentzat, gaztaroa izan bada beraien bizitzako aldirik ederrena ere, nik ezin dezaket berdina esan.

Hamabost urte bete arte, mutil alaia nintzen, baina hori bai lotsatia. Nire lagunak, orduan hasi ziren lehenengoz edaten. Denbora iragan ahala, droga bigunenak dastatzen ere esperien-tzia hartu zuten. Garai hartan, oso axolagabea nintzen eta per-sonalitate ahul batekoa gainera. Horrela izan zen, gaztaro ilun bat markatuko zidaten ibileren hastapena. Geroago beharra-ren-beharrez droga munduaren oinaze beltz eta gogorraren az-pira erori ginen. Lagun batzuk, garaiz konturatau ziren eta on-

doren zetorkien mamuari ihes egin zioten, ni berriz, zapla erori nintzen zulora.

Ekainak 22, astelehena: Egundua triste benetan, behe laino astuna inguru guztiak estaltzen dituen maindire ilun bat da, bu-rua goxoki ferekatuz. Zuhaitzak, erraldoi burugabeak eta artzai txabolak gaztelu ubelduak bailiren ageri dira; goi aldea, lotsati erakutsi nahi ez balute bezala. Ardiak ere, txabola barruan ego-tera behartuta daude, 2m.-tara ere, ez bait da ezer ikusten; be-raien kantu melankoliotsuarekin inguru guztiak gogaituz. Pin-txo artzai-txakur zuriak ere, zaunka egiten du, laino artean nor-bait ezkutaturik egongo balitz bezala.

Bizitza latza tokatu zaio benetan, nire anai Txomini; latza, gaitza eta zorrotza. Lehenik, drogaren mundua, artzai bizitza ondoren eta orain gartzelako bizimodu tristea. Bere etxolara joan eta atxiloketaren arrazoaia, bere egunerokoan bilatzen saiatu naiz, baina ez dut ezer berezirik topatu. Bart gauean, koartele-rik dei egin ziguten, nire anaia, bertan zegoela esanez. Haseran, ezinezkoa zela iruditu zitzaigun, ondoren jakin genuenez, poli-tika zen atxiloketaren arrazoaia. Ez ziguten gehiago esan. Kez-kak, larritasuna areagotzen digu, orduak jasangaitzak bihurtuz.

Arratsaldeko bostak dira, lainoek ia zeru guztia estaltzen dute, eguzki errainu ahul batzuk tarteka-marteka beraien agintea era-kusten dutelarik.

Koartel gris beltzartua nire begien aurrean agertu denean, korapilo bat egin zait eztarrian; txakur txikiek, beldurrik ematen ez didaten arren, izutu egin naiz eraikin baxu, luzeska eta ai-tzindari honen ondora hurbiltzean. Kanpoko txakur zarata eta zerbitzua tokatzen zaienen metrailetan disdirak hunkitu egin naute. Ez nintzen inoiz horrelako toki baten egon eta gehiago ez etortzea espero dut. Atean zegoen gizon altu batek, gonbidapen «goxo eta jator» bat egin dit: «Venga niña, paza, que no te vamo a come». Begi beltzen maleziak eta sudurraren beherantz begi-ratzeko joerak, nazka eman didate eta «ondo joan eta pareta jo»

legezko begirada bortxatu ausart bat bota diot. Barrura sartu ahala, zura usteldu eta hauts lizunduaren usaina areagotzen da; ez du, ez, leku honek gaizki irabazia bere fama.

Ofizina moduko leku txiki eta estu batetara zuzendu naiz ondoren. Leihatila nimino baten atzean, Gunilla Von Bismark berak baino ile horiagoa duen andre zantar bat agertu da. Aurpegian, titanlux pote oso bat erabili duela dirudi; pinturaren pinturaz, lodiagoa eginaz. Hitzegiteko era berezi bezain polikiak, eta ahotik botatzen duen tabako beltzaren usainak, atzerakada ematen dute. Soka eman eta astiro-astiro aurpegiko keinua aldatugabe mugitzen diren panpin horietako bat dirudi. Zeinen bila nabilen esan diodanean, bere inguruan zegoen gizon baxukote bati dei egin dio eta honek, nire anaia dagoen tokira lagunduko didala esan dit. Gizon txapar eta lodikoteak, bide estu batetik eraman nau, ametsetan bezala, segundu baten ere, zalan-tzarik eduki gabe.

Bapatean, bide luzea bukatu egin da eta gela handi baten, Txomin, nire anaia ikusi dut; maindire urdin argi batez, estalita dagoen ohe baten gainean jarrita, burua eskuen artean ezkutatuturik duela. Pauso hotsak entzun dituenean, burua jaso du eta ni ikustean, irrifarre makal bat marraztu da bere aurpegi zurbilean. Barrura sartu naiz eta bere ondoan jarritz, musu bat eman diot. Piztu egin dela dirudi, begiak zeharo zabalduz eta aurpegia erabat alaituz. Etxekoak nola dauden galdetu dit eta espero zuen erantzuna entzun ondoren, nola dagoen bera galdetu diot; «dena beharrean» erantzunak, harriturik utzi nau eta baita kezkatuturik ere. Bapatean, pentsati geratu da, begiak beste toki baten kokaturik balitu bezala. Ni ere, isilik egon naiz, goian dagoen leihatilatik kanpora begira, zuhaitz mugikorren islada gelan nabaritutuz. Hamar bat minutu luze horrela egon ondoren, zer gertatu zaion kontatzea erabaki du, haseera nahiko zakar bat emanaz:

—Jakingo duzun bezala, politika arazoegaitik nago zulo honetan. Nire bizitza beltza da... Bizitza ia eraman zidan lehenengo

ostikada hartatik ihes egin nuen bezain laister, beste hau datorkit.

Artzai bizitza egiten hasi nintzenean, lehenengo oso gaizki ibili nintzen, drogaren oinaze iluna gainetik ezin nuelako kendu eta bakardadeak etsipen izugarri bat ekartzen zidalako. Geroago berriz, ohitu nintzen ardien laguntzaz eta astean behin etortzen zen Patxiren bisitaz bizitzen. Noizean behin, zuek ere etortzen zineten eta nire gaixotasunetik sendatuz, bizitza pozgarria bihurtu zitzaidan.

Denbora pasatu ahala, bi mutil ere ezagutu nituen, noizean behin eguna pasatzera etortzen zirenak, Mikel eta Jokin hain zuzen ere, eta etortzen zirenean, pozik pasatzen genuen eguna, ardien laguntzaz hitzegiteko norbait banuen behintzat. Gero eta lagun handiagoak egin ginen eta noizean behin, parrandaren bat ere egin genuen elkarrekin. Gero eta sarriago etortzen hasi ziren eta euren laguntzaz, egunak gero eta bizkorrago pasatzen zitzaizkidan. politikari buruz ere, askotan hitzegiten genuen eta Euskal Herriaren egoera kaskarraz, hirurok bat etorri ginen.

Neguko egun ilun eta sirimiritu baten, behe lainoaren erruz, ez nituen etortzen ikusi eta bapatean, han agertu ziren estu eta larri korrika, hitzegiteko adorarik ere gabe. Egoera hartan ikusita, etxola barrura sartzeko esan nien. Jateko zerbait eman ondoren, eseri eta hitzegiten hasi ginen. Ez genuen elkarri gauza asko esateko denborarik izan. Txakur zaunka ikaragarri batek, txunditurik utzi bait gintuen eta nire eserlekutik jauzi bat eginaz, leihora hurreratu eta urrutiko hotsak ez ziruditela antzematean, lagunei begiratu nien erantzun bila. Biak bietara ere, oso urduri zeuden eta eserlekutik jaiki eta ezkulateku onik ezagutzen al nuen itaundu zidaten. Galderak nire onetik atera ninduen; zer gertatzen zen? Zer zuten ezkutatzeko? Erantzuteko denborarik izan baino lehen, txakurren zaunka hotsetatik salbu, gizonen ahotsak ere entzuten genituen, kenka larrian zein zeinen gainetik nabarituko. Ez zen ezer ulertzen, kanpoan zebilen iparraize ho-

tzak soinu guztiak desbideratzen bait zituen. Gutxi gora behera, ohartu nintzen gertatzen zenaz eta handik ihes egitea besterik ez zitzaidan bururatu. Atzeko atea ireki eta mendi aldera abiatzean, hamar bat gizon armatu ikusi genituen. Nire lagunek, ihes egiteko gogoia erakutsi zuten, elkarri begiratu eta keinu azkar bat eginaz, ni berriz geldi geratu nintzen eskuak altxatuz. Handik hona, zuzenean ekarri ninduten, Jokin eta Mikelek ihesari eman zioten, baina goizean entzun dudanez, dagoeneko hemen daude biak. Ez dut uste denbora asko egon beharko naizenik zulo honetan sartuta; ez bait nintzen ni, bilatzen zutena eta gainera nire bizitzan agertu ziren momentutik, eurak esandakoa besterik ez dut egin.

Harrigarria da benetan zein arazotan sartu dudan neure burua, Jokin eta Mikel laguntzat ditut, lagun ontzat gainera, baina ez nuen hau espero, nik ez nekien ezer nire etxolara iritsi ziren arte, beraien atzetik txakur zaunka latz batzuk ekarriz.

Ilargia, herri guztia estaliz, bertako jabea izango balitz bezala ageri da, izarrak bere diszipuluak izanik. Gaugiro ederra benetan, kaleetan zehar iluntasuna nabaria denean eta jendearen egonezak, negu hotz eta isilaren nagitasuna markatazen duenean. Zuzenean etxera abiatu naiz, egun tristea izan da gaurkoa, nire anaia egoera hartan ikusteak, zeharo kezkatuta utzi nau, guztiz jota dago, hitzegiteko doinuan nabari duen bezala. Espe-rantza apur bat ere agertu du, baina bere bizitza beltzak ez dio askotan lagundu. Zulokogune batetik irten orduko, zapla! berriz beste batera.

Eguzkiarekin batera, loratu da nire bihotza, alaitasuna berriz ere bueltatuz. Ardiek, ongi etorri bero bat egin didate beraien kanta ozenekin. Pintxo artzai-txakurra ere poztu egin da ni ikusteaz. Egun polita izan da gaurkoa, etxolara iritsi naizenean, nire famili-tarteko eta Karmele, Miren, Kepa, Aitor eta Maite nire lagunak ere han nituen zain, denen artean, bizipoza eman didatelarik.

Jokin eta Mikeli buruz, ez dakit ezer, goizean joan naitekeela esan didatenean behintzat, gartzelan jarraitzen zuten.

Udazkenean, eguzkiak irtetzean, zeruan marratzen duen is-lada gorriskak, lasaitasun eta poza ematen du, txorien poza ere gurearekin bat egiten delarik. Txorinoen abestiek esnatu nau-tenean eta eguraldi hau ikustean, ohetik jaiki eta gosaria pres-tatzeari ekin diot: Oilo salda apur bat, barrua berotzeko, urdaia eta azkenik goiz guztirako gosea kentzen duen arto eta esnea. Ardiak hartu eta mendi aldera zuzendu naiz, hezi eta ote gutxia-go dagoen tokian, nire bizilagunak gustorago sentitzen diren tokira. Hosto ximelduek, hanka azpian ateratzen duten kraska hotsek eta goizeko hotzak agintzera ematen duen ihintzak, po-litagoak adierazten dizkit Euskal Herriko mendi maiteak. Men-dian gora abiatuz, goizeko hotza nabariagoa egiten da, baina eguzkiak ihintza desagertarazi duen tokietan, gustora egoten da, lehen errainu indartsuek, egun guztian gelditu gabe lanean ari-tzeko prest dauden mehagizonak diruditelarik, bizkarra maite-kiro ferekatuz.

Eguerdian, etxetik eramán ditudan taloa eta txorizoa jan ditut, bapo gelditu naiz eta ondoren lo kuluskatxo bat egin dut zuhaitz baten kontra etzanda.

Esnatu naizenean, bostak inguru, eguzkia bere azkenengo ostikadak ematen ari zen, mendien atzean ezkutatu baino lehen. Begiak ondo ireki eta ingurura begiratu dudanean, zer ikusiko eta Mikel eta Jokin ikusi ditut harkaitz baten gainean jarrita niri begira. Beraien betazpi sakonak eta kolore zurbilak errukia ematen zuen. Haseeran, isiltasuna nagusitu da, elkarri ezer esa-tekorik ez bagenu, edo, asko eduki eta nola hasi ez bageneki bezala. Gero, esan beharrekoa ondo pentsatuta, Mikel hasi da solasaldiari haseera emanez nahiko poliki, baina urduritasuna agertuz hitzegiterakoan:

—Txomin, lehenengo, barkamena eskatu nahi dizugu orain dela hamabost egun gertatutakoagatik. Akats larria izan zen gure

aldetik, zuri ezer esan gabe, nahaste hartan sartzea.

—Bigarrenik, eskerrak eman nahi dizkizugu, zure etxolako atea zabaltzeagaitik eta guri ihes egiten laguntzen saiatzeagaitik. Benetako lagun bat zarela erakutsi dizugu, nahiz eta guk zuk bezala jokatu ez izan- jarraitu du Jokinek, politikariek egiten duten bezala ideiak banaka agertuz.

Niri hitzegiteko denborarik eman gabe, berriz ere hizketan hasi dira, beste arazo larri eta estuago bati buruz.

Birikek, korrikaldiaren ondorioz, ahituta daudela dirudite, gorputzeko atalek duten oxigeno beharrian izugarria hornitze-ko balio ez balute bezala. Zurrunbilo bat entzuten dut belarrietan eta irentsi ezin dudan pilota latz bat eztarrian. Burua astintzen dut, sudurretik zehar irristatzen zaidan izerdi tantoaz libratu nahian. Alboan, korrika datorren tipo unformatua oihu eginez bezala, ahoa asko zabaltzen ikusten dut, baina nik ez dut deus ere entzuten, buru barnean txistuka ari zaidan zurrunbilo zorrotza izan ezik. Hala ere, nire atzean, pausoak gehitu eta hurreratu egin direla entzuten dut eta hortzak herstutuz pausoa biziagotzen saiatzen naiz. Ezin dut. Lurrera pegatuta sentitzen naiz, lotua. Dardara bizi batek astintzen dit gorputza, hanka hotsak gero eta gertuago entzuten ditudan bitartean. Hanka eta besoak, automatikoki mugitzen ditut; jaietan egoten diren panpin barre-garriek egiten duten bezala. Paris, izugarria ikusten dut; alboetan luzatzen diren etxe zabalek, Don Kixoteko erraldoi amaiezinak dirudite. «Rue aux Fers» kalea zeharkatu dut eta «Rue de la Ferronnerie»-ra iristean, paisaia guztiz aldatu da. Etxe txiki eta kale zabalak nagusitu dira, autobusideek, erraldoi batzuen azpian geratzen diren laberintoak izateari utzi diote.

Euria hasten da, jendeak, solapak altxatzen ditu, batzuk beren aterkien azpian babestuz eta besteak buru makurtuen gainean egunkariak eutsiz, laburka korrika hasten dira.

Begirada izuti bat botatzen dut atzera, dagoeneko, arrastoa galdu dute eta metro batzuren barruan behintzat ez dira ageri.

Lehenago ikusita dudan plaza errektangular batera iritsi naiz. Teilatua hurreratzen diren arabera, beltzago eta disdiratsua egiten dira. Gehienak telebista antenaz josiak. Etxeetako balkoi txatxuen azpian, arkupea. Lurra adokinatua. Hau aprobetxatuz, umee, klarionez arrasto eta numeroak egin dituzte, koadrotik koadrorra saltoka denbora pasatuz. Liburuak eta karpetak lurrean egindako pilo batean. Adokinak bata bestearen atzean zein baino zein zikinago; adokin bat, beste bat. Azken honetan odol koagulatuaren mantxa beltza. Korrika, arnasestuka pasatu naiz, neguko iparraize hotzak hezurak ikutzean barruan sortzen duen zurrunbiloaren antzera. Zirrara hotz bat sentitu dut, hots fin batek belarriak zulatzen dizkidanean: «¡¡Alto, alto, o desaparemos!!» Bost behintzat badira atzetik dakartzadanak, txakur indartsu baten tirakada jasan ezinda korrika doan jabea bezala.

«Cafetería La Italiana». Iragarki handia. Begietara min egiten duten argi gorri eta berdeak. Banaka disdiratuz lehenengo eta ondoren biak batera; urrutitik ikusten den, argi bikote polita osatuz. Txokolate usaina. Berotasun ikaragarri bat botatzen duen txokolate usaian fina nabari da. Badirudi norbaiten urteak direla, umeen ahots ozenek zorionak abesten bait dute, edateko beroegia dagoen txokolatea, katilu ilunetan, eskuen artean hartuz.

Udazkeneko arratsalde polit bat, baina bizkor iluntzen duen horietakoa. Kanpoko hotzari aurka egiteko, beroaren berroz, edanezina dagoen txokolatea, katilu zuri zaharkitu batzuetan, gure eskuen artean daukagu. Botatzen duen beroaz baliatuz, eskuak berotuz. Mahaiaren alde batean, begiak gainetik kentzen ez dizkidatela Mikel eta Jokin, ni beste aldean, erregelarekin esku puntak berotzeko beldurrez dauden bi umetxoren maisu amorragarria banintz bezala. Ondoren kontatu zidaten istorioa barruan edukita, normala zen agertzen zuten kezka eta egonezina edukitzea. Gartzelatik, atxilotu zituzten egunetik, hilabetera irten ziren, baina kontuz ibiltzeko esan zieten, hurrengoan bes-

tela, bizkarrezurra austerainoko makilakadak hartu zituztela eta. Izututa zeuden, beraien hitzegiteko era hutsak, errukia ematen zidalarik. Larriena ez zen hori; gero eta arazo larriagoak kontatu zizkidaten, urrikaltasunetik aparte, gainera zetorkidanaz kon- turatu nahi ez banu bezala harridura aurpegia jarritz.

Ez zitzaidan batere gustatzen elkarrizketak hartu zuen bidea eta harraskara joan nintzen ontziak garbitzera. Ihes egin nahi nuela ikusi zutenean, eskakizuna zuzen zuzenean bota zuten. Bazuten, bi egunez gorde beharreko diru kopuru handi bat; etxean gordetzea oso arriskutsua iruditzen zitzaiena, hortik eto- rri zen laguntza-eskea. Sotoan, bazegoen ardoa gordetzeko nuen leku polit bat, bertan zulokogune apropos bat egonik dirua gor- detzeko. Ez zitzaidan gauza arriskutsu eta zaila iruditu eta baietz esan nuen, bi egunetara, dirua eramaten bazuten.

Orain hemen nago, Parisko kaleetan zehar korrika, diruare- naren ondoren sartu naizen mila arazoetako baten ondoren neure burua gartzelatik salbatu nahian.

Ez dago galtzeko denborarik. Ehun eta berrogeitamar metro baino distantzia laburrago batera jarraitzen dituzte nire pausoak. Hanketan sentitzen dudana minak, denbora gehiagoan korrika jarraitzeko indarrak ez dudala adierazten dit.

Kaleak hutsik daude. Euria barra-barra. Nire begien bistan ez da arimarik ere agertzen. Niri zuzendutako deihadarrak gero eta ozenagoak. Bihotzak salto egiten du nire barruan, guztiz neka- tuta. Paparrean zintzilika dudana Ama Birginaren dominaa go- gorki estutu dut esku barruan. Oihuak gero eta saminagoak: «¡¡Chico, que ya nos estás cansando, o dejás esta puñetera ca- rrera de una vez, o no serás capaz de ver tu cuerpo como un colador!!». Hankak airean. Zarata hotz batek, airean dar-dar egin du, belarriak zulatuz, nire arima ere mugituz. Izuak men- peratu nau eta hankek bizkorrago mugitzeko aginduari ez diote erantzun nahi. Bigarren zarata bat entzun dut, gertatuaz jabe- tzeko astirik gabe, min izugarri bat sentitu dut. LATZA, GAI-

TZA ETA ZORROTZA. Odol beroa irristatzen sentitzen dut. Leunki baina etengabe isurtzen zait nire eskuaz hertsu nahi nu- keen zulotik. Besoak airean astintzen ditut, aurkitzen ez dudana sostengu baten bila. Zango zauritua lurreratzen dut edo lurrera erortzen zait. Lurra, odol arrasto batez zikinduz arrastatzen dut eskuineko zangoa. Beste pauso bat emateko prestatzen naiz. Gorputza eskuineko hankaren gainean. Ezkerreko zangoa al- txatuz aurrera.

«¡¡Alto, alto!!». Ezkerreko hanka lurrean jartzen dut, indarra ahitu zait eta belaunikatzen naiz, zango bero eta bustia lurrean arrastatzen dudana bitartean. Bizkarrean lehenengoz eta bula- rrean ondoren sentitu dudana minaren ondoren, irekita eduki nahi ditudana begiak hersten zaizkit. Odola gargaraka, usain gozoak goragalea ematen didalarik. Eskuak, golpeka ihesi doakidan bizitzaz zikindurik, bular azpitik aldentzen ditut.

Kale herstu bat, beste bat. Lurrean zehar ahal dudana bezala arrastaka. Bapatean auto bat. Pare parean gelditu eta kolpera atea zabaldu du. Lurretik, begirada errukior bata bota diot autoko gidari betaurrekodun eta ile motzdunari. Barrura sartzeko keinu bizkor bat. Behe lainoa moduko ke erdi-garden batek begiak lausotzen dizkit. Konfidantzazko mutila dirudi. Barrura. Gor- putza ezin dut mugitu ere egin. Esku bat jaso eta autoko eser- lekuari helduz sartzeko indarra egiten dut. Bizia salbatzen la- gundu nahi didana mutil ausartak, eskua ematen dit, tirakada labur batez baliatuz. Besapetik heldu dit aurrera indarra eginez. Eskuak, odol bero eta bustiaz zikindu zaizkio. Zarata bortitzak. Ez dago denborarik. Autoa, abiatzen da poliki-poliki. Igotzeko azken saialdia. Sartu naiz nolabait. Aurrera. Hots gogor batek autoa ikutu du. Gidaria izutu egin da. Abiadura handitu eta bira zakar bat eman du «Rue Droite» kale estu eta teilatuen bidez erdi-itxirantz. Beste burundara bat. Oraingotik, autoak ez dio gidariaren eskariei amorerik eman. Gelditu egin da. Galduta gaude. Nire laguna saiatu da berriz ere. Baina ezer ere ez, autoa

geldi. Kolpe gogor bat eman dio bolanteari bere esku handiekin. Amorrua nagusi. Irrifarre ahul batekin begiratu diot eskerrak eman nahian. Atea zabaldu eta nire gorputza lurrera erortzen utzi dut. Arrasto gorri bizi bat. Ahal dudan bezala belauniko jarri eta besoak gurutze bat osatuz jarri ditut. Laguntza baten zain, ondo hiltzen lagunduko didan laguntza baten zain. Ez dute ezer errespetatzen. Hirugarren zarata entzutearekin bat, gorputzean dudan mina areagotzen didan beste batek, besoa zeharkatu dit. Besa-petik hasi eta eskumuturreraino. Esku bat odoletan, bestea, Ama Birginaren domina ahal dudan estuen gorantz jasoz, heriotzaren arrasto iluna gorputza estaltzera datorkit.

**IHES BETEA ZILEGI BALITZ,
NUNBAIT BALEGO BAKEA.
NI EZ NINTZAKE ETXE ERTZEKO,
LOREDIEN MAITALEA.
NI EZ NINTZAKE OINAZEAREN,
MENPEKO MISERABLEA
OIHU ZEKENEN DESTINATZAILE,
ETSIPENAREN SEMEA.
NI EZ NINTZAKE INORENTZAKO,
ESKANDALUZKO KALTEA,
LUR HOTZ BATETAN ALDATUTAKO,
LANDARE SUSTRAIGABEA.
IHES EDERRA ZILEGI BALITZ,
URRA AHAL BALEDI KATEA,
NI EZ NINTZAKE ONTZIGABEKO,
ITSASGIZON AHALGEA:**

(Dena bis)



**Mikel Kornejo
(B mailan 2.saria)**

Aingeru

Adanel — horrela deitzen zen — ez zen aingeru urrut bat bere ilea zilarezko hariz osatutako zegoen, bere begiak zinabrizkoak ziren, eta urtegorriko azalaren arpean altzairuzko giharre eta tendoiak bere gorputza erregekiro mugitzen zuten. Ez zen, ez, besteak bezalako aingerua. Paradisuko hierarkiaren goi mailako bat baizik. Jainkoaren faborimenduak bat, betebeharr garrantzitsu bat betetzera zihotsa, milurteko bakoitzean egin ohi zen bezala: benetan merezi zuen izaki bat zerura igo eta aingeru jagoie izendatzea. Lan hori ondo betetzeak igoera bat suposatuko luke Adanentzat eta, noski, ez zen alferrik boronizteko aukera.



IHES
NUN
NI EZ NINTZAKE OINAZTEAREN,
LOREDIEN MAITALEA,
NI EZ NINTZAKE OINAZTEAREN,
MENPEKO NINTZAKILEA,
OIHU ZERREZIN BARRAZAILE,
ETSIPENAREN SEMEA,
NI EZ NINTZAKE INORENTZAKO,
ESKANDALITZKO KANTIA,
LUR HOTTEKIN BARRAZATUTAKO,
LANDARE SUSTRAIGABEA,
IHES EDERRA ZILEGI BALITZ,
URRA AHAL BALEDI KATEA,
NI EZ NINTZAKE ONTZIGABEKO,
ITSASGIZON AHALGEA.

(Dena hjs)

Aingeru

BASAMORTUKO zeru lasaia, bapatean, zabaldu egin zen, eta argia lautada gainean ixuri zen, garbia, zuria. Zulo handi hartatik Aingerua mundura jaitsi zen, bere hegala handiak osotasunean zabaldu, lehun eta perfektoak, haizea baino indartsuagoak, airea bezain arinak, akats gabeko gorputz baten bizkar sendoan itsatsirik.

Aingerua emeki lurreratu zen, zerua itxi egin zen eta izarrek keinuka jarraitu zuten; txirritek, bitartean, betiko melodia monotonoa jotzeari ekin zioten.

Adanel —horrela deitzen zen— ez zen aingeru arrunt bat: bere ilea zilarrezko hariz osaturik zegoen, bere begiak zinabrio-zkoak ziren, eta urregorritzko azalaren azpian altzairuzko giharre eta tendoiek bere gorputza erregekiro mugitzen zuten. Ez zen, ez, besteak bezalako aingerua, Paradisuko hierarkiaren goi mailako bat baizik, Jainkoaren faborituetako bat, betebehar garrantzitsu bat betetzera zihoana, milurteko bakoitzean egin ohi zen bezala: benetan merezi zuen izaki bat zerura igo eta aingeru jagole izendatzea. Lan hori ondo betetzeak igoera bat suposatuko luke Adanelentzat eta, noski, ez zen alferrik botatzeko aukera.

Beraz, gauzak horrela zeudelarik, begi gorriak ilundu eta granatetzen zitzaizkion bitartean, alde batera eta bestera begiratu zuen. Ondoren, hegoak astinduz, horizonterantz abiatu zen.

BASAMORTUAN, lurrak, pitzatu eta haur bat erditu du, laba eta orroa artean. Umeak inguruan duen suzko odola azkeneko tantararte xurgatzen du eta arinki hazten da. Beltza eta mehea da, eta luzea, kerizpe bat bezala. Esku eta hanken ordeaz erpeak ditu, eta bi hortz ilera, horixkak eta zorrotzak inoiz egon ez bezelakoak. Jatorriz ehiztaria da, eta orain du frogatzeko aukera. Burua altxatzen du eta airea usaintzen.

Haizetxo fresku batek bere harrapakinaren usaia ekartzen dio, eta airuri bat bota ondoren, lau gorputz adarrak lurtean jarri eta korrika hasten da, hainbeste gorroto duen arrastoaren atzetik, gabeko ilunarekin bat.

ORDUAK zeramatzen hegan. Ez zuen nekerik sentitzen, aingeruak ez dira inoiz nekatzen, baina pixkat asperturik sentitzen zen. Ordurako eguzkia ortzean egon beharko litzake, hala ere ez zuen azaltzen existitzen zenaren izpirik. Bere barnekaldeari kontsultatuz, denbora gaizki zebilela jakin zuen, inolako arrazoirik gabe, zirudienez. Bera, hala ere, denboraren jarriotik kanpo zegoen, bere denbora propioan higitzen zen beti. Beraz, ez zen harritu aurreraxeago eskultura bat zirudien gizon bat aurkitu zuenean. Hegaldiaren abiadura jaitsi eta, planeatuz, gizon-estatuaren ondoraino iritsi zen. Oso gizaki arraroa zela irudi zitzaion: biluzik zegoen, lepoaren inguruan zintzilik zuen suge eder bat ezik, buztana ahoan zuen suge-lepoko berezi bat osotzen zuena. Iturri baten ondoan zegoen belaunikaturik, eta eskuartearen oraindik jausten ari zen ura jasotzen saiatzen zen. Baina behatzak banaturik zituen, eta gizon gixarajoak ezin zuen bere eskuartearen ihes egiten zion ura besterik eduki. Adanel laguntzen saiatu zen, baina ez zegoen harrizko esku haiek mugitzeko modurik eta, azkenik, zereginik ez zuela eta, bere bideari ekin zion.

GELDITU gabe ari da korrika egiten, beste gauza batzuen artean horretarako hezitu dutelako. Noizean behin, gelditu eta, sudurra gorantz zuzenduz, bere norabidea zihurtatzen du. Baina ia ez da beharrezkoa. Deabruak ba dute halako zentzu berezi bat, kontrakotasunean oinarritua, aingeruak detektatzeko. Baina denbora fluxuan zehar aurreraka bakarrik jokatzen du, eta aingerua deabruaren aurretik doanez, ezin du jarraika doakion lurrazpiko pertsonai gaiztoa somatu. Milurteko bakoitzean berdina gertatu da, deabruak ezin izan dute inoiz aingerua harrapatu, eta azken hauek, denboran beti aurrerago ibili izan direnez, ez dira inoiz ehiza zapuztuetaz ohartu. Jainkoak ere ezin die ezer esan, joko dibinoaren legeak dioten arauera. Jokoak deabru bategi aingeru bat harrapatzen duenean amaituko da, eta horrek Unibertsoaren suntsiketa suposatuko du. Baina hori da deabruen patua, beroarena hotzaren aurka aritzea den bezala, eta argiarena iluntasuna desagertaraztea.

Pentsamendu hauetan murgildurik, lurrazpiko enbaxadoreak kilometroak irensten jarraitzen du.

ADANELI epea eta esperantzak batera amaitzen ari zitzaizkion. Jadanik ez zitzaion goraldia interesatzen, eta konplizteagatik bakarrik jarraitzen zuen bilakuntza.

Hauek, noski, ez ziren benetako sentimenduak. Aingeruak denaren ikuspegi orokorra dute, eta ezin dute ametitu elementu bakar batek euren pentsamenduetan eragitea. Horrek, aingeruen berezko justizia hautsiko luke, inpartzialtasuna arbitraltasuna bilakatuaz, eta epaiketak desorekatuz. Hori da deabruen kasua, adibidez. Denak ez dira txarrak, euren artean ere desadostasunak daude, baina gehienak Kosmoaren legeetatik urrundu dira, eta Kaosa eta gaizkiaren esku erori dira, irteerarik gabeko laberinto batean. Hau gauza guztien haseeran gertatu zen, eta ordundik ekilibrioa mantentzen da.

Halako batean, Adanelek zerbait sentitu zuen denboraren plano absolutoan eta, bertako zaindariei baimena eskatu ondo-

ren, hara hurbildu zen, perturbazioaren zergaitia ezagutzera. Arazo bat zegoen. Aingeru jagole izango zena denboran bere atzetik aurkitzen zen, eta bilaketa jarraituz gero ez lirateke inoiz aurkituko.

Plano hartatik atera eta zera erabaki zuen Adanelek: bere denbora jario indibiduala etengo zuela denbora absolutoko momentu batzutan. Lapsus horretatik ateratzean, denboraren plano absolutoa fundatuko luke: bila zebilen izakiaren aurretik geratuko balitz berriz, bere jarioa etengo luke atzetik geratu arte. Orduan, aingeruak nahi bezain azkar ibil daitezkeenez aurrerantz denboran zehar, berehala harrapatuko luke bere bilaketaren objetiboa.

Era honetara, Adanel existentziatik atera zen.

DEABRUAK berehala nabaritzen du errealtatearen etena. Zerbait gaizki doa. Aingeru madarikatu hori zerbaitetan dabil eta ez daki zehazki zer izango ote den. Ez du bere harrapakina denbora fluxuan lokalizatzen. Korrika egiteari uzten dio eta, konzentratuz, aingerua topatzen saiatzen da. Alferrik. Aingerua etorkizunetik desagertu da.

BAPATEAN, Adanel denborara itzuliko da, deabrua dagoen momentu berdinerara. Orduan, biak konturatuko dira Patuak prestatuko dien ezustez. Euren kontzientziak batuko dira Patuak prestatuko dien ezustez. Euren kontzientziak batuko dira, eta jainko dute elkarren atzetik ibili direla, eta deabruak jakingo du bera dela aukeratua, eta Adanelek jainko du deabruaren nahirik handiena aingeru jagole izatea dela eta damutzen dela Kosmoaren legeetatik aldendu izana, eta biek jakingo dute ezingo dituztela euren nahiak bete, beroa ezin dela hotz bihurtu hotzak progresiboki irabazten ez badu.

Deabruak, orduan, Unibertsoa madarikatuko du, eta lurreko hautsaren gainean ihauskatuko da. Aingeruak erruki izpi bat sentituko du, baina segiduan ezabatuko du. Azken finean, aingeruek ezin dute nigarririk egin, ez?



Jasone Osoro
(B.maila 3.saria)

Puntu beltz baten itzala

Damu naiz. Jadanik berandu da, ordea. Bizitza honetan antzestea tokana zaidan papera zaila izan da, gogorra oso.

Beti, beti bakardadearen erditigunea izan naiz. Bakardade ilun bai izan dut ingurune bakarra. Noizbehinka argi apal bat pixten da ene baitan, nere bihotzeko toki galdu batenan.

Iztrazpena. Galtzen den azken gauza. Aspildidantik galdua dut nik. Ez dut bere esanahia ezagutzen. Hitz hau nire buru gatik ezabatua dago.

Zertan, nor auzien galdetuko duzue. Baióa nire izenak ez da garrantzirik. Ni nea ez naiz, beste asko ez diren bezala, ozenki

entzuna izan nahi duen ulu mehe bat besterik. Oinazearen oina-
tzek eraginiko gorputz orbaindu bat zeinen hertz saminek mal-
koen bideskak pasatzea uzten bait duten.

Egia esan unaturik nago horrela jarraitzeaz. Behingoz itotzen
nauen soka hau askatzeko kemena izango dut. Hala espero. He-
men doa, beraz, beste milaka pertsonekin bat etorriko den nire
istorio txikia...

Diruz ezkondu zitzaidan emaztea. Benetan ederra zen. Haren
begi beltzek su eta garra ikaragarria zuten, bizia. Ilearen kizku-
rrak aurpegira erortzen zitzaizkion ur jauziak bailiran eta eskuen
leuntasunak inoiz sentitu ez bezalako zirrara sortzen zuten ni-
gan. Lilulaturik utzi ninduen, udaberriko gau hartan, lehenbizi
ikusitako nuenean.

Urtebetera jaio zen Oihana. Zein polita zen! Gure etxeko bizi
eta poza. Gure jostailu bakar eta maitea. Sei urte bete zituenean
emazteak eta biok erabaki bat hartu genuen, inoiz hartu dudana
erabaki okerrean. Lanpetuak geunden biok eta alabatxoa, gure
kutuna, eskola batetan sartu genuen. Gau eta egunak bertan pa-
satuko zituen, gabon eta uda oporretan soilik bueltatuko zen.

Laister konturatu nintzen emaztea beste gizon batekin zebi-
lala. Izan ere ez ninduen inoiz maite izan. Ni, ordurarte, itsuturik
nengoen horrelako ezer ikusteko.

Sentibera, oso sentibera nintzen (baita gaur egun ere) eta ho-
nen berri izatean kolpe gogor bat jasan nuen.

Edarian murgildu nintzen nire atsekabeak hondoratu nahian.
Lanera ere ez nintzen joaten, beharrik ere ez nuen dirua betidanik
izan nuen eta. Jaiki orduka botila nuen eskutartean.

Hamasei urte bete zituenean atera genuen Oihana eskola
hartatik, beharbada gure egoera zurrunbilotsua lasaituko zuena-
ren itxaropenarekin. Alperrik, ordea, emazteak berehala alde
egin zuen Oihana nirekin utziaz. Koldarra, oso koldarra izan
nintzen. Guztiari aurre egiteko indarrik ez nuen izan eta, behar-
bada, gogorik ere ez. Oihanak guztiaren berri zeukan. Askotan

etorri izan zitzaidan laguntza eskeintzen. Nik, irribarre eta be-
sarkada batez, maitasuna eskeini beharrean albotik botatzen
nuen garraxi eta indarrez. Neska hura, nire alaba, karga bat
besterik ez zela pentsatzera ere iritsi nintzen. A ze nolako as-
takeria!

Orduan ez nintzen konturatu bainan Oihana ez zen etxean
sarri azaltzen. Ez nekien non eta zertan ibiltzen zen, zein zen bere
laguntaldea. Egia esan, hura ez zen nire arazoa beste asko bait
nituen buruan.

Ez zuen inoiz maitasun frogarik izan ez nire ez eta amaren
aldetik ere.

Orain berandu da. Hemezortzi urte besterik ez zituela gure
albotik joan zaigu.

Lerro hauek idaztean negar malko garratz batek nire aurpegia
zeharkatzen du. Nire begiak lausotu duten oinazearen hitzak,
sentimentuen euria.

Bakardadea dut orain ere lagun eta inoiz utzi ezin izan dudana
ardo botila.

Eguna oskarbi, gaua izartsu. Heriotz gau hartan aurkitu nituen
Oihanak idatziriko orri hauek...

«Zertarako jaio? Zertarako bizitza «eder» honetan izadiaren
jostailu garenok, gizon beraren harrapakin, zertarako lan, jan eta
bizi behar degu? Zertarako gau ilunaren izar dirdira eta ilargi
xamurra mantu delarik lo egin eta ondoren, egunsentia esna-
tzean, iratzarri? Zertarako horrenbeste sufrimendu, norberekeri
eta anbizio? Azkenean, egur errearen errautsa bezalaxe, gu geu
ere hauts bihurtzeko.

Nere bizitzan ez dut inoiz inolako zorion osorik sentitu. Gu-
rasoak maite ditut eta, agian, beraiek ere ni; baina beti izan naiz,
edo hala sentitu izan dut behintzat, zaharturik dagoen jostailu
bat, jostailu baliotsua baina beharrezkoa ez dutena azken finean.

Eskolan pasaturiko urteetan gauza asko ikasi nituen bizitzari
buruz. Bertan oso lagun egin ginen Saioa eta biok. Hark ideia

tinko eta interesgarriak zituen bizitzari buruz. Haren gurasoak, ama emagalduta izaniko emakume gaiso bat eta aita kartzelan beti, istripu batetan hil ziren Saioak hamabi urte zituenean. Horrela bizitza txiro batetik beste «hobeago» batetara pasatu zen izabarenean. Azken honek ni nenbilen eskolara bidali zuen.

Ezagutu nuenean neskata uzkur eta barnerakoa iruditu zitzaidan. Egun osoa ixkin baztertu batetan ematen zuen, beste guztiongandik at. Ni neu sarritan hurbildu izan nintzaion baina txitik ere ez zen haren ahotik irteten. Begirada nonbait galtzen zen, inork ikus ez dezakeen pentsamenduaren mundu misterioitsu hortan izkutatzen. Horrela bi aste igaro ziren...edo eta hiru. Egun batetan haren begiek nimir sutsu bat zeriotela nabari nuen. Haien hotsa entzuten nengoela keinu bat bota zidala oharatu nintzen. Bai, Saioak bere mundu itxi hori utzi zuen.

Ordutik ez ginen inoiz banatu. Batak besteari dena kontatzen genion. Saioa ez zen bere gurasoetatik lotsatzen. Ez zuten bizitza «dezente» bata eraman baina maitasuna zer zen bazekiten. Hori izan zen, hain zuzen ere, nire lagunak ikasi zuen lehen ikasgaia.

Amak bizitzaren berri eman zion. Gu ere, txori txiroen gisa, kaiola batetan bizi garela esan ohi zion. Kaiola ederra, handia, mota guztietako gauza bitxiz apaindua, bainan askatasun gabea. Bizitza aurrera ateratzeko lan asko egin behar dela irakatsi zion eta egur ugari, larregi agian, jaso beharko zuela. Jendearengan konfidantza gehiegi ez izateko aholkatu zion: «sarritan gure lagun minek, odol berbera daramatenek saltzen bait gaituzte».

Aitarekin ez zituen horren harreman bero eta estuak izan. Jaio zenetik ia ezagutu zuen hura espetxean. Odolbizia zen oso. Beditanik bizi izan zen delinkuentziaren munduan sarturik. Auzo xume eta zikinengan bizi izan zen eta bertan ikasi zituen bizitzaren alde gogorrenak.

«Azpi». Hori zen Saioaren aitaren gaitzizena. Drogaren mundu ilunean sarturik zegoen leporaino. Hau izan zen, hain zuzen ere, espetxera eraman zuen azken arrazoia. Beti bezala

diru beharrean aurkitzen zen eta lortzeko bide errezena... lapurreta. Hiriko auzo aberatseneko etxe batetan sartu zen apur bat ostu nahian. Harrapatu egin zuten. Jabeek, jende zeken eta kupidagabea, ez zuten, inola ere, gizona barkatu nahi izan. Alderantziz, kargu gehiago ezarri zituzten bere aurka. Eta, beti bezala, «zuzentasunak» irabazi zuen. Ironikoa da, ez? Betikoak beti goian, besteak behean, zapaldurik.

Saioak, beraz, nik inoiz ezagutu ez nituen gauzak irakatsi zizkidan. Drogen mundu iluna nolakoa zen adierazi eta bertan inoiz ez sartzeko esan. Inoiz arazorik izan ezkeror norbaitekin hitzegitea zela onena. Arazo hori oso larria izanik ere ez nion inoiz, inola ere, atzekaldea eman behar: «Gogorra da baina hala edo hala aurrera jarrai, ekin, baina inoiz ez etsi». Hau izan zen Saioak utzi zidan aholku baliotsuena.

Lilulaturik ninduen neska hark. Bazirudien hura ni baino askoz nagusiagoa zela, esperientzi gehiago zituela bizitzan. Egia esan, hala zen. Nik jaiotzetik guztia izan nuen nire esku. Ez zitzaidan ezer falta izan... maitasuna ezik edo, gutxienez, ni entzuteko prest zegoen norbait.

Saioa zen nire lagun mina. Berari kontatzen nizkion nire arazo, atsekabe, nire penak. Neure buruari Saioa bezalakoa izan behar nuela esaten nion. Beno nire izakera eta ideia propioekin baina hark zuen heldutasunarekin.

Ez, inoiz ez nintzen berak erakutsiriko zulo sakon hortan sartuko.

Hamasei urte bete nituenean atera ninduten eskola hartatik. Saioa bertan gelditzen zen. Elkarri eginiko promesak, buruturiko amets, ilusioak bertan gelditzen ziren. Oroitzapenak ekarri nituen nirekin, beti ere mundu bitxi honen giltza ene barrenean eramanaz. Ez nuen nire laguna gehiago ikusi bere irudia noiz-nahi, nonnahi nirekin badaramat ere.

Etxean gurasoek eskuzabalik jaso ninduten. Lehenengo hila betean dena ongi joan zen. Bazirudien guztia nire alde zegoela.

Guari laudorio apal bat egin ondoren oheratu nintzen. Bazirudien ilargia ximeltzen zegoela, laino grisek estaltzen zuten. Ekaitz bortitz bat hurbiltzen zela nabari zen. Noizbehinka, doidoi, izar bat edo beste ikusten zen emeki-emeki mintz hits haren artetik bere dirdir sutsua azaltzen zelarik. Isiltasuna, isiltasun lodia, hain zen lodia ene eskuaz ere uki nezakeela.

Gau hartan nere ohean nengoen loak hartu ezinik. Bapatean garraxi bat entzun nuen, deitore garratz batek jarraitu zion. Ikaratu egin nintzen, ez nekien zer zen. Oihuak itxura hartzen joan ziren. Aita eta ama ziren bata besteari garraixika. Ez nekien zer zen, zergaitik baina, dena dela, eztabaida gogor bat zirudien. Orduan ez nion garrantzi handirik eman. Ohizko haserre bat izango zela pentsatu nuen. Ez zen, ordea, hala izan. Gauero ematen ziren.

Eta egun baten amak alde egin zuen.

Orduan hasi zen guztia. Etxean ez aitak ez eta amak ere, ez zidaten ezertxo ere esaten. Haur bat banintz bezala tratatzen ninduten. Oso mindurik sentitzen nintzen eta inoiz baino bakarra. Denbora asko nuen pentsatzeko, gehiegi. Aitak edariari jo zion. Ez zizkidan nire arazoak entzuten ez eta bere atsekabeak kontatzen.

Nere bakardadean Saioaren hitzak entzuten nituen: «...aurrera jarrai, ekin, baina inoiz, inoiz ez etsi». Nolabaiteko animoak ematen zizkidan.

Buelta bat ematera irten nintzen egun hartan lagunak egin nituen. Ez zen, ordea, laguntalde aproposa izan. Hainbat aldiz txarra dela entzuniko munduan murgildurik zeuden. Poliki-poliki ni neu ere erori nintzen.

Haseran kuriositatea izan zen, nolabait pertsona heldua nintzela frogatzeko ondoren (zer nolako tuntuna), gozamina gero eta menpekotasuna azkenik.

Ezin dut esan inoren errua denik azken batean ni neu izan bait nintzen aurpegia ematen jakin ez nuena. Koadrilan arnasten zen

giroa ikusirik alde egin behar nuen, beste jende mota batekin erlazionatu. Honekin ez dut esan nahi haiek «txarrak» edo zirenik, ez eta gutxiago ere, oso jatorrak ziren. Adiskidetasunaren esanahia ezagutzen zuten eta saiatu ziren niri drogen munduko ateak ixten. Nire errua da zeharo ez beste inorena.

Oso deprimitua nengoen. Bizitzak ez zuela ezer balio iruditzen zitzaidan. Morala hanketan nuen, lur jota sentitzen nintzen. Topatu nuen lehen irtenbidea drogaren mundua izan zen. Maskaraturik datorkigun heriotz mundua. Konturatu orduko barruan zaude, joku horren partaide bat gehiago zarelarik.

Hain da polita haseran! Horren ederki uzten zaitu! Mementu batez mundu honetatik kanpo zaude, toki zoragarri batetan. Badirudi zu zarela biztanle bakarra, zuk zeuk burutzen eta egokitzen dituzula inguru eta pertsonai desberdinak. Amets bat da, ordea, inkontzienteki sortzen dugun zerbait ezberdin, bitxia. Baso ilun baten itxura du, zuhaitzez hornituriko baso bat. Bertan galtzea, betirako gelditzea ezinezkoa egiten da, bai...

Leihotik kanpora so ilunaren arnasa entzuten dut, ikusten dut. Gauaren beso beltzek nire gorputza hartu dute, nonora daramate. Nora? Ez dakit, ez dakit nora.

«...Gurasoei ez nien ezer esan. Inoiz ez genuen konfidantza gehiegi izan. Ama beste tipo batekin zebilen eta gutxitan ikusten nuen. Aitak, bestalde bazituen bere arazoak. Bazuen nahiko lan bere «espetxetik» irteten. Zertarako kontatu behar nizkion nire «rolloak»? Ez, nik neuk askatu behar nuen geroz eta gehiago hondoratzen bultzatzen ninduen harriaren soka. Nire buruari oraindik zerbait balio nuela frogatu nahi nion. Ez nuen etsi behar, Saioagatik. Lagun hark orain ikusiko banindu...Lotsaturik sentitzen nintzen. Gaztetan eginiko promesak, izaniko ametsak...nonbait galdu ziren. Hartu nuen bidea hanka azpian puskatzen zen zeharkatzen nuen heinean. Atzerantz begiratzean ez nuen ezer ikusten. Hutsune soil bat, hutsa, ezer ere ez. Bueltatzerik ez zegoen.

Gaztea naiz oraindik. Hemezortzi urte besterik ez ditut. Bizitza osoa aurretik. Denborak ordu, minutu eta segunduak nola xurgatzen dizkidan ikus dezaket, ordea.

Zeinen injustoa den bizia!

Sarritan exeri izan naiz gelako ispiluaren aurrean. Zilarbizi horren isladak beti beldurtu izan nau. Bera da egia osoa dakiena. Geure begiekin batera elkar joku batetan aritzen dira azken batean irudiaren dimentsioa bikoiztuz. Zeren...Ez, ez dut ulertzen. Ea, kontaiezadazu zerbait. Ez. Alperrik al da? Ezin ote da zure/nire ahotik mintzo berezirik eriten? Izan ere nire buruarekin ari naiz. Eroturik al nago? Aspergarria da. Egun batetan zure aurrean beste ispilu bat jarriko dut. Mugagabeko irudi iturri bat litzateke. Ez da hala? Ispiluaren ispilua eta horren ispiluaren ispilua eta beste bat gehiago, bi, hiru, infinitu. Zuri ere indarrak agortuko zaizkizu. Aspertuko zara.....

Udazken goiz hartan ezagutu nuen Iker. Haizearen txistu finak kanta goxo bat xuxurlatzen zuen nire belarrietan; zuhaitzetatik eroririk hostoak, hosto horiskak, kulunkatzen zituen, hara eta hona bere beso arinetan eramaten, dantzazaten. Behelaino sarkor batek estaltzen zuen herria, nire herria, tartean batzutan hutsune zurrunbilotsuak eratzen ziren.

Ni bertan, enparantzan, nengoen eserita, nire pentsamenduetan murgilduta. Begiak irekita banituen ere ez nuen ezer ikusten. Jendea aurretik pasatzen bazen ere bazirudien bakarrik nengoe-la, herriko biztanle bakarra nintzela, munduan zegoen puntu beltz bat.

Ez dakit nola, noiz eta zergatik baina han, parean, mutiko bat zegoen jezarrita. Ez nion garrantzirik eman. Nik nire munduan jarraitzen nuen. Hura ere han zegoen hosto artean, lanbro artean, bakardade pausatuan.

Bizpahiru minutu egon ginen ixiltasunaren hotsa entzuten, iluntasunaren argia ikusten. Giro erotikoa hartan barreiatzen zen erle-ezti goxo, lodia elkar usaintzen, dastatzen.

Gure begiek elkar begiratzen zuten. Hitzez esaten dena dizdira bereziz beterik zegoen ikusmen-zentzuek zerioten erakartasunaren poderioz. Bazirudien betidanik ezagutzen ginela.

Enparantzan bi pare begi.

Begi urdin,

berde,

gris,

beltzak,

begi goxoak.

Ez nengoen ni, ez zegoen bera.

Han bi pare begi zeuden begiratuz, hori bai.

Asko lagundu zidan Ikerrek. Saiatu zen ni sendatzen, bizia jarri zuen hortan. Ia lortu genuen. Gau eta egun nire alboan egoten zen, ez ninduen uzten. Batzutan haserretu egiten nintzen. Askatasuna behar nuela esaten nion. Askatasuna, zeinen hitz abstraktoa. Orain ohartzen naiz. Hori zen, hain zuzen ere, Ikerrek eman nahi zidana. Eztabaida batetan oso gogor jarri nintzen, ezin nuen gehiago jasan. Gorputzak zerbait eskatzen zidan, betikoa. Etxetik aldegin nuen berriro ere «laberinto» mugagabe hortan sartuz.

Ez nuen Iker gehiago ikusi. Maite nuen, behar nuen. Orain ohartzen naiz.....»

Ez ditut idatzi gehiago aurkitu. Ez zuen bukatzeko denbora izan. Azkar, oso azkar ikusi zituen heriotzaren begiak. Goizegi iritsi zitzaion bidai luze horretan eramango duen trenaren biletea.

Orain ni nago hemen, geltokian. Nire orduaren zai. Ez dago inor ez eta ezer, ez anden, ez tren, ez estazio, ez lehiatilarik, ezer. Nik hemendik han, urrutian, nonbait, puntu bat dakusat, puntu beltz bat. Udazken goiz hartan hosto artean, haizeak beso arinetan kulunkatzen zituen hosto horiska artean, eseririk zegoen neskatxaren itzala....



Guillermo Arriola
(B. maila 3. Saria)

Menopausia?

Egunero bezala... Bere bata zaharra jantzi zuen, ia kolorea ezagutu ere ezin zitzaion bata larrosa bat, gainera ez zuen rojotasen gariz eta non erosi zuen, sartuta honetaz... gogatik irien zen... Logelako ate ondoan unia zuten etxeko zapatik jantzi eta duncian komunerantz zuzendu zen. Beharrik egin ondoren, ispiak begiratu zuen ber... Beziak erdi... nahastuta izan arren, Gutzaneri... trairindik; zertara on sailaren hogeitabosteg berrogeitamar urte bete behar bazituen ere.

Gogogabeurik dagoen norbaiten ibilkeraz sukaldarantz abiatu zen. Bere senar Agustin-entzat gosaria prestatu zuen, gosaria eta bazkaria zenbat aldiz prestatu ote zion pentasuzen zuzen bitartean. Erantzuna berak ere ez zekien, baina zihur zekiena zera zen: Agustinek berari sekula ez ziola janaririk prestatu. Kafea egin, emes beru eta galletak eta gurina aterata mahaiaren atzi zituen.

Une horretan Agustin zartu zen sukaklean, oraindik lanegiko buzoa zeharo loru gabe zuela. Gutzaneri egunonak eman zitzaion



Guillermo Artola
(B. mai 3. 2014)

Menopausia?

Menopausia?

Egunero bezala, Goizane zazpitan iratzarri eta jeiki zen. Bere bata zaharra jantzi zuen, ia kolorea ezagutu ere ezin zitzaion bata larrosa bat, gainera ez zuen gogoratzen noiz eta non erosi zuen, sarritan horretaz pentsatu bazuen ere. Zaratarik atera gabe, logelatik irten zen bataren gerrikoa lotzen zuen bitartean. Logelako ate ondoan utzita zituen etxeko zapatilak jantzi eta ilunetan komunerantz zuzendu zen. Beharrak egin ondoren, ispiluan begiratu zuen bere burua. Begiak erdi itxita eta ilea nahastuta izan arren, Goizanek ez zuen bere xarma galdu oraindik; zetorren otsailaren hogeitabostean berrogeitamar urte bete behar bazituen ere.

Gogogabeturik dagoen norbaiten ibilkeraz sukalderrantz abiatu zen. Bere senar Agustin-entzat gosaria prestatu zuen, gosaria eta bazkaria zenbat aldiz prestatu ote zion pentsatzen zuen bitartean. Erantzuna berak ere ez zekien, baina zihur zekiena zera zen: Agustinek berari sekula ez ziola janaririk prestatu. Kafea egin, esnea berotu eta gailetak eta gurina aterata mahaian utzi zituen.

Une horretan Agustin sartu zen sukaldean, oraindik lantegiko buzoa zeharo lotu gabe zuela. Goizaneri egunonak eman zizkion

masailean muxu bat emanaz. Ondoren Agustinek irratia piztu zuen eguraldi eta notizien berri izateko.

Horrela, elkarri noizbehinkako begiradak botaz, hitzegin gabe, gosaldu zuten. Bukatu ondoren, Agustinek gero arte esan eta alde egin zuen.

Agiriko arrazoirik gabe, Agustin joatean, Goizanek sekulako lasaitasuna sentitu zuen bere barnean; azken aldian gero eta nabariago zuen lasaitasuna.

Oraindik ez zuen gosaria amaitu, baina goserik ez zuenez, marmol txurizko askara bota zuen gelditzen zitzaion kafe hondarra. Agustinen katilua jasotzera zioanean, sabeleko min izugarri bat etorri zitzaion goralariarekin batera; berak arrazoa bezekien, baina Agustini ez zion oraindik ezer esan: bere adineko emakumeetan ohizko den Menopausia igarotzen ari zen azken egunotan. Gorputza ahul zuen eta burua pentsatzeaz nekatua, izan ere, bere gorputza zahartzen ari zela pentsatzen zuen. Gainera, beretzat une hau askoz larriagoa zen edozein emakumerentzat baino, zeren ezkondu zirenetik seme bat eduki nahi izan zuten arren, oraindik ez zuten semerik izan eta aukera hau galdua zuela pentsatzeak asko tristetzen zuen. «Fecundación in vitro» delakoagan behin baino gehiagotan pentsatu zuen, baina azkenean ongi ausnartu ondoren, atzera egiten zuen; orain dena galduta zuen.

Komunera heldu bezain laster goraka egin zuen. Irten zenean zeharo lasai zegoen. Ez zuen horrenbesteko minik jasan besoa olio berroz erre zuenetik; berak hamar urte zituenean sutan zegoen sartagina besoaz bultzatu eta olio gainera erori zitzaion, nagusiki, eskua ezik, beso guztia erre zuen. Gaur egun ere, zenbait orbain ageri zitzaizkion besoan.

Sukaldera joan eta garbiketa egin zuen une batean, gero lanera joan behar bait zuen. Logelako armairua ireki zuen eta bere bost soinekoetako bat aukeratu eta jantzi zuen; agerian zen ez zirela soineko berriak baina Goizanek atsegin zituen.

Izan ere, erosi zuen azkeneko soinekoa duela lau urtetakoa zen, iloba baten lehen jaunartzera joan zenekoa. Ondoren, zegoeneko zuritzen hasia zen ile luzea orraztu eta etxetik atera zen.

Lanerako bidean, dendetako erakustokietan zeuden jantziak ikustea atsegin zuen, beretzako egoki ez zirela pentsatzen zuen arren, bere burua loditzat jotzen bait zuen; eta are gehiago, ezin zituen horrenbesteko dirutzak jantzitan xahutu bere burua kale gorritan ikusi nahi ez bazuen. Etxebizitza alokatu batean bizi bait ziren.

Lantegian, hipermerkatu batean kaxak garraiatzen lan egiten zuen, burua berotu zuen semerik ez izatearen arrazoa aurkitu nahian, duela hilabete batzuek bere errua zela pentsatzen bait zuen. Izan ere, joan zen uztailean ginekologoarekin izan zen azterketa bat egiteko, baina emaitzek adierazi zutenenez, arazoaren errua ez zuen bere gain. Honek asko lasaitu zuen, baina Agustinen gizentasuna zauritu nahi ez zuenez, ez zion ezer esan.

Lanordua bukatzean, lasterka etxera joan zen bazkaria prestatzera, Agustin bera baino hogeita minutu beranduago heltzen bait zen zakurrak baino gosetuago. Ohi zuen baino lehenago iritxi zen Agustin; zeharo jota zegoela zirudien. Bietako inork ez zuen ahoa ireki eta bazkalordu guztia irratia entzuten igaro zuten. Azkenik, isiltasun horma hura hautsi nahian, Goizanek lantegiko berri eskatu zion, istorio horiek entzutea ez bazuen atsegin ere. Ez zuen erantzunik jaso. Berrito errepikatu zion galdera. Oraingoan, nekatua zegoela eta ez zuela mintzatzeko gogorik erantzun zion. Honek Goizane larritu zuen, Agustinek beti bait zuen istorioren bat kontatzeko. Orduan ea gaizki sentitzen zen galdetu zion, Agustinek ezer ez zela erantzun ziolarik, nekatua zegoela besterik gabe.

Bazkaldu ondoren, Agustinek agur esan eta lantegirantz abiatu zen. Goizane harrিতa zegoen, Agustinen aita hil zenetik ez zuen horrela ikusi eta; izan ere, Agustinen aita eta Agustinen artean lotura sakon eta indartsu bat zegoela bistan zegoen.

Nahiago zuen Goizanek horrelako harremana izango balu Agustinekin, zeren azken hilabeteetan bien arteko harremanak poliki-poliki hozten zihoazen: Agustinek gero eta denbora gutxiago igarotzen zuen etxean, gero eta gehiago edaten zuen eta Goizanerekin ez zuen inolako gai interesgarriez hitzegiten. Hori dela eta, beren ezkontza arriskutan ikusten zuen Goizanek.

Burutapen hauek ausnartzen zegoela, lo gelditu zen, besoak, burukoa balira bezala, gurutzatuta zituela. Amets egin zuen baina esnatu zenerako burutik alde egin zion ametsak, gai garrantzitsu bat zuela nabari bazuen ere bere barnean. Aulkitik jeiki zenean, sabeleko mina itzuli zitzaion, lehen baino indar handiagoz gainera eta goralarriekin batera. Lasterka komune-rantz joan zen, bidean ia erori zelarik. Goraka egiten zuen neurrian, sabeleko minak alde egiten zion. Lasaitu eta baretu zenean, ohean sartu eta bi orduz geldi-geldi egon zen. Ez zuen ulertzen nola egiten zitzaion hain mingarri beste emakume batzuk hain eroso igarotzen zuten bizitzako atal hura. Baliteke bere egoera sikiko neketsuak arazoa gehiago mingostea, baina ez zegoen zihur, ez bait zuen medikurik ikusi arazoaz mintzatzeko. Une horretan, ginekologoarena joatea erabaki zuen, menopausiari edo, berak zioen bezala, arazoari aurre egiteko. Ohetik jeiki, dutxatu eta telefono dei baten bidez, arratsalde hortarako zita bat lortu zuen.

Ginekologoaren kontsultara heldu zenean zalantzan ibili zen, sartzeko beldur izan zen baina bere barneko ahots batek sartu beharra zuela esaten zionez, esku dardarti batek atea jo zuen. Gizon ahots batek sartzeko esan zion eta hala egin zuen. Gelan zegoen erizainak aulki bat eskeini zion eta eseri zenean, aho-tsean beldurra ageri zuela, bere kasua agertu zion ginekologoari. Honek erne-erne entzun zituen bere hitzak eta isilune baten ondoren, kasu arraro bat zela eta, froga batzuk egin behar zizkiola esan zion. Gela hura utzi zuten eta goiko solairuko beste gela argiago eta txukunago batetara sartu zuten. Erizainak soinekoa

erantzeko eskatu zion eta ohetila berezi batean etzateko esan. Goizane oso urduri zegoen eta medikuak lasaitzeko eskatzen zion arren ez zuen emaitzik lortu, beraz, lasaigarri bat eman zioten. Goizaneren uteroa aztertu ondoren, ginekologoak ez zuen aurpegi onik jarri, berari ez bazion ezer ere esan.

Gela hura utzi eta beheko solairura itzuli ziren berriro, baina oraingoan beste gela batetara: X izpien gelara hain zuzen ere. Lasaigarria zela eta Goizane ez zen ezertaz ohartzten. Gela hartan bi edo hiru radiografia atera zizkioten, eta ondoren, suspergarri bat eman eta biharamonean itzultzeko eskatu zioten.

Etixerako bidean burua argituz joan zitzaion eta heldu zenerako oso ongi sentitzen zen. Afaria prestatu zuen eta Agustin heldu zenean, biak afaltzen hasi ziren. Oraingoan, Agustin nahiko alai zegoela iruditu zitzaion eta poztasun hau ez itzaltzearren, ez zuen ezer esan ginekologoari buruz. Afaldu ondoren, telebista ikusi eta ohera joan ziren, bakoitza bere aldetik.

Goizaldeko hirurak arte Goizanek ez zuen lorik egin eta esnatu zenean, gorputza izerdiz bustita zuela ohartu zen, ez zekien zergaitik, baina egun berezia izango zuela nabaritu zuen goiz hartan. Egunero bezala, Agustini gosaraia prestatu eta alde egin zuenean, lanegiten zuen hipermerkatura deitu eta ezin zuela joan esan zien, inolako agerpenik gabe. Kalera irtetzeko prestatu eta etxetik atera zen.

Ginekologoarengana joan zen. Ordu betez eztabaida beroa izan zuten, kanpoan zegoen jendeak entzun bait zuen eta ondoren Goizane, aurpegia zurbil eta begiak gorri zituela, irtetzen ikusi zuten. Etxera bidean lasterka zihoala ikusi zuten. Zenbaitzuk nigarrez ari zela zioten, beste askok barre egiten zuela. Etxera heldu zenean mediku agiri bat mahai gainean utzi eta ezer hartu gabe etxe hartatik betirako alde egin zuen.



Eguna baino lehen

Aitor Rementeria
(B. maila 3. Saria)

Eguna baino lehen

Askotan bezala, ez zuen bizirik ugaitzen; iaioiz moztu ez zuen bizirik ugaitzen. Gaur, Goizaldeko bostak izango zirela jakin nuen, atak amutzara joateko ordu hori egokiana zuela esaten bait zuen. Txoriak ere orainak esnatu gabe zaudena gogoratu zutara ateratzen ziren.

Eguna ere jaioberri... Ez zen oraindik baiete argirik sartzen ene gelako lehiotik. Sukaldeko supazterrak sortzen zuen argitasunak ordea, gorputz batzu salatzaren zutoen etxeko iluntasunaren artean.

—Gaur... hait daukat— zioen aitonaaren ahotsak.

—Niri ez zait iruditzen, eguna oso argi dator eta gainera Peiorenkin jostekotan geratu naiz —ihardetsi zuten zitak.

Eta besterik esan gabe, bere lanabesak hartzearekin batera, etxetik atera zen. Aitaren erantzuan hark harritu egin minduen. Izan ere, beti esan ohi zuen aitona oso jakintsun zela eta beti berak esandakoa bete nezala.

Honenbestez, loak bere misterioetan murgildu minduen. Nik ere badut ekaitzaren berri, baina lizasoak beti nigan izan duen erakarpenaren ondorioz, ferriro ere, beregana narama.



Aitor Rementis
(8. maila 3. Sarria)

Eguna baino lehen

Askotan bezala, aitaren musuak esnatu ninduen; inoiz moztu ez zuen bizar ugariak sorturiko hazkuraren ondorioz. Goizaldeko bostak izango zirela pentsatu nuen, aitak arrantzara joateko ordu hori egokiena zuela esaten bait zuen. Txoriak ere oraindik esnatu gabe zeudenean, aita eta osaba arrantzara ateratzen ziren. Eguna ere jaioberri zenean.

Ez zen oraindik batere argirik sartzen ene gelako lehiotik. Sukaldeko supazterrak sortzen zuen argitasunak ordea, gorpuztu batzu salatzen zituen etxeko iluntasunaren artean.

—Gaurkoagaitik utzi zazu, ekaitza izango denaren susmoa bait daukat —zioen aitonaren ahotsak.

—Niri ez zait iruditzen, eguna oso argi dator eta gainera Peiorekin joatekotan geratu naiz —ihardetsi zuen aitak.

Eta besterik esan gabe, bere lanabesak hartzearekin batera, etxetik atera zen. Aitaren erantzun hark harritu egin ninduen. Izan ere, beti esan ohi zuen aitona oso jakintsua zela eta beti berak esandakoa bete nezala.

Honenbestez, loak bere misterioetan murgildu ninduen.

Nik ere badut ekaitzaren berri, baina itsasoak beti nigan izan duen erakarpenaren ondorioz, berriro ere, beregana narama.

Portuan, nahiz eta oraindik eguna ez argitu, untzian dagoen argiaren laguntzaz anaiaren irudia bereiz dezaket.

Herriko kale maldatsuetan barrena noalarik, behin eta berriro lauxarekin topo egiten dut, askotan oreka galdu eta lurrera erortzeko arriskuan izan naizelarik. Nirekin, zenbait sare, buia batzu eta egunerako janaria daramatzat.

Herria lo dago, bakean, isilik. Ez dut inor ikusten kale estuetan zehar. Egunez jendez beterik izaten den enparantza ere bakarti. Erdian duen haritzeko txoriak, dirudienez, oraindik lo daude, ez bait dut inolako txorrotxiorik entzuten.

Azkenik iritsi naiz portura. Untzian, Peio nire zain dago egurrezko kutxa baten gainean eserita.

Peio anaia nagusi eta bakarra dut. Garaieraz luzea, bere sorbaldak zabalak dira eta beso eta oinak zaldi batenak bezain indartsuak. Aurpegia inguratuaz, ilea eta gaua bera bezain iluna den bizar motz baina ugaria. Begiek, beti bezala, herrian ikusi dudan tristetasun berbera isladatzen dute. Izaera ere argi erakusten du begiradak, uso bat bezain baketsua. Ezkerreko begiaren gainean, bekaina bi zatitan bananduz orbain txiki bat, gazetetan egin zuena. Pipa erretzen dago, denbora-pasa dagoenean egin ohi duen bezala.

—Bostak aspaldi jo dituk hi, zer gertatu zaik? —itaundu dit anaiak bere ahots leun eta atseginaz.

—Aitari ez zaio batere atsegin gaur arrantzara joateko ideia —erantzun diot ia ez entzuteko moduan, bera ere aburu berdinekoa izango denaren beldurrez. Baina zorionez Peiok ez du ezer esan.

Berandu gabiltzala eta berehala abiarazi dugu untzia. Izarra II.-a, I.naren kopia hutsa da. Lehena nire aitonarena izan zen. Bigarrena ordea, aitak egin zuen lehena zaharregia zelako eta berak arrantza uztean, nik darabilt Peiorekin batera, gero Patxik jarauntsiko duen bezala. Izarra II.-a ez da oso handia, baina, gure lanetarako tokia soberan izaten dugu. Kanpotik urdina da. Ka-

bina untziaren erdian kokaturik, orlegia leihoetaraino, eta zuria gainontzeko guztia. Barnean, lema, irratia eta nabigatzeko beharrezkoak diren beste zenbait tresna. Brankan, arrainak gordetzeko kutxa mordo bat eta popan motorea. Bietan zutoin bana sareak bildu edo zabaltzeko.

Peiok untzia askatzen duen bitartean, motorea piztu dut. Dena ongi dabil.

Portutik ateratzen ari garela, eguzkiaren lehen izpiek hodeiertza agertzen digute. Bestaldean, herriaren gaina apainduz, oraindik milaka izar eta ilargibetea ikus ditzakegu. Gaez itzultzean, ekaitza dela eta ezingo dugu horrelakorik ikusi. Untziak itsasoan sorturiko uharak, herrirako bidea agertzen digu; gero eta txikiago, urrunago daukagun herrirako bidea.

Amaren deia izan zen bigarrenkoz iratzarri ninduen:

—Patxi esnatu, eguna aspaldi hasi da eta zure eginbeharrak dituzu.

Gorroto nuen era hartan iratzartzea, baina ama ez haserretzearren esandakoa bete nuen.

Sukaldera sartzean aitona ikusi nuen supazterraren inguruan eserita. Pentsakor. Geratzen zitzaion ile urria txapela beltz batez estalia zeukan. Begiak hertsirik. Burua makur. Aurpegia zimurturik. Jaten ari zenean horren nabaria zuen dardara ere desagertua. Arnasa hartzen zuenik ere ez zirudien. Honela pasatzen zituen orduak, bere pentsamenduetan murgildurik.

Baina nik, amak ongi esan bezala, eginbeharrak neuzkan eta aitona agurtu ondoren etxetik atera nintzen.

Eguna inongo berririk gabe pasa zen, arratsaldez ekaitza hasi zenerarte.

Egun osoa itsasoan eman ondoren, etxerantz abiatzea erabaki dugu. Hiruzpalau ordu beharko ditugu itzultzeko, gaurkoan asko urrunduta bait gara.

Denbora aurrera doan bitartean, egunez izan ez dugun ekaitzaren arriskua ikusten hasiak gara. Izan ere, jadanik ikus eta

entzun ditzakegu tximista eta trumoiak, nahiz eta oraindik gulgandik urruti egon. Itsasoa ere, poliki-poliki, harrotzen hasia da.

—Azkar ibili beharko gaituk, bestela portura iritsi baino lehen ekaitza gainean izango diagu -aholkatu du Peiok.

—Arrazoia daukak. Motorea abiada bizian jarriko diat —dio Peiok arrain-kutxak plastikozko estalki batez babesten dituen bitartean.

Poliki-poliki zerua ilunduz zihoan. Laister lehen trumoiak aditzen hasi ginen. Gelako leihora atera nintzen. Herri guztia ikus nezakeen, gure etxea beste guztietatik zerbait aldendua eta gorago bait dago. Ene leihoaren parean teilatu ugari, gorri-beztuak, telebista antenaz josiak. Behekaldean portua, orduan untziz beterik zegoena. Ekaitz arriskuaren aurrean, arrantzale gehienak etxean geratu zirela nabarmena zen. Honenbestez, amaren urduritzearekin batera euria hasi zen. Poliki lehenik, baina bortizki beranduago.

Gaua gerturatzen zen heinean gero eta ilunago zegoen guztia. Jadanik ezin nuen itsasoa ikusi, eta beraz, ez geneukan untzia gerturatzen zen ikusteko modurik. Ekaitza gero eta gogorragoa zen. Trumoiaren zarata burrunbatsuak izutu egiten ninduen. Tximistak zerutik itsasoraino abiada bizian hedatzen ziren, sortzen zuten irudiarengaitik zuhaitz baten adarrak ziruditelarik. Lainoak nigar egiten ari zirela iruditzen zitzaidan. Trumoiak uzten zutenean, malkoen soinua edonon nagusitzen zen, berauek bustitako inguru guztiak distira berezi bat irabazten zutelarik. Paisaia erabat tristea, iluna, hotza zen.

—Ba al datoz Patxi? -itaundu zidan amak urduri, gauza bera esaten zuen laugarren aldia zelarik.

—Ez, baina laister etorriko dira-nioen nik amaren egonezina lasaitu nahian, nahiz eta ala izango ez zenaren beldur izan.

Aitona lasai. Niri behintzat hala iruditu zitzaidan, berea zuen betiko jarreraren bait zegoen.

Amaren urduritasuna hain zen handia, non portura jeistea erabaki zuen.

—Zu portuan izan gabe ere, berdin-berdin etorriko dira —ihardetsi zuen aitona, portura jeistea sentzugarrikeri bat bait zen.

Baina amak jaramonik egin gabe, zira jantzi eta etxetik atera zen. Ni berarekin joan nintzen, amaren urduritasuna kutsatu baltzait bezala.

Porturako bidean, osabaren etxetik iragatean izeba Karmeni dei egin genion, bera ere portura jeitsi zelarik.

Ama eta izeba Karmen portura joan ziren, ni farura nihoan bitartean. Bertatik, beronen argiaren bitartez, itsasoaren ikusmira hobea nuelarik. Ezkerraldean, portuan, ama eta izeba ikusten nituen, itsasora so eginez, Izarra II.na noiz agertuko zain. Eskumaldean, itsaslabarra neukan. Bertan, olatuek haitzak bortizki erasotzen zituzten, lurrari zati bat lapurtu nahian. Izugarriko olatuak ziren, haitzekin topo egitean zarata beldurgarria sortzen zutelarik.


Beldur nintzen, aita itzuliko ez zenaren beldur nintzen.

Ekaitza gainean daukagu. Itsasoak Izarra II.na paperezkoa balitz bezala darabil. Olatuak gure untzia baino bost aldiz handiagoak dira. Inoiz baino izu gehiago sentitzen dut. Nik badakit, eta baita Peiok ere, amaieraren hasiera dela. Oraingoan onik aterako ez garen beldur naiz. Itsasoa zoratu egin dela iruditzen zait. Gainera, guzti hau gutxi balitz bezala, sekulako haizea dago. Peio eta biok begiradak gurutzatzen ditugu, beldurra adierazten duten begiradak. Badakigu gertatzera doana gure bizitzaren amaia izango dela.

Gau hartatik aurrera ez dugu aita eta osabaren berririk izan. Izarra II.a ere ez da inon agertu. Ama ere ez da egun haietako berbera, aitaren desagerpenak guztiz hondatu du. Eta guzti hau gutxi balitz, aitona duela bi urte joan zitzaigun bihotzekoak jota.

Guzti hau, nik zortzi urte nituela gertatu zen. Gaur hura alau daukai eta oraindik, naiz eta jendeak aita eta ovaba hil da dau dela esan, inoiz gertatu... europen daugar.

Bestalde, amareta la... zuzen jira portuan, ino... kluzko eta den ai.



Alberto Auzategi
(C. maila I. Saria)

Larunbat batez...

Larunbat batez...

...Azken garagardo honek garraztasun berezi bat utzi dit ez-tarran. Zer dela eta edango nuen honenbeste? Dena dela, zorabio hau lagun dudala, kale ilunean zehar murgilduko naiz, inori ezer esan gabe, begirada bat nahikoa izango da. Zerbezalata ximurrari ostiko bat, aurrean dihoan bikoteak atzekaldera begirada inkisitiboa, larunbatero gauza ber-bera.

Eskuak poltsikora, etxeko giltzak batean, bostehuneko ximurra eta txanpon batzuk bestean, baita ere inoiz erabiltzen ez dudan musuzapia. ITOIZ TXIBISTON. 300 PEZTA SARRE-RAK. Nori axola hori. Tabernako pertsiara jeisten ari da, azken «basurdeak» kanpora ateratzen dira. Norbaitek zerbait esan dit. Irrifar bat egiteko trebetasuna dut, ze mihiaren loditasunak ez bait dit ezer gehiago egiten uzten. BOIKOT PRODUKTU FRANTZESEI. Ez dut ba «Cointreau» gehiegirik edan, ez eta «Kronenbourg»-ik ere. Badirudi kriston abertzalea naizela.

Ezkerraldean iturri bat somatzen dut. Gau guzia edaten eta egarri izateak harrituta uzten nau. Agua no potable / Ur kutsatua. Ez dit ba martini zuri batek adina kalte egingo.

Berriz ere kale ilunean barna abiatzen naiz. Lurrean denboraren eraginaz marra zuzen bat sortu da eta hau jarraitzen saia-

tzen naiz inork igarri ez dezan nire barnean, zainetan barrena, irristatzen den alkohola.

Eskerrak plazara heldu naizen. Bazirudien gero eta hurbilago sentitzen nituen kaleko hormek ito egin behar nindutela. Kanpandorreko erlojuan bostak hamar gutxi eta udaletxeko arkupe-tan munizipala niri so. «Bai, bazekiat zer pentsatzen ari haizen. Ez diat itxura onik, bazekiat, baina hi ere parregarri hago. Ba-dirudi Stallonek hire ondoan ez duela zeregin handirik».

Etzerako falta diren metro gutxi hauek automatikoki egiten ditut. Giltzak poltsikotik atera, kaka zaharra, inoiz ez dut asma-tzen. Norbaitek kontatutako txiste bat burura datorkit. Azkenean zabaldu dut portaleko atea. Lehen eskilarak igotzen hasi eta ate danbada. Onezkero ama konturatuko zen. Hau egonezina. Igo-gailuaren zai egoteko astirik ez. Azkenengo eskilarak binaka, hirunaka, auskalo nola. Atea nola edo hala ireki, komuneko atea, argiak ia itsutzen nau, hau gozamina. «Pixalarriaren sufrimen-duak badu ere bere saria». Pentsalari ospetsuren batek nahiko luke esaldi hau berea izatea. Benetan jenio bat naizela pentsatzen hasia nago.

Erropa erantsi, pijamaren goi partea alderantziz jantzi eta ohera. Bihar, goizean goiz, mendira joango naiz. Ezin dut doinu hau burutik kendu. Elizako kanpaiek bostak jo dituzte. Norbait-tek geldituz dezala lanpara alu hori.

...Beti izan zara odol berokoa, baina honako hontan zure onetik guztiz atera zara. Aitonak zioen bezala, inpernuko etsaiak izorratu zaitu. Ferminek esana dizu askotan. Mutil, burua erabil ezak, ez bihotza. Musean hordagoka ibiltzerik ez diagok. Hordago! Nahi! eta legazpiar bikotearen irriparrea bi errege eta sotekoa ateratzerakoan. Txarrena zera zen, hamarreko bakarra falta zitzaizuela.

Besoko zauriak min ematen dizu eta bertatik darion odolak errekatxo bat sortu du, lurrean zerraldo dagoen goardazibila-renarekin nahastera dihoalarik. Bestea zure hankartean dauka-

zu, masaila more-more, konortea galdurik. Zertxobait harago «Txiki» zure txakur lehiala, lokatzartean odoleztaturik.

Betidanik izan duzu gustoko igande goizetan, eguzkia irten aurretik, oilagorretara joatea. Gero, bordaren batetan gosald, baserrian erropaz aldatu eta hamaiketako meza entzun, lagune-kin beltz batzuk edan eta bazkaltzeko.

Orain guztiz izutua zaude. Nork sinetsiko dizu gertatutakoa? Don Eusebiok euskaraz hitzegiteagatik jotzen zintueneko izu berbera sentitzen duzu. Alde egitea nahi duzu: zuhaitzen adar-rak, hostoak, alderatuz mendian gora abiatzen zara korrika bi-zian. Bihotza lehertzekotan daukazu baina zure oinek ihes egitea nahi dute.

Goardazibil hark seko utzi zuen «Txiki». A ze barre egiten zuten biek ardaska artetik bapatean irten eta izutu zituen hura txakur zistrin bat besterik ez zela ikustean. Dena dela, eta badaezpada, zer zen ikusi baino lehen tiro batez bertan akatu zuten.

Odol asko galtzen ari zara eta patrikan duzun zapia besoan lotu eta estutzen duzu odol gehiegi irten ez dadin...

Hau egonezina! Urdailean izugarrizko zastadak sentitzen hasia naiz eta ezpainetan jario heze eta mikatz bat igartzen dut. Tira! Hau bakarrik falta nuen. Kirats hau jasanezina da. Zer ordu ote da? Bost terdiak oraindik. Dutxa hotz bat hartu eta kalera noa.

Eguzkia berehala irtengo da eta iluntasunak eskeintzen dizun babesa lehen argi printzekin desegingo da. Sabelean zerbait sentitzen hasia zara, urduritasunak eragindako egonezinak sor-tzen dizun ondoeza. Jasanezina zaizu egoera hau: inongo kul-parik gabe zer nolako arazoan aurkitzen zara! Goardazibil hark «Txiki» akatu izan ez balu... Zure buruaz kupida sentitzen duzu eta malko bat datorkizu begira, masailetik irristatzen ausartzen ez dena, baina ikusmena lausotzen dizu. Noizdanik ez duzu ne-gar egin? Txikitan negarti hutsa hintzen. Dena dela, zure bizi-tzako urteak pilatzen joan diren heinean ernatzen zihuan heldu-tasunak zure malkoak agortu ditu. Amak esaten zizun legez,

negarrak barruan ditugun ustelkeriak ateratzen ditu. Horregatik umeek ez dute bekaizkeriarik, ez eta gorrotorik ere, zeren agertu bezain laster malkoz-malko desegiten bait dituzte...

Oraindik ilun dago eta noraezean nire oinek plaza aldera jotzen dute. Esku biez ile bustiak atzerantz botatzen ditut. Nire pausoen hotsa kaleko hormetan, batetik bestera, hiruzpalau aldiz errepikatzen da. Aurreraxeago katu batek zabor batzuk miazkatzten ditu, une batez niregan pausatzen ditu bere beirazko begiak eta, bapatean, kotxe baten gurpil artera ihes egiten du babes bila.

Espaloiko laukitxoetan puntu beltz batzuk ageri dira, gero eta gehiago. Tanta bat nire kolkotik irristatzen da eta hotzikara batek gorputz guztia astintzen dit. Instintiboki nire pausoak arindu egiten dira eta aterpe bila elizako arkupeetara jotzen dute. Iluntasunak estaltzen dituen arkupeetako txokoei pixa-usaina darie. Iguingarria. Beraz, haiengandik urrun dagoen eserleku bat aukeratzten dut nire gorputz nekatuak atsedean har dezan.

Eskuak hotzak ditut eta jadanik ere ipurdia hozten ari zait harri gainean. Egunkari bat banu bederen, baina oraindik goiz da egunkaria erosteko. Goiz...paradoja bikaina... etxera goiz bueltatzeko esan zidan bart amak...

Ur tantak lurraren kontra bortizki amiltzen dira beraien buruaz beste egitea nahi duten kamikazeak bailira eta plaza guzia pixkanaka desegiten den lurrun batez estaltzen da. Guzti honek oroitzapen gozoak dakarzkite burura. Txikitan atsegin nuen nire aurpegia beirera hurbiltzea eta arnas beroak uzten zuen lurrinean eskuaz marrazkiak egitea. Baita ere, gogoko nuen aiton-amonen baserrira nindoanean, euria egin eta gero, atertzen zuenean, zelaietan oin-hutsik ibiltzea, belar heze usain hura biriketan barna nabaritzen nuela...kriston logurea sartzen ari zait...

«Aizu, Agustin! Herrira jeitsiko al zara eta aitarentzako botika ekarriko al duzu? Ahal bezain prestu ordainduko diegula esan, uzta jaso eta diru apurtxo bat dugunean». Inoiz ez zenuen zure aita sano ezagutu. Gaztetan haizkoraz eta trontzaz oso tre-

bea omen zen, baita pelotan ere. Baina zu haur bat zinela gaitz batek jota gerritik behera elbarri gelditu zen eta zu hazi bitartean baserriko lanen zama astuna zure amak eraman behar izan zuen.

Nora joko duzu orain? Nork sinetsi zuri? «Aizu, nire burua babesteko tiro egin diot zure lagunari». «Txiki» gixajoa zure laguna zen, baina nori axola hori. A ze gustora jo diozu begi ondoan «Txiki» seko utzi eta barre algaraz zebilen zerri hari. Baina ez zenuen espero beste goardazibilak tiro egingo zizunik... Odola mara-mara dario zure besoko zauriari eta herrira joan beharko duzu sendagile batengana bertan odolustu baino lehen.

Zarata batek iratzarri nau. Tiro bat zirudien. Ametsetan ote? Ez, kanpandorreko usoak ere uxatu ditu. Baina nolatan tiro bat? Ezinezkoa da.

Kalean zenbait garraxi entzuten dira, baina, ahalegintzen baina ere, ezin dut antzeman zer dioten. Adrenalinak nire gorputzean sortzen duen erreakzioa igartzen ari naiz, eskuak izerditan ditut eta masailak berotu zaizkit urduritasunaren ondorioz. Halaz ere, ez naiz nagoen tokitik mugitzeko gauza. Kalean gora pauso hotsa, norbait korrika baletor bezala...

«¡ALTO! ¡ALTO O DISPARO!»

Hasera batetan nuen jakinmina bapatean desegin zait eta egoera hontaz ihes egitea da nire helburu bakarra. Ez dakit zer dela eta, baina zerbait gertatu behar zaidala somatzen dut, gertaera honek nire patuarekin zerikusia baduela uste dut, hobe esan, badakit. Guzi hau bigarren aldi batez bizitzen ari naizela zin egingo nuke.

«¡ALTO! ¡QUIETO, CABRON!»

Oihuak gero eta hurbilago entzuten dira. Automatikoki zutitu egiten naiz, baina badirudi ez naizela nire gorputzaren jabe ze kale aldera abantatzen bait naiz, nahiz eta nire gogoak ihes egitea nahi izan. Izerdi tanta batek bizkar guzia zeharkatzen dit goitik behera.

Bapatean gizon gazte bat agertzen da korrika eta arnas-hes-tuka. Kale ertzari buelta eman nahi dio eta inertziaren eraginaz ia oreka galtzen du, baina, berehala ere abiada osoz abantatzen da. Bere aurpegian izua eta gorrotoa nahasten dira. Iheska dator. Baina, nork jarraitzen dio? Zer egin du?

Zakur-eme bikaina zen «Bat», baina urte mordoxka bat zuen ordurako eta ezinezkoa zitzaizuen zuentzat zenuten janari apurra txakur bati jaten ematen alferrik galdu. Oraindik gogoratzen duzu zein otzankiro eskeini zizun bere buru makurra, bere patua zein zen jakingo balu bezala, zuk tiro batez bere begi melankoliatsuen bizitasuna itzal zenezan. Amak zera esan zizun: «Seme, lapikoa hutsik duenarentzat zaila da bihotz-zabala izatea». Hala eta guztiz ere, zure amak lur eman zion «Bati» eta malkoren bat txukatzen ere harrapatu zenuen egun hartan.

Une batez gizona gelditu egiten da. Bere aurpegian nekearen etsipena igartzen da. Baina, bapatean, niregan tinkatzen ditu bere begiak eta beraietan galtzailearen azken itxaropena ikusten dut. Niregana dator besoak luzaturik, babes bila, eta ulertezina zaidan zerbait esaten dit.

Tiro baten hotsak pilotalekuaren horma hezeak astintzen ditu eta niregan zetorren gizonak garraxi egiten du, nigandik hamar metrotara luze jausten delarik. Lurrean, berriz ere zutitzen saiatzen da, baina bere besoek behin eta berriz huts egiten diote. Halaz ere niregana etortzen ahalegintzen da, arrastaka bada ere. Ezpain artetik bizitza iheska doakio odol ixuri batetan eta eskua luzatzen dit bere azken indarrak erreaz.

Pairatzen ari naizen beldurraren adierazgarria da nire zurbiltasuna, baina zeinek uka diezaioke laguntza egoera honetan dagoen gizasemeari? Pauso bat aurrera egiten dut eta gizon haren esku odoloztatua hestutu nahiean makurtzen naiz. Beste tiro bat. Izugarritzko mina nabaritzen dut bularrean, berunak nire erraiak erreko balitu bezala. Bapatean, nire inguru guzia biraka hasten zait, zorabiatu nago. Eliza-atariko Jainkoaren irudia gainera

datorkit... HAEC EST DOMUS DOMINI... kristau ikasbideko liburu horixka haiek... ume batzuk, eskuak zikin, praka motzak, belaun urratuak, kanika jokoan...

Pertsiana hotsak esnatu nau. Hau kiratsa. Amaren ahotsak, mailu bat balitz bezala, nire burua kolpatzen du behin eta berriz eta eguzki izpiek nire begiak kixkal ez ditzaten maindire azpian ezkututzen naiz. «Lotsarik ez daukazu. Gaur ere mozkorturik eta ordu hoietan... gaur egungo gazteria... jaiki zaitez berehala ea izarak aldatzen ditudan... ohean botaka egitea ere... a ze pazientzi...»

Sukaldean lapikoei lurruna darie eta janari usainak leihotik ihes egiten du auzokoen oilasko eta legatzaren usain erakargarriekin nahastera dihoalarik. Aita egunkaria irakurtzen ari da eta une batez bere begiak altzatzen ditu niregan. Bere begirada zorrotzak lotsarazi egiten nau eta bere begietara begiratzeko gai ez naizenez leihora hurbiltzen naiz.

Aterri dago, baina kalean ageri diren putzuek euria egin duela salatzen dute. Atzo gaueko gertaerak gogoratzen saiatzen naiz...atzo gauekoa amets-gaizto bat izan da zorionez, baina hain erreala zirudien...

Nonbait irrati bat piztuta dute. Eguerdiko berriak ematen ari dira. «La revisión salarial ha vuelto a tensar las relaciones existentes entre el presidente de la CEOE, José María Cuevas y el de la patronal bancaria, Rafael Termes». Beti pentsatu izan dut honelako berriak hitz joko hutsak direla, inork ez diela jaramonik egiten, egunkariak betetzeko sortutako parrafadak, teleberrien estribilloa. «El cabo de la Guardia Civil José María Sánchez ha sido asesinado hoy a la madrugada en el barrio azcoitano de Madariaga, en donde los Grupos Antiterroristas Rurales procedían a realizar un rastreo en busca de un posible «zulo» en las inmediaciones. Tras el atentado, el amplio despliegue policial ha permitido la localización de uno de los miembros del comando de ETA que presuntamente ha atentado contra el cabo de la

benemérita. Tras un breve tiroteo el terrorista Agustín Izaguirre, natural de Elgoibar, ha resultado muerto...» «...asciende a tres el número de víctimas de las recientes lluvias torrenciales en la comunidad valenciana...»



Agurtzane Garzia
(C. maila 2. Saria)

Gauerdiko trenena

Gauerdiko arazoak... begira nabil nire
erlojuan, baina oraindik ez da... Hala ere, begien
bistan, kristalak hantirik dauzkan hama erloju zahar bat daukat
eta nirearekin bat dabilela dirudi. Nire irudimena da beraz esio
ta nire barreneko nire... bakari koneta...

Krisieku zehar batek arguzen da nire inguru hurbilean eta nire
begiak burdinbiñe zikin eta amaiazabetan gaitzen dira. Honun-
trago, ilunak emakume bat jakusat erdi hantitsako
zareko anik... berrina ma-
rroi bat dauzka ainean. Bete gorputz ximurtuak aultzaren for-
ma okerra hartu du jadanik eta une batetik bestera liritxi zgin eta
lurera erortzeko arriskuan da goia iruditzen zait.

Belaunerainoko beti luze ilunetan gonderik daukan hantse-
kin erritmo geldu eta pausatu bat darama baldosaren kontra, bur-
kaezinezko sarru latz eta ezatsegin bat sortuz.

Agian emakume hоек trenaren berri esan liezadako, baina
berarengana hurbiltzea pentsatzeak bakarrik ez dit onak epiten.
Dena den ...

—Barkatu, hurrengo tren zera orduan pasatzen den esango al
zenidako, mesedez?

benemérita. Tra un b... Agustín Izaguirre,
natural de Elgoibar, ... «asciende a trevel
número de ... las cruciales en la
comunidad valenc...



Agurtzane Garzia
(C. maila 2. 2010)

Gauerdiko trenua

Gauerdiko trenua

Gauerdiko azken trenaren zai, hainbat aldiz begira nabil nire erlojua, baina orratzek mugi ezinak dirudite. Halere, begien bistan, kristalak hautsirik dauzkan horma erloju zahar bat daukat eta nirearekin bat dabillega dirudi. Nire irudimena da beraz edo ta nire barreneko nahiak azkarregi doazenak gau ilun, ixil eta bakarti honetan.

Kriseilu ahul batek argitzen du nire inguru hurbilena eta nire begiak burdinbide zikin eta amaiagabetan galtzen dira. Honun-tzago, ilunetan, emakume zahar bat dakusat erdi hantsitako zurezko aulki batetan exerita. Gona beltz bat eta gabardina marroi bat dauzka soinean. Bere gorputz ximurtuak aulkiaren forma okerra hartu du jadanik eta une batetik bestera irrist egin eta lurrera erortzeko arriskutan dagoela iruditzen zait.

Belaunerainoko bota luze ilunetan gorderik dauzkan hankekin erritmo geldia eta pausatu bat darama baldosaren kontra, bukaezinezko soinu latz eta ezatsegin bat sortuaz.

Agian emakume honek trenaren berri esan liezadake, baina berarengana hurbiltzea pentsatzeak bakarrik ez dit onik egiten. Dena den ...

—Barkatu, hurrengo trenua ze ordutan pasatzen den esango al zenidake, mesedez?

—... Grrññzgr...

—Eskerrik asko eta barkatu.

Nire eserlekura ahalik eta azkarren itzuli eta berriz exeritzean lasaitasun berezi bat sentitu dut. Egia esan, estazio zahar eta arrailatu honetan sartu naizen une berberatik txoko hau egin zait gogokoen; nire gordelekutzat hartu dut. Eta zerbaitetarako zutikatzen naizen bakoitzean goitik eta beherako dardara hotz bat sartzen zait gorputzean, barruko beldur eta pirpirak kanporatzen zaizkidan neurrian. Iluntasuna ez da izan ez, sekula, nire lagunik miñena!...

Txikitako oroipen bat datorkit burura bapatean. Sararen etxean, ezkutaketan jolasten. Egurrezko eskailera batzuk igo eta ganbaran sartu giñen. Hango iluntasun eta ustel usaiak masailan eman zidan eta atzeraka egin nuen, baina bila zebilena aurki zen eta aurrerantz jo behar izan nuen. Sartu ere egin nintzen, ertzeko txoko batetara abiatuz. Begiak gogor itxi eta geldi geldi geratu nintzen, han nengoela inor kontura ez zedin. Begiak irekiz bat, laister hasi nintzen nire inguru guztia itzal beltzez orniturik ikusten.

Goi aldean hainbat gaueko tximeleta beltzen hegalek burua galdu arazten zidaten... Hala nola, bat-bateko indar sakon bati esker atera nintzen txoko hartatik arineketan eta eskaileretan behera amildu nintzen argitasun bila, begiak gorri gorri eta arnas hestuka.

Honezkero ohartu dira nire ihesteaz etxean. Amak ohi duen bezala, gaueroko sartu irtena egingo zuen nire logelan, behin eta berriz egunero frogatu behar den zintzotasuna neurtzeko asmoz. Baina oraingoan bere begi haundi eta eztiak ez zuten ohe gainean ohizko irudi maitakor hura nabariko.

Aitari deitzearekin bat, hatzamar dardartsuez argia piztu eta ohe ondoko gaumahai zaharraren gainean arrosa kolorezko sobre itxia bereiziko zuten. Ondoren aiene eta deitoreak:

—Esaten nuen nik, Joxe, neska honen jarrera ez zela azkenaldi hontan guztiz normala! Baina zuk, nire irudimenak zirela eta ixilarazten ninduzun! Ai ene ama maitea! Begira orain ondorioak! Zerbait egin beharrean gaude Joxe!...

Aitak berriz ez ditu begiak ohe gainetik kenduko. Ez zaio ahotik hitzik aterako baina arantza zorrotz baten zatzada min-korra sentituko du bere bihotz barrenean: «Ene alaba kutuna!...»

Egia esan, gurasoengandik aldentzeak nigan ere sentipen garratz bat sortarazten du. Nire aitaren begikoa izan naiz betidanik etxean. Hark nire begiez ikusten zuen eta nere bizitza zen bere bizitza.

Halere, meategiko lan gogor eta errukigabeak nire hazte eta hezitze prozesua urrundik jarraitzera bultzatu zuen. Gorputz eta izatearen aldaketaz ere ez zen ohartu: «Nere txikia!», «Nere begininia!...» Oraindik ere bere umetxoak munduan galdurik zef egin behar duen pentsatuz iragango ditu gau eta egunak, gizarajoak...

Ama, berriz, gaztetan portzelanazko pitxi bat izandakoa baina bizitzaren gordintasunak emeki emeki erabat gogortutako emakume, nola esan, takarra. Bazkaria beti prest mahaian, ohean beti maindire txuri almidonatuak eta gure ileak erabat busti eta ongi orraztuak: hori zen gure ama. Baina guzti horren ordez, noski, kexarik ez, ahulkeriarik ez... Gure etxeko sukaldean ez zegoen artearentzat edo goreneko sentimentuentzat ez leku eta ez denborarik.

Nire haurtzaroko oroitzapenik nagusienak etxeko sukaldean dauzkat. Neguko arrats ilunak su izekiaren inguruan. Kolore gorrizko sugar biziei irudi arraroak asmatzen iragaiten nuen denbora ugari. Ama leiho ondoan, eguzkiaren azken izpi ahulak aprobeitza nahian adabakiak josten. Eta haizea kanpoan, historik gabeko arramak eragiten, leiho eta ate zirrikituetatik barnera nahian.

Sutondoan nire irudimen lanak neka edo aspertzen nindue-
nean leihora zuzentzen nituen nere pausoak. Aulki gainera igo
eta ortzera so egiten; laino goibel eta beteak hatzamarrez kon-
tatzea zen nere beste eginkizun maitagarrienetariko bat.

Pauso zarata garden batzuk itzul arazi naute nire orainaldi ilun
eta latz hontara. Izualdi honek, jadanik sentitu ere egiten ez nuen
bihotza taupada bizkorrez martxan jarri dit. Alde batera eta
bestera begiratu eta haruntzagoko aulkian exeririk zegoen ema-
kume zahar hura irteera atetik galtzen bereizi dut.

Itzul nadin berriz, bada, nire oroimenetara. Honezkero laister
behar du izan trenak estazioan... Dena den, ametsari lotzen na-
tzaionean arinago iragatzen zait denbora. Gainera, nere erreali-
tate gogorra dastatzeko hainbat denbora izango bait dut geroago
ere...

Ihazko Apirilean utzi nituen nire ikasketak. Herriko dendari
zaharrienetariko batek enkarguak egiteko neska baten beharra
zuela adierazi zion amari; eta lanean lehen urratsa ematea zela
alde batetik eta etxean diru sartze haundirik ez zegoela bestetik
kontutan harturik, zuzen zuzenean eskolatik lanera bultzatu
ninduten nik hitz erdi esan baino lehen.

Egia esan, ez nuen eskola oso gogoko. Begien aurrean neukan
andere zahar aspergarri hark zerbait erakatsi zezakeen zalantza
izan nuen betidanik. Are gehiago, edozein gizon edo emakumek
beste norbaiti zerbait irakatsi ahal izatea ere planteiatzen nion
nere buru gogor eta traketsari. Bizitza bera eta kalea zirela ira-
kasleerik trebeenak sinesten nuen eta ez zidan batere axola, de-
nok horrela jokatzuz gero gure gizarte molde honek porrot haundi
bat jasango zuela pentsatzeak.

Asensio, dendako jabea, gizon on bat zen. Bere aitarengandik
herentziaz jasotako denda zahar horretan iraganak zituen bere
bizitzako unerik gehienak. Eta dendarentzat ona edo txarra ze-
naren arabera juzkatzen zuen bere inguru guztia. Denda zen bere
bizitza osoa eta sarritan, orain baino epealdi emankor eta lora-

tsuagoak jasango zituela pentsatu beharrean aurkitzen naiz, az-
kenaldi hontan lan eskariak arinki urritzen bait zihozkion.

Asensio zaharra jostuna zen. Bere aitak irakatsitako ofizioa
gaztetan ongi ikasitakoa eta bere esku trebeei esker garai batetan
ospe eta ezagupera haundia izandakoa.

Hasieran gauza gutxiatik hasi omen zen baina poliki poliki
bere lanak ezagutzera eman ziren eta eskariak ugaritzen joan
zitzazkion. Inguruko herrietako jente dirudun asko hurbiltzen
omen zen bere dendara, igandetan erabiliko zituzten jantziak
konfidantzazko jostun on baten eskuetan jartzera.

Asensio bera zorabiatu aurkitu zen, hasierako urte haietan,
nola zitekeen ospe guzti hura berarengan. Baina hala ere, ez zuen
denbora askoren beharrik izan, gainera zetorkion zorte on guzti
hura bereganatzeko.

Bere existentzia, ekonomi arloan behintzat, konpondua zuela
eta, bizitzaren beste funtsezko alderdi bat osa nahian, neska bila
jarri zen hogeitamabost bat urte zituelarik, zeinakin etxea kon-
partituko bait zuen eta batez ere, dendako lan astuna eramateko
beste bizkar bat bereganatzekotan.

Ez zuen asko bilatu beharrik izan. Herriko neska ugari zebilen
Asensio orduan gaztearen atzean. Garai hartan, halako herri
txiki batetan hain ospe handiko eta diruz ongi jositako nolana-
hiko gizon gazte batek hainbat eta hainbat neskatxaren bihotz
garden eta bigunak zora arazi zitzaizkeen eta horrela izan zen
gainera. Asensiok berak, bere aldetik goreneko jomuga berezi-
rik ez izanik ere, herriko neska lirain eta jator batekin aurreran-
tzean bere bizi egunak erdibanatzea erabaki zuen eta prestaketa
haundirik egin gabe, Erramunarekin ezkondu zen.

Herrian izan omen ziren inbidiak eta amorroak erakarritako
azpiesan ugari. Ez zela bikote egokia, diruak zirela medio ez-
kontza hartan... Asensiok berriz sarri bere emazteari begietara
begiratzuz hauxe esaten omen zion: «Eta zer dakite bada amo-
dioaz? Herria antzezleku bat da eta norbaitzuk izan behar dute

komeriante...» Eta une horretan, hitz xamur hoiek entzutean, Erramunak nolabaiteko zoriontasun labur eta iheskor bat sentitzen omen zuen -hau berak niri sekretuki esanda, noski-, nahiz eta bestela, bere eguneroko bizitzan sakon sakoneko maitasun gosea ase gaberik izan.

Halere, lasaitasunez eta pakez igarotzen zituzten beraien egunak. Egunez dendan, bata josten, bestea salmentan -denda berritu eta haunditu ere egin bait zuten- lanez leporaino beteak, eta gauzez afalondoan, su lama zinbelei begira eguneko gertakizunei buruz solasean.

Nik denbora gutxiz hantatzeko aukera izan nuen Asensioaren emazte zen Erramunarekin. Dendan lanean hasi eta hamar hilabetetan, gaixoaldi labur baina gogor batek eraman zuen hemendik, Asensio goibelaldi beltz eta suntsitzaile batetan barnerraturuz. Hala eta guztiz, bere lanerako joerak bultzaturik egoera larri hura gainditzera behartu zuen bere burua, denbora gutxian berriz dendan martxan jarriaz.

Erramunarekin hamar hilabete haietan izan nituen harremanak oso hestu eta sakonak izan ziren. Zenbat aldiz, nire lana bukatuta gero exeritzen giñen dendako txoko izkutu batetan bata bestearen aldamenean geure gauzetaz hitzegiten. Nik bizitzaz nituen hainbat ideia desorekatu finkatzen berak lagundu zidan. Eta baita beste majiña bat alderditan, munduari nire begi lausotuak irekitzen ere. Bihotz barrenean xamurki gorderik nituen sentipen lotsatienak ere berari agertzen nizkion eta egia esan, emakume hark eskaini zidan ulermen eta maitasun garbia beste norbaitengan inoiz bilatuko dudan zalantzan jartzen ausartzen naiz.

Bat baino gehiagotan esan ohi zidan : «Munduan behin leku bat hartzen baduzu, leku hori besterik ez duzu izanen...Kondena bat bezala, geure baitan daramagu gure izena, gure karrika, gure herria...» Bere bizitzaren ondorioz ateratako gogoeta haiek nigan eragin handia izan zutela onartu» behar dut. Are gehiago,

gaur estazio zahar eta lizun honetan trenaren zai banago, beste gauza batzuren artean, Erramunak koszienteki izan gabe noski, nigan ezarri zituen gogoeta haien ondorioa da, seguraski. Zenbat aldiz bere heriotzaren ondoren desira izan ditut txoko ilun hartan izan ohi genituen solasaldi sakon eta emankor haiek!...

Dendan lanean hasteko agindu zidatenean, une batez poztasun txiki bat sentitu nuen. Agian salmahai atzean behar ote ninduten?

Txikitatik laketetsi izan nuen dendetan ikusten nuen salmentetako saltsa hura. Eta maiz amets egin nuen, hain zuzen, nere burua saltzaile fin eta nabarmen bat bezala ikusiaz. Halere, hasierako irudipen hura nire nahiak sortutakoa besterik ez zen, ongi finkatua eta zehaztua bait zegoen nire egin beharra izango zena, alegia, Asensio jostunak bukatzen zituen lanak zegokien zuzenbidetara eraman eta eskuz entregatzea. Beraz, herri osoa bostpasei aldiz zeharkatzen nuen goitik behera, ezkerretik eskuinera astean zehar. Dena den eta nire hanka fin eta azkarrei esker, azkar xamar egiten nituen enkarguak horrela gero dendan egoteko aukera eukitzen bait nuen.

Hauetako egonaldi batetan izan nuen nere lehenengo topaketa Ladisekin.

Dendako barrualdean nengoen ohi bezala Erramunarekin solasean. Kanpotik Asensioaren dei bat entzun genuen dendan azaltzeko aginduaz, bidaiante bat etorria zela eta honek salgai zekarren zenbait artikulu guk ere ikus genitzan nahi zuen. Dendan Asensioarekin tratuan zebillen mutil hark Ladis zuen izena.

Gertakizun hau, bidaiantearen bixita alegia, oso ohizkoa ez zenez, interes eta arreta osoz kasu egin genion. Nik oso hitz gutxi egin nuela oroitzen naiz, gai guzti haietan nire eritzia ez bait zen oraindik fidagarriena. Halere, dendan sarrera egin nuen une berberatik bidaiante haren begirada nigan somatu nuen, zerbait aztertu nahian balebil bezala. Ni, guztiz lotsaturik eta kunkuñaturik egon nintzen tratua itxitzeak iraun zuen denbora

osoan. Gizon hark, urduri jartzen ninduen eta haren begiradak ausartkeria hutsak iruditzen zitzaizkidan.

Azkenean, beraien arteko akordioa bukatutzat eta ondo bukatutzat gainera jo zuten eta handik aurrera sarriago etorriko zela agindu zien Ladisek Asensio eta Erramunari.

Lehen ikustaldi haren ondoren nolabaiteko pirpirira bat sortu zen nere baitan eta noizbehinka nire pentsamentuak bidaiante ezezagun haretan erdiratuak ustekabeen harrapatzen nituen. Eta orduan bai benetan arduratzen hasi nintzen.

Ladisen bixitak ere ugaritu egin ziren hurrengo hilabetetan eta hasera batetan senti genuen bata bestearenganako erakarpen hura, gero eta nabariagoa egin zen. Bera iristen zenerako ni dendan egoten saiatzen nintzen eta horrela gure arteko hizketaldiak ere maiztu egin ziren.

Haietako iluntzi xamur eta ilun batetan, niregana hurbildu eta honela esan zidan:

—Aizu, Miren —nere izena ere bazekien jadanik gaur gauez herrian gelditu beharra daukat eta dendatik ateratzean nirekin zerbait hartzera etorriko al zinateke?

Nik ez nuen harengandik horrelako proposamenik inondik ere espero. Erabat txunditurik gelditu nintzen eta guztiz izututa, ezetza emateko edozein aitzakia asmatzeari ekin nion istintiboki:

—Sentitzen dut baina gaur hain zuzen lagun baten etxera joatekotan naiz, gaixo dago eta bixita bat egitera.

—Lastima. Irrikaz nengoen zurekin lasai hitzegiteko baina ez dakit luzaroan berriz aukerarik izango dudan, laneko orduetatik kanpo hemen gelditzeko. Beno, hurrengo batetan izango da.

—Hala beharko du.

Azken hitz haiek erdi zotinka atera zitzaizkidan. Buelta eman eta barrura sartu nintzen begiak lausoturik, malkoak ezin eutsi nituelarik. Gau hartan zenbat aldiz gorrotatu nuen nere burua ezingo nuke esan, ez eta zenbat malko isuri nuen ere. Zentzu-

gabeko aitzakia hura bururatu zitzaidan unea ere mila aldiz mardarikatu nuen.

Ni bai nengoela irrikaz Ladisekin hizketaldi luzeagotxo bat izateko. Are gehiago, elkar hobeki ezagutu eta bidekoa balitz harreman hestuego batetan sartzeko, nahiz eta batzuetan, ideia hau arinkeri hutsa zela pentsatu nere baitan. Egia esan, gure bizitzek ez zuten inongo antzerakotasunik ere eta guztiz desberdinak ziren bi mundutan geunden sartuak.

Hala ere, Ladis emeki-emeki nere bizitzan barneratu zen. Agian, hobeki pentsatu ezker, neroni atera nintzela nigandik esan beharko nuke... Ez dakit. Gauza guzti hoietan eta batez ere amore kontuan zuhurra naiz eta nahiko hotza gainera, horrela hezia izan bait nintzen nire famili giroan. Baina mutil hark nire defentsei aurka egiteko hainbat izkutuko baliabide zituen eta niregana hurbiltzen zen bakoitzean zerbait kentzen zidan. Horren ordeaz asko jaso nuela ere onartu beharrean nago. Nolabait, emakume berri bat hedatu zuela nigan esatera ausartuko nintzateke.

Igande goiz batetan, telefono hotsak esana arazi ninduen. Entzugailua hartu eta Ladisen ahotsa entzutean, bihotza bortizki kolpeka, odola gora eta behera hasi zitzaidan. Egun zoragarri hura ikustean nirekin oroitu zela eta hiru bat ordu barru nire bila etortzeko prest zegoela adierazi zidan, nik hala nahi banuen behintzat, eguna elkar igarotzeko asmoz.

Oraingo hontan, ez dakit nola, adimena ere gogortu egin bait zitzaidan, baietz esan nion, eta hamabietan dendako atarian elkartzekotan geratu giñen.

Telefonoa utziz bat nere gelara abiatu nintzen erdi zorabiatu. Leihua ireki nuen: egunsentia ezari-ezarian argitzen hasia zen. Aire epel zegoen. Zeruan zenbait hostarte nabaritzen ziren, gero eta zabalago, gero eta urdiñagotuaz dena. Eta guzti hura ederrago iruditu zitzaidan Ladisen deiaz oroitzean, atsegina eta betetasun sakon bat sentituaz nire bihotzean.

Elkar aurkitze haren ondoren, gure hartu emana gero eta gehiago indartuz joan zen. Ladisek mundu asko ezagutzen zuen eta bizitzaren ikuspegi guztiz ireki bat zeukan, nirearekin parekatuaz behintzat. Benetan haren hiri pentsakerak eta nere herrikoiak ez zutela beraien artean zerikusirik.

Oroitzen naiz era berean, hiriko bere bizimoduaren gora behe-
rak kontatzen zizkidanean aho zabalik gelditzen nintzela eta baita nire buruan milaka ideia eta amets berri pindarkatzen jarri arazten zizkidala. Halaber, Ladisekin guzti horretaz hitzegiten hasi aurretik ez nuen nire bizitza, herriko beste hainbat neska-
txek zerramatena bera izango ez zela pentsatzerik ere eta beste aukera batzuren izateaz ez nuen inondik inorako ezagupenik. Ez zen harritzekoa beraz, aurkikuntza berri haiek hasera batean nere zentzu guztiak iraultzea.

Bera ere nere buruan ideia berriak sartzen saiatu zen, nahiz eta bestalde gogorregi egin beharrik ez izan ni ere pertsonalki, herri-
rian ikusten nuen bizitza arrunt eta xehe harek ez bait ninduen guztiz erakartzen. Baina nondik atera hori dena utzi eta kanpora ateratzeko behar zen indar eta ausardia? Herrira lotzen gintuen lokarri sendoetatik askatzeak asko suposatzen zuen eta are gehiago nirea bezalako famili inguru batetan, zeinetan tradizioa, ohitura eta etsipena bait ziren nagusi. Eta noski, horrelako «zentzuga-
bekeria» bat haizuki egitea ez zitzaidan burutik pasatzen ere.

Dena den, azken batez konbentzitu ninduen Ladisek gutxien-
ez froga bat egitera. Hirira joan, zerbaitetan ari denbora batez eta nolabait bertako bizitza dastatu, jadanik behin betirako era-
baki bat hartu baino lehen.

Gauzak horrela, azkenean, berezko eta bat bateko erreakzio
batez bultzaturik, inongo zihurtasunik gabe, nire gauzak hartu eta gau ilun, hertsi hau aukeratu dut nire bizitzako une
gordienetariko bat bizitzera ateratzeko, noski, ixilean eta us-
tekabean etxetik irtenaz, ez bait naiz aita-amaren aurpegi xi-

murtu eta hondatuei aurre egiteko gai izan.

Oraindik ere ez nago zihur trenea agertzen den mementu be-
rean nire hankak mugiarazi eta ate zahar hoietariko batetik sar-
tzeko ahalmenik izango dudan. Ez ote dizkidate une horretan
nere indaffek huts egingo eta atzeraka itzul araziko?

Bi ordu baino gehiagoz zapaltzen ari naizen lur hotz eta zikin
hau busti itxura hartzen hasi da. Lanbroa ari du, fereka fin bat
bezala eta aireak ene heze usaia hartu du jadanik. Iluntasunak
gero eta gehiago inguratzen nau eta bihotzean odola hoztutzen
hasi zaidala sentitzen dut. Gorputzeko hezur eta giharreak ere
hozmindurik ditut hotz eta higidura ezaren ondorioz. Mereziko
ote du, hirian zain dudan bizitza berri horrek une hauetako oi-
naze eta desolapen hau? Edo eta nere zihurtasun eta konfidantza
faltak sortarazten al dizkit bihotz barranean horren sentipen ga-
rratzak?

Benetan diot, ez dakit beste orduerdi soilik ere hemen zai
egoteko gai izango naizen...

Burua ere gainezka daukat hainbeste oroitzapen eta pentsatze
lanetan aritu ondoren... Nonbaiten irakurria dut: «Estazio zahar
bat, aulki bi, eta hamaika istorio asma ditzake tristurak...»

Aurpegia goratu eta euri tanta orain lodiagoak sentitzen ditut
kolpeka nere masailetan...

Bost minutu gehiago eta...



Juliano Mujika
(C. maila 3. Saria)

Neu

Aurkibidea

- 1.— Aita baten nigarra
- 2.— Jarrai zak aurrera
- 3.— Apaiza eta langabetua
- 4.— Askatasuna
- 5.— Euskaraz
- 6.— Patxi eta Peio

Neu

AITA BATEN NIGARRA

Portugaletik etorri nintzen
Euskal Herrira lan eske
ez nuen uste lortzerik
atsegin eta zorion hainbeste.

Lanpostu ona eman
zidaten Elgoibartarrak
baina zoritxarrez ondatu ninduen
euri handi eta saskarrak.

Aurtengo uztailaren hemeretzian
bukatu zen nire bizitza
uholde ikaragarri batek
kendu zidan arnasa eta hitza.

Zuhaitz baten gainean
gelditu nintzen ustegabe
nire emazte ta alabak
teilatu gainean atsegabez.

-Aita- esaten zidaten haiek
urak gora ta gora datoz
ikara haundia dugu
beldurra eta gainera hotz.

Udaren erremuskada baten
nire emazte eta alaba biak
gordintasunez eramán zituen
besoak altxa ta negarrez begiak.

Gauzak azkar izan ziren
eta ez nuen modurik laguntzeko
gure jaunaren beharra eduki
baina indarrrik ez eskatzeko.

JARRAI ZAK AURRERA

Artzain txabola triste batetan
bizi naiz geldo ta nagi
kalera noa ondasun bila
eta hori adierazten dut garbi
gizon zahar batek lurrera begira
ezezko kontua dit ageri
jarrai zak aurrera
hemen ez zioz hik nahi dekana

Hiri haundi batetara heldua naiz
umore on dago. Bada soinua ta dantza,
janari goxuak eta ardo fresku ugari
zoriontsu direla hartzen dut antza

baina irrintzi eta oiñu artean
aditzen da erantzun garratza
jarrai zak aurrera
hemen ez zioz hik nahi dekana.

Palazio egoitza batean
urrearen dirdira da nabarmen
hemen ondasunik ez dala
ez da errez asmatzen
inbidia gogorra ordea
eta zekenkeri haundia da agertzen
jarrai zak aurrera
hemen ez zioz hik nahi dekana.

Neke ta gose aurkitzen naiz
bide bazterrean
ilunpe hontan ez det ezer ikusten
larri ta triste barrenean
Pedro deunak zeruko atea iriki
eta esaten dit nere onean
jarrai zak aurrera
hor zioz hik nahi dekana.

APAIZA ETA LANGABETUA

Jaunaren aginduak bete ezina
hau da apaiz baten negarra,
«nere lagunén ezkontza eta ihesa
santu izateko tentazio txarra,
gazte askok ez dute lanik
neronentzat ere ez da patxada,
herrian barregarri ikusten naiz

ez omen da ona, nire izate kaskarra.
Jauna! zer egin behar dut pòzteko
pozteko nere barruko arra?

Estu ta larri da gure Txomin
ez bait du lanik topatzen
etxean dirurik ez
eta lotsa auzoan eskatzen
«Nun dira -dio- herriko arduradunak?
Leku guztietatik nauzue bidaltzen
gaztea naiz eta bizi nahi dut
leize zulora ikusten naiz jausten
mesedez, ia nork duen
eskua zabaltzen»

Sorginkeria dela esango genuke
baina eretan zerbait esan nahi du haizeak
eta bere txistu gogorrarekin
ulertu diogu esaten bereak.
«Apaiz jatorra zarela ez dago zalantzarik
zure nahiak puskatuko ditu kateak.
Eta bi hitz langabetu honi
ikasi lanean eta itxaron pakean
biok izan zaitezte apalak
eta maiteko zaituzte leku danean».

ASKATASUNA

Libre izateko eginak gara
baina ez lagun urkoa izurratzeko
batzuk miseri eta gerra sortzen dute
euren poltsikoak gizentzeko

gogorkeria besteentzat
eta askatasuna beraientzako.

Marrazki bat egiten dugunean
ez dugu nahi hondatzeko arriskoa
eta legeak aldatzeko berriz
gizonaren gozamina nahikoa
elkar errespetatu gaitezen
eta hor askatasun zoragarrikoa.

Askatasunik ez den herrian
ezin joan justiziaren bila
ez du aurrerapenik, ez hitzik,
bizirik da hila
gizona derrigortu duenak
al badu erantzun dedila.

Baso eta mendietan
itsaso eta lehorrean
maitasunezko pakea
askatasuna denean.

EUSKARAZ

Euskaraz ekin
ta erdaraz bukatu
gehienak arrokeriz
gaizki hitzegin eta nahastu
martxa hontan gure hizkuntza
laister dugu ahaztu.

Negar egiteko gogoia ematen dit
ikusten dut euskara hiltzen
baina gogorrek garenez

ez dugu utziko bukatzen
ia mutilak argi
ez utzi inork menperatzen.

Aberastasun grazia da
hizkuntza asko jakintzea
ezin ordea hartu ontzat
nork berana galtzea
hori izango litzateke pena
hori bizirik hiltzea.

Ez dezagun sekula uka
euskaraz hitz egitea
arrisku edo beldurratik
gaizki dago ama hori ahaztea
bere itzal edo babespean
lortuta dago gure izatea.

PATXI ETA PEIO

Patxi

Orain lehenago baino
teknika gehiago dugu,
gauzak erraz eta
azkarrago egiten ditugu,
tresna berrieri esker
jantzi garbi ta prest azaldu,
irradi eta telebista
atsegin gertatzen zaizkigu

Peio

Orain berrogaita urteak
bizi ginen lasai,
gure herria txikia zen
eta guztiok ginen anai,
teknika honek asko langabetu
eta hori ez dugu nahi,
telebistan ipuinak baino
hobe dugu mendian artzai

Patxi

Nork lehenago Zarauztik Getarira
jun, eta han bixigua gosaldu
ni kotxean eta zu, Peio, oinez
egingo nizuke apustu.
Ikusiko duzu aurrerakuntzaren aurka
ezingo duzula jokatu,
gauza berri bila joan gaitezen
eta zaharrak ahaztu.

Peio

Elgoibarko zubitik arrantzan
hamaika aldiz egiten genuan.
Ez zegoen, Patxi, ibaia
hain zikin eta sastraka orduan.
Garai hartan zu Zarauztik abiatu
baino len, neronek arraia jan nuan.
Zarbo eta angira ugari bai zen.
Lehengo gauzak ontzat ditut nik goguan.





ELGOIBARKO UDAL EUSKARA BATZORDEA

Laguntzailea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipúzcoa